goiena
Zu hemen zaude.

2019-06-07 EGUBAKOITZA / 819. ZENBAKIA / 19. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

Cruz Gallastegi, ingeniari agronomo bergararra

Monica Miguezi elkarrizketa (Medicus Mundi)

BATUTA ALDAKETARAKO GERTU

Enrike Txurrukak hartuko du, domekan, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren lekukoa Bergarako Musika Bandaren zuzendaritzan / 26

Enrike Txurruka eta Alfredo Gonzalez Chirlaque, Musika Bandako batuta batek besteari uzteko gertu.

XABIER URZELAI



Ia urte bi korrika egin barik egon ostean, Zegama-Aizkorrin bosgarren izan da Oihana Kortazar / 38

Bergarako Udaleko jarduneko Gobernuak Seminarioko lur azpiko parkingeko lanak gelditu ditu / 24

Deba ibaiaren egoera eta uraren kalitatea "ona" da gaur egun, "eskasa" den arren toki batzuetan / 2

Arrasateko ustezko lapurren gurasoak "etsita" agertu dira; "soluzio integralak" eskatu dituzte / 10

Ekaineko lau egubakoitzetan musika kontzertuak Aramaion, Sastiñan, gaur hasita / 41

SINADURAK

RUFINA OLASAGASTI / 8
ANA CARPINTERO / 24
ENEKO FERNANDEZ / 11
AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ / 33
PERU ABARRATEGI / 16
ONEKA ANDUAGA / 35
NEREA GORDEXOLA / 22
MIKEL IRIZAR / 48



Deba ibaia, gorritik berdera

Ekainaren 5a Ingurumenaren Nazioarteko Eguna izan da eta, horretaz gain, aste hau plastikoren aurkako izendatua dute. Gaia eskualdera ekarriz, jakina da Deba ibaiaren egoera "asko" hobetu dela, baina zelakoa da bertako uraren kalitatea?

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA

Ura agentziaren neurketa ekologikoaren mapek Leintz Gatzagatik Osintxuraino doan ibai zati ia osoari kalifikazio "ona" ematen diote, oso onera iritsi gabe. Salbuespen bakarrak Antzuola eta Ubera errekak dira. Antzuola errekaren kalitatea "eskasa" moduan baloratua dago eta Elgetako Sesto errekatik Deba ibaira doan Ubera erreka, berriz, "neurrizko" moduan. Gainontzeko guztiek balorazio "ona" dute.

Ur zikinen kudeaketa

Antzuola eta Ubera erreketan uraren kalitatea baxuagoa izatea kolektore faltarekin bat dator. Izan ere, Elgetan, esaterako, ur zikin guztiak Sesto errekara doaz zuzenean eta hortik, berriz, Ubera errekara. Iraitz Lazkano alkateak argitu du "2007az geroztik ur saneamendu lanen zain" daudela, eta, Eusko Jaurlaritzako Ura agentziarekin sinatu berri duten hitzarmenaren arabera, "2021a baino lehen" egingo direla lan horiek.

Antzuolaren kasuan, Debagoienean kolektorea izan zuen lehen herria da, 1980ko hamarkadan. "Ur zikin guztiak kolektore orokor baten jasotzen dira eta herri barruan ur zikinak errekara ez dira joaten. Herria pasatu eta gero, Arizti baserritik 500 metro behera, kolektorea bukatzen da, eta hor bai, hor errekara joaten da. Orain bukatuko den obrarekin, kolektorea luzatu egin da eta bidegorri azpitik Galartzako zubiraino joango da, ia gure udalerriren mugan. Beste zati bat falta da, zubitik Bergararaino, eta hor dago hitzarmen bat egiteke Ura agentziarekin", argitu du Valen Moñuxek, Antzuolako Udaleko aparejadoreak.

Debagoieneko gainontzeko herriei dagokienez, ur saneamendu sistemak herriaren gehiengoa hartzen du eta baserri eta etxe bakarrek, berriz, euren putzu beltz propioa dute, legeak agintzen duen moduan. Dena den, badira oraindik ere konpondu beharreko puntu beltz batzuk.

"Bergaran urtero puntu beltz bati konponbidea ematen diogu, baina oraindik ere geratzen dira batzuk konpontzeko; San Lorenzoko industrialdea eta Katabia inguruak, esate baterako. Eta baita erreka alboetan dauden etxe solteak ere, hauek zuzenean isurtzen baitituzte ur zikinak errekara", argitu du Lander Arregik, Debagoieneko Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketa Batzordeko presidente eta Bergarako Udaleko Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak.

Oñatin ere, Udalak aditzera eman duenez, Correos inguruan eta unibertsitate atzean dauden etxebizitza batzuk ur saneamendu sistematik kanpo daude egun, eta Osiñurdineko industria batzuetan ere zuzenean egiten dira isurketak oraindik.

Arrasateko Udalak, berriz, jakinarazi du "hiru etxebizitzatako eraikin batek soilik" isurtzen dituela ur zikinak zuzenean ibaira, Ur Kontsortzioko kolektorea urrun dagoelako.

Leintz Gatzagako, Aretxabaletako eta Aramaioko udalek

Deba ibaiaren kalitatea

ITURRIA: URA AGENTZIA

"Azken urte hauetan Deba ibaiaren mapa oso bestelakoa da; duela hogei urteko mapan, guztia gorriz agertzen zen; hau da, txar moduan. Eta begira orain, ia guztia berdez", argitu du Eusko Jaurlaritzako Ura agentziak.



Deba ibaia, Arrasaten. GOIENA



jakinarazi dutenez, ez dute ibaira ur zikinen isurketa zuzena duen punturik. Eskoriatzako Udalak ez du informaziorik eman.

Guztiaren gainetik, Ura agentziak argitu du egoera "ona" dela eta 2021erako markatuta dituzten helburuak lortuko dituzten itxura guztia duela ibaiak, eboluzioa "oso positiboa" ari delako izaten, euren iritziz. Agentziak gaineratu du neurriak baino gehiago denbora dela ibaiak behar duena egoera biologiko egokira bueltatzeko. "Lehenik eta behin, uraren egoera fisikokimikoa konpondu behar da, eta, hau egonkortzean, pixkanaka joango da ibaian bizitza sortzen. Bost urtean egoera asko hobetuko dela uste dugu".

Errekaren ekosistema helburu

Oñatiko Natur Eskolako ingurumen adituek ederki ezagutzen dute Deba ibaiaren egoera, ibaia euren lan-jardunaren parte baita. Horretaz gain, Oñatiko Udalarekin elkarlanean, urtero, urrirako, garbiketak antolatzen dituzte, herritarrentzat.

Aimar Uribesalgo Oñatiko Natur Eskolako ingurumen hezitzailea da, eta ibaiaren egoeraz hitz egitean bi faktore hartu behar direla kontuan azaldu du: uraren kalitatea, batetik, eta errekaren ekosistema, bestetik. "Nahiz eta azken urte hauetan uraren kalitatea hobetu, erreka ekosistema ez dago egoerarik onenean. Izan ere, gizakiok erreka ondoan egin ditugun ortuen, errepideen, etxeen eta enpresen erruz, erreka alboko basoak desagertu egin dira eta, horrekin batera, honek dituen funtzioak ere bai", dio ingurumen hezitzaileak.

Basoak ibaiari ekartzen dizkion onurak ere aipatu ditu Uribesalgok: "Esaterako, basoak ibaiari gerizpea ematen dio, eta, horri esker, udan ibaia tenperatura baxuagoan mantentzen da, bertako faunaren mesederako. Horretaz gain, basoko zuhaitzei esker, fruituak eta loreak errekara erortzen dira. Bertako xomorro eta arrainentzako elikagai izateko. Eta horrela, bata bestearen elikagai dira eta natura zikloa osatzen dute. Hain zuzen, basoak erreka ekosistemaren oinarri dira". Horretaz gain, basoek babes-gune funtzioa ere egiten dutela argitu du Uribesalgok; batez ere, hemen inguruan hain ohikoak diren haltzek.

Deba ibaiko "bizitza"

Deba ibaian bizi diren espezien berri ere eman du Oñatiko Natur Eskolak, eta ez dira gutxi: karramarroak, amuarrainak, aingirak, apoak, sugeak, lertxunak, martin arrantzaleak eta buztanikara horiak, esaterako.

Lander Arregik ere nabarmendu du ibaian fauna asko agertu dela urte hauetan eta bizia berreskuratu duela: "Uste ez zuten kopuruetan". Gaineratu du, ordea, uraren kalitatea berreskuratu eta fauna hobetu arren, erreka ertzeetan zabor ugari ageri direla oraindik, eta, hori dela eta, erreka egunak egiten ari dira Debagoieneko herri gehienetan azken urteetan herritar taldeak, Mankomunitatearen eta udalen babesarekin. "Horrek kontzientziazioan eragina izan du eta gero eta zabor gutxiago botatzen dira ibaietara", argitu du Arregik.

Horren adibide dira Arrasate Herri Eskolakoek zapatuan auzolanean egin zuten erreka garbiketa. "Iaz, San Andrestik anbulatorio ondoko biribilguneraino egin genuen garbiketa, eta, orduko arrakasta ikusita, aurten, biribilgune horretatik beherako zatia garbitu dugu. Helburua haurrak kontzientziatzea da, eta ikus dezaten gozokipakete bat lurrera botata noraino iritsi daiteken", dio Ane Miren Gorostizak, Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteko kideak. Tabernetan kafearekin ematen duten gozokiaren ehunka zorrotxo, sei koltxoi, Gabon zaharreko apaingarriz betetako kaxa bat, zartagina, aterkia, bizikleta zatiak, mantak, toallak eta ateratzea lortu ez zuten somier bat zeudela azaldu du Gorostizak.

Bainua hartzea posible ote?

"Ametsa da Usondo parkearen inguruan ur lamina bat sortuta bertan bainua hartzea, zoragarria litzateke. Arazoa da, ordea, udan gero eta ur maila baxuagoa izaten dugula Deba ibaian eta kantitate gutxi izateak uraren kalitatea jaisten duela", azaldu du Arregik. Uribesalgok dio Deba ibaian ezetz, baina Oñatin eta Osintxun badirela bainurako egokiak diren errekatxoak.

Martitzenean elkartu zen lehen aldiz Aretxabaletako talde hori. MIRARI ALTUBE

Plastikoaren erabileraz hausnartzen

Hainbat herritar elkartu dira plastikoaren bueltan hausnartzeko eta gaiari adarretatik heltzeko Aretxabaletan. "Ezin dugu gehiago itxaron, bukatu da zain egotea; izan ere, kontu honek ez du atzera bueltarik", diote. Dagoeneko hamalau bat lagunek egin dute bat borroka horrekin, eta ateak zabalik dituzte gainerako herritarrendako. Horretarako, helbide elektroniko bat zehaztu dute: *plastikoaburuan@gmail.com.* Datozen egunetarako hainbat ekintza iragarri dituzte, baina argi dute talde iraunkorra izango dela eta lana ez dela aste honetan bukatuko.

Kontzientziatze lan hori indartzeko, *Océanos de plástico* dokumentala emango dute hilaren 12an, eguaztenean, Basotxon (17:00). Plastikozko botilen tapoiak jasotzeko ontziak ere jarriko dituzte.

Deba ibaia garbitzen aritu ziren zapatuan Arrasate Herri Eskolakoak. J. BEREZIARTUA

URAREN KALITATEA ASKO HOBETU DEN ARREN, ERREKAREN EKOSISTEMARI ASKO GERATZEN ZAIO

DEBAGOIENEAN BADIRA ORAINDIK UR ZIKINAK ZUZENEAN IBAIRA ISURTZEN DITUZTEN PUNTUAK

Droga kontsumoei buruz hausnartu, kirola eginez

'Inklusioa: esnatu, mugitu, ausartu eta erabaki' jardunaldiak egiten ari dira asteon Donostian, UDA kirol elkarteak, San Juan de Dios ospitaleak eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek antolatuta; gaur, egubakoitza, bi adituk hitzaldia egingo dute

Eneko Azurmendi ARETXABALETA

Antolatzaileek beste batzuen laguntza izan dute ekimen hau aurrera eramateko: Kurtzebarri eskola eta Arizmendi Ikastola, Gurasoen elkarteak, eta inguruko hainbat enpresa. Helburua da, kirolean jokatzeaz haratago, lan taldeetan droga kontsumoaren inguruan hausnartzea. Horregatik, kirola aintzat hartuta, droga kontsumoen ondorioz gaixotasun mentalak dituzten pertsonak eta gazteak elkartu ditu ekimen honek.

Jardunaldi hauetan Kurtzebarri ikastetxeko eta Arizmendi Ikastolako DBHko 4. mailako neska-mutikoek hartuko dute parte, San Juan de Dios ospitaleko pazienteekin batera. 100 ikasle inguru aritu dira ekintza ezberdinak egiten. Eguaztenean, Arizmendi Ikastolako 60 bat ikaslek hartu zuten parte eta atzo, eguena, Kurtzebarriko 40 inguruk. Pazienteei dagokienez, 65 inguru izan dira orotara.

Ikasleak eta pazienteak boleibolean jokatzen atzo, Donostian. 'INKLUSIOA'

Hausnarketarako txokoa

Eguazteneko taldeak petanka eta areto-futbola egin zuen, eta atzoko taldeak, berriz, boleibola hondartzan eta saskibaloia. Bestalde, bada bi egunetan errepikatu duten ekintza bat: "kultura etxe batean gaiaren inguruan hausnartu eta eztabaida irekia egin dute. Galdera batzuk egin zaizkie, eta nerabeek zein pazienteek euren iritziak eman dituzte, eta esperientziak partekatzen dituzte, euren arteko solasaldietan", dio Maider Etxanizek, Aretxabaletako eta Eskoriatzako Gazteria teknikariak. Gaineratu du ikasleen eta pazienteen arteko harremana "oso naturala" izan dela.

Gaur, bi hitzaldi

270 pertsonak eman dute izena gaur Donostiako Arkitektura fakultatean egingo dituzten bi hitzaldietarako. Lehena Patricia Ros psikologo klinikoak egingo du, 09:30ean: *Heziketa prebentziorako tresna*. Bartzelonako unibertsitatetik etorriko da Ros. Urte asko darama prebentzio alorrean lanean eta gaiarekin lotutako hainbat hitzaldi eta mintegi zuzendu ditu.

Bigarren hitzaldia, *Sustantzien kontsumoa eta ondoriozko patologia* izenekoa, Marta Torrens Bartzelonako Hospital del Maren adikzio ezberdinen inguruko ikerketa taldeko kideak egingo du, 12:00etan. "Kontsumitzeko dauden moduen inguruan eta datozen modu berrien inguruan ere hitz egingo du Torrensek, guztiok ulertzeko moduan, hitz tekniko barik", azpimarratu du Etxanizek.

2017a ezkero elkarlanean

2017ko uztailean, UDA Aretxabaleta Kirol Elkarteak hitzarmena sinatu zuen Arrasateko San Juan de Dios Ospitalearekin. Hitzarmen horren bidez, UD@A proiektua jarri zuten martxan, *Nerabezaroan drogen aurka elkarturik* izeneko ekimena abian jartzeko. Gero, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek bat egin zuten egitasmoarekin, nerabe guztiengana iritsi asmoz. Ordutik, hainbat egitasmo egin dituzte eta hau ere testuinguru berean kokatzen da. Hasieratik elkarlanean aritu dira drogen prebentzioaren inguruko proiektua gauzatzeko. Publiko objektiboa Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeak dira. Kirol balioak indartu eta bizimodu osasungarriaren aldeko hezkuntzarekiko "konpromiso soziala" sustatzea izan da helburua.

HELBURUA DA DROGA KONTSUMOAREN INGURUAN HAUSNARTZEA, KIROL BALIOAK INDARTUZ

Marian Porcel, Harreman dendako koordinatzaile berria

Hilabete darama, eta oraindik dendaren alde praktikoa ikasten ari dela dio, baina pixkanaka badoala ikasten

E.A. ARRASATE

"Niretzat, guztia berria da, inoiz ez dudalako denda batean lan egin. Dendaren eguneroko alde praktikoa ikasten ari naiz oraindik, eta boluntario guztiei eskertzen diet egin didaten harrera eta ematen didaten laguntza. Eurei esker banabil pixkanaka ikasten eta aurrera egiten", dio.

Bidezko merkataritza zer den zabaltzea inportantea dela uste du Porcelek. "Hemen euskarri bat ematen diegu garapen bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei, nekazariei, eta abarri, eta euren produktuak benetan balio duten prezioan saltzen ditugu. Eskubide batzuk bermatzen ditu bidezko merkataritzak".

Marian Porcel, dendan. E.A.

Ekoizleen lan-baldintza eta soldata duinak bermatzen dituzte, eta garapen bidezkoago eta jasangarriago bat bultzatzen dute, "hau, da, produktu organikoak eta kalitatezkoak".

Kanpoko komertzio batzuetara eramaten dituzte produktuak: Arrasateko eta Bergarako Ereindajan, Esther belar-denda, Feli denda, Aramailur, Euzki okindegia, Labide, Namaste eta Sanprubusa (Sanpru SL).

Komertzioez gain, bailarako enpresekin ere ari dira lanean, *vending* kafe-makinetan bidezko merkataritzako kafea sustatuz.

Bestalde, Harreman GKEk Elkartasun Eguna egingo du bihar, zapatua –ikus 13.orria–.

ausolan
auzo lagun

AUZO LAGUN Koop. E. – ARRASATE

Estatutu Sozialen 32. artikuluak dioenaren arabera,
Ohiko Batzar Nagusirako deia egiten da.

OHIKO BATZAR OROKORRA
Deialdia

Eguna: 2019ko ekainaren 15a
Ordua: 09:30ean, lehen deialdia - 10:00etan, bigarren deialdia
Tokia: Garaia Parke Teknologikoa

GAI - ZERRENDA

1. 2018KO OHIKO BATZAR NAGUSIKO AKTAREN ONARPENAREN BERRI EMATEA, ETA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTUKO DUTEN BAZKIDEEN IZENDAPENA.
2. KUDEAKETAREN AZTERKETA ETA ONARPENA
   2.1. 2018ko Kudeaketaren onarpena
   2.2. 2019ko Kudeaketa Planaren berrespena
3. 2018KO EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA
4. INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN EGOERAREN (IEFE) AZTERKETA ETA ONARPENA
5. SOBERAKIN GARBIEN BANAKETA
6. EKONOMIA ARAUBIDEARI BURUZKO ESTATUTUEN XEDAPENAK
   6.1. Sarrera kuotak eta ekarpena
   6.2. Kapitalari egindako ordainketa
   6.3. IPDK aplikatzeko irizpideak
7. MONDRAGON TALDEARI ETA ERKOP KOOPERATIBARI BURUZKO TXOSTENAK
8. ORGANO SOZIALETAKO KIDEEN HAUTAKETA
   8.1. Errektore Kontseilua
   8.2. Errekurtso Batzordea
9. KONTSEILU SOZIALAREN BERRIZTAPENA
10. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
11. GALDERAK ETA ESKARIAK

OHARRAK: Bazkidea gogoratzen zaio Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituela Kooperatibaren agiri ekonomikoak eta agiri heuek deus ere ezteko edo bidaltzeko eska ditzaketela

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
2019ko maiatzaren 27a

lanerako gertu!

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

2019-2020

Oñati gestio **heziketa**

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Izen-ematea

Ekainaren 3tik 14ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
•Administrazioa eta Finantzak •Zuzendaritza Idazkaritza •Salmenta Kudeaketa	•Automatizazioa eta Robotika Industriala •Sareko Informatika Sistemen Administrazioa •Fabrikazio Mekanikoko Diseinua •Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa •Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

LABORAL kutxa · HETEL · Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA · Mondragon Unibertsitatea

Euskaraldiaren bigarren edizioa martxan da jada

Lehen mintegia egin dute asteon Donostian, lehen edizioan herriz herri antolatutako batzordeetako kideek eta ekimenaren sustatzaile izan ziren erakunde, gizarte eragile eta enpresetako ordezkariek; 2020ko udazkenean egingo dute bigarren Euskaraldia

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Euskaraldiaren lehen edizioan Euskal Herri osoko milaka lagunek parte hartu zuten *ahobizi* eta *belarriprest* roletan, hizkuntza ohiturak aldatu eta beraien inguruko harremanetan euskararen erabilera handitzeko helburuarekin. Lehenengo edizioa amaitu eta balorazioa egitearekin batera, bigarren edizio bat egongo zela aurreratu genuen, eta hala izango da", azaldu du Garazi Azkuek, Euskaltzaleen Topaguneko kideak.

Lau orduko mintegia izan da Donostian, EHUko Carlos Santamaria zentroan, egin dutena. "Oinarri guztiak, marko teorikoa, entitateen zeregina, nola antolatuko den barrutik, komunikazio euskarriak zeintzuk izango diren eta abar landu dugu, eta txosten batean jaso", dio Azkuek. Txosten hori batzordeei banatuko diete lehenbailehen.

Entitateek presentzia handiagoa

Ariketa sozialari dagokionez, formatua bera izango da, *ahobizi* eta *belarriprest* rolekin. Oinarria norbanakoak izango dira, baina entitateek ere garrantzia izango dute. "Bereziki norbanakoei zuzendutako ariketa izango dena arren, entitateek presentzia handiagoa hartuko dute, zeregin gehiago izango dituzte egun horietan, eta bertako langileak beste modu batera aktibatu beharko dituzte entitateek, gune ezberdinak sortuz, barruan ere ariketa soziala egin ahal izateko".

Helburuak berdinak izango dira, eta batzuk gehituko zaizkie: "Entitate barruko funtzionamendu berrirako helburu batzuk gehiago izango dira, baina oinarria ez da aldatuko: hizkuntza ohiturak aldatzea".

2020ko udazkenean egingo dute eta 11 egun beharrean, 15 izango dira –ziur asko, azaroaren 20tik abenduaren 4ra–, eta batzorde gehienak uda ostean hasiko dira lanean.

Organikoa eta errefusa jasotzeko ontziei, pedalak

Debagoieneko Mankomunitateak pedalak jarri dizkie errefusa eta hondakin organikoak jasotzeko bailaran dauden edukiontzi guztiei. Izan ere, hondakinak gaika jasotzeko edukiontziak jarri zirenean, teknikoki arazoak ematen zituen sarraila sistema eta pedalak, biak batera erabiltzeak. Duela bederatzi hilabete, baina, biak uztartzen zituen sistema erabiltzen hasi ziren Urola Kosta eskualdean, eta horixe da bailaran ezarri dutena.

RosRoca enpresak egokitu ditu edukiontziak, denera 430 inguru, eta 112.000 euroko kostua izan dute lanek. Herritarrek sistema berria erabiltzeko orduan izan ditzaketen zalantzak direla eta, pegatinak jarri dituzte edukiontzi denetan jarraitu beharreko pausuak zehaztuz.

Kendu egin dituzte lehen edukiontzietan tapak zabalik mantentzeko zeuden gantxo txikiak, eta aurrerantzean jarriko dituzte ontzi guztiei ere pedalak jarriko dizkiete.

Gipuzkoako Enpresa Berriaren saria Kiro Grifols-ek jaso du

ADEGI Gipuzkoako Enpresen Elkarteak aitortu dio saria Garaiako Parke Teknologikoko enpresari, Donostian

E.A. ARRASATE

ADEGI Gipuzkoako Enpresen Elkarteak Kiro Grifols-i aitortu dio Gipuzkoako Enpresa Berriaren saria, Donostiako Tabakaleran egindako ekitaldian. Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta probintziako zenbait enpresatako ordezkarien aurrean jaso du saria Borja Lizarik, enpresaren sortzaile eta zuzendari nagusia denak. Garaiako Parke Teknologikoan dago Kiro Grifols, Mondragon korporazioaren baitan.

Galbahe Saria, Manu Colinori

Azken urteotan jabetza industrial eta intelektualean espezializatua den Galbaian enpresak Galbahe Saria ematen dio bere aburuz irabazle izateko meritu gehien egin dituen asmatzaileari, eta aurten Manu Colino izan da sari hori jaso duena, Garaia Parke Teknologikoan. Ulma Construcionen ikerketa eta garapeneko ingeniaritzako teknikaria da Colino.

"Erronka teknologikoei aurre egiteko Manuren ahalmena apartekoa da. Hala ere, bereziki azpimarragarria da besteen patenteak urratzea saihesteko egiten duen ekarpena, asmakuntza alternatibo hobetuak garatuz, eta baita bere asmakuntzak ahalik eta ondoen babesteko erakusten duen inplikazioa ere. Azpimarragarria da erronka tekniko-legalei aurre egiterako orduan eskaintzeko gai dena. Erronka tekniko-legal horiei berme guztiekin erantzuteko, asmatzaileen eta patente adituen arteko komunikazio erraz eta arina eta konplizitatea nahitaezkoak dira. Eta hori lortzea oso erraza da Manurekin", diote Galbaian-eko ordezkariek.

ULMA S. Coop. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Egunа: 2019ko ekainaren 14a
Ordua: 09:30ean lehen deialdia eta 10:00etan bigarrena
Lekua: MU-Enpresagintzako auditorioma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2018KO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA, ETA, KASUAN KASU, 2019KO GESTIO PLANA ETA KOSTU MANKOMUNATUA DUTEN JARDUERA ETA ZERBITZUEN AURREKONTUABERRESTEA
3. 2018KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA
4. 2018KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEKO PROPOSAMENA
5. POGU III-REN II. IDAZPURUAREN 1.3.3, 1.4.2 ETA 2.2 ATALAK ETA III. IDAZPURUAREN 2.2 ATALA ETA BARNE ARAUDIAREN 42, 43 ETA 82 ARTIKULUAK ALDATZEA ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN HIRUGARREN ETA LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRAK GEHITZEA ONARTZEAREN BERRESPENA, HALA BADAGOKIO, FONDO PROPIOAK SENDOTZEKO
6. ULMA TALDE MAILAN APLIKAZIO OROKORREKO ETA ARAUDI IZAERAKO GAIEI BURUZ KOOPERATIBA BAZKIDEEN OHIKO BATZAR NAGUSIEK HARTUTAKO ERABAKIAK BERRESTEA
   6.1 2018an IPDK tik egindako erabilerari buruzko deskargua
   6.2 2019an IPDK ko zenbatekoak aplikatzeko proposamena
   6.3 Bazkide berrien kapitalaren ekarpenak
   6.4 Kapitalaren ordainketa
7. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA IZENDATZEA
8. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
9. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
10. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
11. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
12. AHALMENAK ESKUORDETZEA
13. GALDE-ESKEAK

OHARRAK Bazkideei jakinarazten zaie Coopo ULMA, S Coop.en (Aquot;Kooperatibaquot;) egoitzan eskuragarri dirudela urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena. Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar arlotete ahal izan ditzatela. Halaber, bazkide guztiei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan dirudela eskuragarri barne arauditan eta POGU III-an proposatzendan aldaketen testu osoa eta aldaketa horien justifikazio txostena, eta hori doan eskuratu edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2019ko maiatzaren 10a

ULMA Inversiones, S. Coop. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Egunа: 2019ko ekainaren 14a
Ordua: 11:30ean lehen deialdia eta 12:00etan bigarrena
Lekua: MU-Enpresagintzako auditorioma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2018KO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA, ETA, KASUAN KASU, 2019KO GESTIO PLANA ETA AURREKONTUA BERRESTEA
3. 2018KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA
4. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
5. KAPITALARI EGINDAKO EKARPENAK ORDAINTZEKO PROPOSAMENA
6. 2018KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEKO PROPOSAMENA
7. HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
8. BAZKIDE BAKOITZAREN GUTXIENEKO EKARPEN EKONOMIKOA
9. MENPEKO FINANTZA EKARPENEN JAULKIPENA
10. ERRENTA FINKOKO BALIOAK JAULKITZEKO PROPOSAMENA
11. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
12. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA IZENDATZEA
13. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
14. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
15. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
16. AHALMENAK ESKUORDETZEA
17. GALDE-ESKEAK

OHARRAK Bazkideei jakinarazten zaie ULMA Inversiones, S Coop.en (Aquot;Kooperatibaquot;) egoitzan eskuragarri dirudela urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena. Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar arlotete ahal izan ditzatela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2019ko maiatzaren 10a

GUTUNAK

Meteoritoa eroriko balitz?

JOSU GARITAONANDIA
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Dinosauroak galantak ziren, baina zerutik eroritako harri koxkor batek desagerrarazi zituen. Zientzialariak zerura begira daude, Lurra planeta inguruan dabiltzan meteoritoak izendatzen eta haien ibilbideak zehazten. Euren esanetan, lan asko dago egiteko, asko baitabiltza bueltaka. *Apofis* da bat; egiptoarren hondamendiaren jainkoaren izena. Kinielak egiten dihardute, ea ze urtetan eroriko den.

Zientzialariek proposatzen digute oraingo teknologiarekin zer egin dezakegun arriskua gutxitzeko, baina gizarte bezala pentsatu beharko genuke, okerrena gertatuta ere, nola antolatu beharko genukeen heriotza kopurua gutxitzeko: globalizazio antolamendutik kontrakora aldatu beharko genuke. Planetaren zatitxo bat hondamenditik salbu geldituko balitz, ahalik eta produktu gehien ekoiztuko gaitasuna eduki beharko litzateke.

Eskerrik asko!

ROSA LASAGABASTER
OÑATIKO UDALEKO KIROL TEKNIKARIA
OÑATI

Emakumeen Bira pasa berri da gure bailaratik, eta Debagoieneko Mankomunitatearen eta, bereziki, Oñatiko Udalaren izenean esker onak eman nahi dizkizuegu zuei, komunikabideei, eta lagundu diguten guztiei:

-Aloña mendi –Keparen txirrindulari taldea–; Pakeleku –Anttonen eta Triniren taldea–; Eskola Kiroleko guraso taldea; Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaion egon direnei –Maiteren, Gorkaren eta Anderren taldeak–; Udana aldean egon direnei –Legazpi, Ormaiztegi...–; segurtasuna bermatu duten guztiei; Udaleko udaltzainei eta kiroldegiko mantentze-lanetako eta harrerako zerbitzuei; antolakuntza taldeari –muntaia, dopin taldea, prentsa taldea, aurkezlea... goizean goizetik bertan egon ziren guztiei irtenbideak bilatzen gutzi-guztia primeran irteteko–; Aloñamendi tabernari, Izarraitz tabernari eta Natrari –jatorduak–. Eta, nola ez, bertako zein bailarako herritarrei, disfrutatu eta pazientzia eduki dutenei, eta nesken tropelari, goi mailako ikuskizuna eskaini diguzuelako.

Eguraldiari ere mila esker.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HANDIK ETA HEMENDIK

Zapidunak

ONINTZA ENBEITA
HTTPS://LABUR.EUS/B0OXL
'BERRIA'-N ARGITARATUA

"Udala zertarako dago, bada?", galdetu zigun, "zapidunei dirua emateko?".

Elkarri begiratu genion ea ondo ulertu ote genuen.

Bai, emakume arabiarrez ari zen.

Ez dakit zenbat diru ematen omen diete gizarte zerbitzuek, pisuak oparitzen ei dizkiete eta bla, bla, bla.

Zein berba gogorra egin zitzaidan "zapidunak".

Ezinbestean gogoratu nintzen aitita Ezekielen arreba hartaz.

Gu jaio orduko lurrari emana zen, baina kontatu ziguten nola Ibarruritik Barakaldora ezkondu omen zen XX. mendearen hasieran.

Baserritik Nerbioiren ibarrera joan, eta industriaren etorrera ezagutu zuen.

Ezkerraldea hazten ikusi zuen, jendez betetzen: arrotza zitzaion hizkuntza batean mintzo zitzaizkion auzokide guztiak.

Baina hantxe egoten omen zen bera iluntzero, baita zahartu ondoren ere: etxeko atariaren aurrean eserita, zapi beltza buruan zuela, auzokoekin gaztelaniaz hitz egin ezinean.

Zapiduna eta euskalduna.

Horrela gogoratzen dute ezagutu zutenek.

Zapidunak eta arabiarrak.

Horrela bereizten ditugu ezagutu nahi ez ditugunak.

Harrigarriena da ispiluari begiratzen diogunean, nola ez ditugun gure begietan jarrita ditugun zapiak ikusten; edo nola ez garen gai zenbait telebista programak eta egunkarik buruan sartzen dizkiguten gezurrak zapian bildu eta errekara botatzeko.

Post gehiago 8. orrialdean.

Amodio-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali ***gutunak@goiena.eus*** helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI

Euskara gabeko ongizatea?

Diskurtso *ofiziala-rekin* alderatuz gero, EKAI Journal-ek idatzitako dokumentuetan hazkunde, garapen eta ongizatea tratatzeko moduak atentzioa deitzen du.

Hasteko, garapena eta hazkundea bereizten ditu. Komunikabideetan behin eta berriro agertzen da hazkunde ekonomikoa ongizate mailaren adierazle bezala, baina ez da hala.

Honen erakusgarri argia da ekonomiaren egoera edo hazkundeak krisi aurreko mailak gainditu dituen arren, lan baldintzek ordukoak baino txarragoak izaten jarraitzen dutela. Benetako garapena izateko, emaitza ekonomiko horiek gizartearen onurarako banatu beharko lirateke, honen eragin positiboa ahalik eta jende gehienaren artean banatuz.

Bestalde, hizkuntza ikuspegia ongizatearekin lotzen du.

HIZKUNTZA NAGUSIEN ARTEKO DINAMIKA ETA HARREMANA BIDERATU BEHARKO LITZATEKE

Lehen eta bigarren hezkuntza euskaraz egindako ikasleen %38 omen ziren 2017-2018 ikasturtean Lanbide Heziketa euskaraz egin zutenak, aurreko ikasturtean baino gutxiago. Honetan zeresan handia omen dute ondoren lana espainieraz egin beharko dutela jakiteak eta LHn dagoen eskaintza murritzak. Konpetentzia profesionalen garapena euskaraz egiteko aukera edukitzea beharrezkoa da garapen jasangarri bat lortzeko.

Orain arte euskara lan munduan txertatzeko emandako pausoak enpresen borondatearen araberakoak izan dira, hauen euskara planek dirulaguntzaren batzuk jaso dituzten arren. EKAI Journal-ek euskararen aldeko kontsentsu zabala aprobetxatuz elkarbizitza orekatu bat lortzeko helburuarekin neurri berriak aztertzea proposatzen du.

Ondorioz, ildo hauek jarraituz ezberdintasuna gutxitu eta elkarbizitza indartzeko eredu baten aldeko aukera eta gaitasuna ikusten du EKAI Journal-ek, batez ere Gipuzkoan. Honen barnean gizarte garapenerako lagungarria litzateke hizkuntza nagusien arteko dinamika eta harremana bideratzea, euskararen eta espainieraren artekoa, bereziki, erdaren aldeko desoreka neutralizatzeko neurriak hartuz.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE

HANDIK ETA HEMENDIK

Gorputzak

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

HTTPS://LABUR.EUS/NMR7Q

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Uda giroko lehen asteburua baliatu asmoz, Hendaiako hondartzan izan ginen larunbatean. Uztail eta abuztuan ez naiz hondartzara sobera joan zalea, jendetzak itotzen bainau. Baina oraindik turista gehiegirik ez-eta, marea gora izanagatik, gustura egon zitekeen ondokoaren oihala zanpatzeko beldurrik eta aldamenekoaren elkarrizketa entzuteko nahigabeko tentaziorik izan gabe.

Eta ohi dugun legez, hor hasi ginen, gure arteko tertulian, zein zuria nagoen nik, ez dela ongi depilatu bertzeak, bainujantzi berria erosi beharko dudala ipurdi erdia ez erakustekotan berriro... [...]

Ez dakit den nerabezaroko tontakeria pasatu zaigula, jada ez baikara ibiltzen –edo ez behintzat nire inguru hurbilenekoak garai batean bezala janari honi edo bertzeari uko egiten–: hondartzatik bueltan ederki eta gustura afaldu genuen batek plater konbinatua, bertzeak ogitartekoa, eta bukatzeko izozkia ere bai. Baina badaezpada beti presente norbere gorputzari buruzko epaia... [...]

Kontua da, izan hondartzan edo gorputzak biluztasunetik hurbil edo erabat larrugorrian dauden lekuetan –izan kiroldegietako dutxetan, edo are hobe Gazte Topagune eta halakoetakoetan, zeinetan mistoak izaten baitira– gure begirada epailea erabat desegin egiten dela errealitatearekin tupust egiten duenean. Erakusten digulako geure buruari inposatu nahi diogun irudia inor gutxik betetzen duela: denok dauzkagula tolesturak, zuri-gorritasunak, arrakalak, eta tamaina-forma guztietako atalak. Inoren gorputza ez dela bereziki bitxia; edo guztiak direla. Eta gorputz guztiak garela, gure berezitasunean, eder.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Kexa publiko egiteak eragin handia daukala ohartu gara"

LEIRE UGARTE MEDIKUNTZAN GRADUATUA

Eneko Azurmendi OÑATI

Ohorezko matrikula lortu ahal izateko epaimahaiko kide guztiak elebidunak izatea lortu dute oñatiarrak eta beste hainbat ikaslek, euren kexa publiko eginda.

Zergatik erabaki zenuten zuen kexa publiko egitea?

Hizkuntzari erreferentzia egiten zion mezua bidali ziguten lana euskaraz aurkeztu behar genuenoi, epaimahaiko kide batzuek euskaraz ulertzen ez zutela esanez, eta gaztelaniaz aurkezteko presioa sentitu genuen. Aurreko urteetan ere arazo bera egon izan da, eta pentsatu genuen zerbait egin behar genuela. Mezua nahiko garbia zenez, publiko egitea erabaki genuen, jendeak balora zezan. Lau ikasle ginen, eta bakoitzak bere Facebook orrian jarri genuen mezua. Jendea partekatzen hasi zen, eta, azkenean, oihartzun handia hartu zuen kontuak. Gero, gainera, komunikabideetan agertu zen.

Leire Ugarte, Oñatin, mediku bata jantzita. E.A.

Espero zenuten horrenbeste oihartzunik?

Ez. Dekanotzatik barkamena eskatu ziguten, baina pentsatzen genuen hor geratuko zela kontua. Hala ere, oihartzuna geroz eta handiagoa zenez, epaimahaia aldatu egin ziguten, azkenean, goitik behera. Epaimahaiko sei kideak berriak jarri zituzten, guztiak elebidunak. Tutoreak esan zidan, gainera, EHUtik mezu bat bidali zietela esanez epaimahaiko kide izateko boluntario bila zebiltzala. Bi egunetan lortu zituzten guztiak. Horrek esan nahi du jendea badagoela, baina ez dutela egokitzen epaimahaia. Gaztelaniazkoei ezetz esateak erreparoa ematen die, nonbait.

Zuen kasua, beraz, ez da salbuespena.

Ez. Mediku asko daude urte luzez epaimahaian egon direnak eta ez dakitenak euskaraz. Hala ere, badaude beste asko euskaraz badakitenak, baina EHUri kosta egiten zaio euskaraz ez dakiten horiei ezetz esan eta kideak aldatzea. Errazagoa egiten zaio ikasleoi hizkuntzaz aldatzea eskatzea. Mediku tutore batek esan zigun erdi haserre zegoela EHUrekin. Epaimahaikide zen, eta inolako azalpenik eman gabe, epaimahaia aldatu behar zutela esan zioten.

Aurrekari bat ezarri duzue.

Hori da. Kexa publiko egiteak eragin handia daukala ohartu gara. Ikusita aurreko urteetan eurekin hitz egiteak ez zuela funtzionatu, bide hau hartzea erabaki dugu. Zoritxarrez, hau da bide eraginkorra EHUrekin. Helburua lortu dugu, eta garrantzitsua da, batez ere datozen urteetan hau errepikatu ez dadin.

ITURRI ONETIK

Trikitixa Eguna, Aramaion 2020an

Joan den zapatuan ospatu zen, Soraluzen, Debagoieneko Trikitixa Eguna. Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Antzuola, Bergara, Elgeta eta Soraluzeko trikitilari gazteak batu ziren bertan. XV. edizioa izan da aurtengoa. Trikitixa Eguna eskualdeko herri baten egiten da urtero, txandaka, eta hurrengoa Aramaion izango da. Bigarren aldiz antolatuko du Aramaioko Trikitikalejira Trikitixa Taldeak. Soraluzekoen eskutik lekukoa jaso ostean, dagoeneko lanean dira 2020an maiatz aldean ospatuko den jaiari begira.

ALBISTE IZAN ZEN

GOIENA

2013-06-02

Uruguaiko presidentea Arrasaten

Jose Mujica Uruguaiko presidentea Debagoienean izan zen, Mondragon korporazioa bisitatzen. Hain justu ere, korporazioak eta Uruguaiko Gobernuak lankidetza hitzarmena sinatu zuten- eta, programak eta esperientziak elkar trukatzeko. Txema Gisasola Mondragoneko buruarekin elkartu zen, Gipuzkoako diputatu nagusi Martin Garitanorekin batera; Inaxio Azkarragaurizar Arrasateko alkatea ere bertan izan zen.

HAU BE BADOGU!

'Trending topic' izan da 'Chernobyl'

Game of Thrones fenomenoaren ostean, HBOk markak hautsi ditu berriro sare sozialetan. Oraingoan, *Chernobyl* telesailarekin:

@Haodriozola: "Chernobyl seriea amaituta. 5 kapitulu zein baino zein hobeagoak. Seriea oso oso gutxitan ikusten den bezala, hasiera, trantsizio eta amaiera bikainak. Inoiz ikusi dudan serierik onena. 10/10".

@Gaizka_Izagirre: "Oraindik *#Chernobyl* ikusten hasi ez bazara, ez dakit zertan ari zaren! *#esanbeharnuen*".

Emakumeen Munduko Kopa martxan dago

Gaur abiatuko da emakumeen futbolaren Munduko Kopa, Frantziak eta Hego Koreak jokatuko duten norgehiagokarekin. Lau euskal jokalari arituko dira bertan. Realeko Mariasun Quiñones eta Nahikari Garcia, Athleticeko Lucia Garcia eta Paris Saint Germaingo Irene Paredes:

@fruittaste: "FIFA-ko Frantziako emakumeen Munduko Kopako leloa, *Momentu batek jokoa aldatu dezake.* Aurrera neskak!

Bastida herria erabiltzaileen ahotan

Arabako Bastida herria eta *#Labastida* traola *trending topic* izan dira aste honetan. Izan ere, PPk Udal Gobernuan batera gobernatzeko eskaintza egin dio, dirudienez, EH Bilduri:

@miantzi: "Bastidako EH Bilduk sare sozialetan argitaratutakoaren arabera, koalizioak kontaktuak izan ditu EAJrekin eta PPrekin. Bihar erabakiko du nori eman babesa, baina Arabako PPk ez ditu ondo hartu kontaktu horiek".

"Etsita", "nekatuta" eta "soluzio integralen" eske

Lapurreten aferan Udalak Fiskaltzaren bidea hartu ostean, ustezko lapurren gurasoek hitza hartu dute. Euren seme-alaben arazoa desoreka neurologikoak eta drogak nahastean hasten dela diote, eta bi faktore horientzako soluzio integralik ez dagoela

Xabi Gorostidi ARRASATE

Lapurreten harira Arrasaten bizi den segurtasunik eza zeresan handia ematen ari da. Jakinak dira gaiari buruz politikariek, udaltzainek eta fiskalek dituzten ikuspuntuak, baina aste honetan, gaiarekin zerikusi zuzena duten beste pertsona batzuek hartu dute hitza: ustezko lapurreta delituak egozten zaizkien gazteen gurasoek, hain zuzen.

Apirilean Arrasaten izandako lapurretetako bat, Erreka jatetxean. XABI GOROSTIDI

Patologien eta drogen nahastea

Komunikabideetara igorritako gutun batean, hala azaldu dute nondik datorren euren seme-alaben arazoa. "Guraso talde bat gara, eta urteak daramatzagu arazo larri bat kudeatzen. Gure seme-alabek askotariko patologiak dituzte, eta ezinezkoa egiten zaigu hauei konponbidea ematea; batez ere, ez dugulako konponbide integralik aurkitzen. Gure semeak, adibidez, arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (TDAH) dauka diagnostikatuta, eta, horren harira, droga kontsumoa eta adikzioa garatu ditu. Kalera irteterakoan drogak kontsumitzen dituzte, berezkoa duten hutsune hori estali nahian, eta, modu horretan, arazoa areagotu egiten dute, kalamua neurotoxiko indartsu bat baita. Arazo bakan bat zen hura konplikatzen hasten da eta gero eta ondorio larriagoak eragiten ditu. Badaude elkarte espezifikoak, arazo mota bakoitzari erantzunak emateko, baina bi arazoei erantzuna emango dien elkarterik ez dago".

Kontrol falta eta delinkuentzia

Desoreka neurologikoak droga adikzioekin nahastean, seme-alabengan kontrola izatea asko zailtzen dela diote, eta baita delinkuentziara sarbidea eragoztea ere. "Gure seme-alabak ez daude ondo; horietako batzuek delituak egiten dituzte, eta horren aurrean badirudi familien kontrolik ez duten gazteak direla. Honako hauek esaten dizkigute euren guraso garenoi: 'Ez diezue mugarik jarri!'. Baina hori ez da egia, gure esku dagoen guztia egiten ahalegindu baikara; maitasunetik eta diziplinatik, betiere. Ez dute arrazoitzeko gaitasunik. Erabat emozionala den mundu batean mugitzen dira, eta argitasunez pentsatzea eragozten dieten blokeoak dituzte. Horien ondorioz, bulkaden bidez mugitzen dira, eta horrek asko zailtzen du gurasook kontrola izatea. Oso zaila da hau azaltzea: delituak egiten dituzte, baina ez dira delitugileak. Delituak egiten dituzte, zertarako eta zergatik jakin gabe; hori dela eta, psikoterapia eta komunitate-lanak dira konponbidea, ez kartzela. Benetan uste duzue barrote artean sartzeak libratu egingo dituela?".

Gutuna sinatu duen gurasoetako batek zera adierazi dio GOIENAri, kartzelak dituen eraginei buruz: "Nire semea kartzelatik pasa da, eta bertan kriminalitatean master bat egin du. Gure esperientziatik argi ikusi dugu kartzela ez dela euren arazoen konponbidea, kriminalitatearen unibertsitatea baizik. Ahoa betetzen zaigu birgizarteratzea bezalako hitzekin, baina kartzelek ez dute horretarako balio; sartzerakoan baino okerrago ateratzen dira bertatik".

"Konponbide integral" eske

Gutuna sinatu duten gurasoek "argi" daukate hau arazo soziosanitarioa dela eta konponbidearen zati handiena prebentzioan dagoela. Elkarte bat eratzeko lanean dabiltza, egoera horretan dauden familientzako konponbide integralak bilatzeko. Ez bakarrik euren seme-alabengatik, baita ere atzetik etor daitezkeen gazteek eta hauen gurasoek nora jo eduki dezaten. "Gure ustez, konponbidea hau da, eta horretarako lanean ari gara: administrazioak, osasun zerbitzu publikoak, gizarte zerbitzuek eta lan mundura sarbidea errazteko lan egiten duten eragileek bat egitea, arazo hau jorratu ahal izateko. Euskal Herrian badago elkarte bat, Abegia izenekoa, askotariko patologiak dituztenekin lan egiten duena, baina hamalau plaza dituzte Euskal Herri osorako. Senideok laguntza behar dugu. Gurasoak, anai-arrebak... nekatuta eta etsita sentitzen gara. Arazoz josita dauden seme-alaba hauen inguruan oinarritzen da gure bizimodua, hurrengo okerkeria zein izango ote den zain beti... Errudun sentitzen gara, errudun izan gabe. Urteak daramatzagu konponbide bila, baina partxeak bakarrik aurkitzen ditugu. Egoerak gaindituta bizi gara, eta ez dakigu zer egin. Gure indarrak agortzen ari dira. Laguntza eraginkorra emango digun erakunderen baten zain bizi gara, amaierarik ez duen egoera honetatik irteteko".

Hainbat ate jo dituzte

Gurasoetako batek aipatu duenez, hainbat ate jo dituzte urte hauetan zehar: "Aspalditik gabiltza Udalarekin eta gizarte zerbitzuekin harremanetan. Baina, adibidez, alkatearekin ez gara 2017ko abendutik elkartu, eta ordutik ez ditu gure deiak erantzuten. Asko kezkatzen gaitu Fiskaltzaren gaiarekin egiten ari den erabilerak ere. Baina ez da jo dugun ate bakarra. Arrasateko apaizarekin egon gara, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko koordinatzaile soziosanitario Jose Antonio de la Ricarekin ere bai; eta baita medikuntza arloko arduragabekeria kasuetarako Pazienteen Defendatzaile Carmen Floresekin ere, besteak beste".

"KARTZELA EZ DA EUREN ARAZOEN KONPONBIDEA; DELINKUENTZIAREN UNIBERTSITATEA DA"

OHARRAK

Elkarretaratzea eta prentsaurrekoa

Pentsiodunek elkarretaratzea egingo dute astelehenean, 12:00etan, Herriko Plazan; prentsa agerraldia ere egingo dute.

Dragoi-jana ekainaren 22an egingo dute

Txartelak AEDn, AEKn, Monten eta Jai-zalen daude salgai.

'Udaixe' programa, 12-17 urteko gazteentzat

Honako sei ekintza hauek antolatu dituzte gazte txokoek uztailerako: Hi Selfie lehiaketa, argazkilaritza eta surf ikastaroak, espeleologia saioa Opakuan, Usakora irteera bizikletan eta inguru abentura Garaion. Uztailaren 16tik 19ra Gaztekonkis abentura egonaldia egingo dute Leixargaraten.

Haur Danborradako banderadunak eta jenerala, aukeratuta

Hauek izango dira bandera eramateko ohorea izango dutenak: Eire Martin –ikurrina–, Izaro Urkitza –Arrasatekoa– eta Alazne Canales –SUDCekoa–. Jeneral lanetan, aldiz, Liyanis Alonso arituko da. Danborradarekin lotuta, kantineren entseguak hilaren 8an eta 15ean egingo dituzte, 11:00etan, Txikitxu-Arrostaitz taldearen lokalean.

Arrasate Herri Eskolaren jai handia gaur arratsaldean

16:30ean, meriendak banatuko dituzte Biterin eta Seber Altuben, eta 16:45ean, harrera egingo diote Buztantxori. Ostean, irakasleek eta ikasleek *Makina bat taupada* abestia abestuko dute oholtza gainean eta kalejira-agurra egingo dute. Askotariko ekintzak eta tailerrak, Txatxilipurdiren *Munduan berbena* ikuskizuna eta zozketa ere egongo dira ostean.

Juan Luis Merino zinegotzi ohia, Maria Servini epailearekin

Udalak Frankismoaren Aurkako Euskal Plataformarekin bat egin ostean, Juan Luis Merino zinegotzi ohia Argentinan egon da asteon, Arrasateko Udaleko ordezkari gisa. Buenos Airesera joan den delegazioaren helburu nagusia, Maria Servini epailearri 1978an eraildako German Rodriguezi buruzko kereila helaraztea izan da.

Maria Ubarretxena jarduneko alkatea eta Amaia Frontaura udaltzainburuordea, asteleheneko prentsa agerraldian. XABI GOROSTIDI

Fiskaltzak informazioa eskatuko dio poliziari

Lapurreten afera dela eta, Ubarretxena alkateak horiei buruzko txostena bidali zion Gipuzkoako Fiskaltzari. Honek erantzun dio auzi aurreko prozedura bat irekiko duela, eta, horren baitan, lapurretei buruzko informazioa eskatuko diola polizia judizialari

Xabi Gorostidi ARRASATE

Udalak jaso du Fiskaltzaren erantzuna, eta Maria Ubarretxena jarduneko alkateak "oso positiboki" baloratu du. "Orain arte, gure esku dagoen guztia egin dugu: epailearekin hitz egin dugu, lapurren familiekin eta abokatuekin ere egon gara... gure abokatuek Fiskaltzaren atea jotzea gomendatu ziguten, eta erantzun oso positiboa izan dugu".

"Esan genuen kokoteraino geundela lapurrak behin eta berriz aske geratzearekin, eta Fiskaltzaren erantzunak esperantza ematen digu lapurrak berriz ere aske geratu ez daitezen. Azken erabakia epaileek dute, eta ez du zertan kartzela zigorra izan; terapia bat, edo desintoxikazio zentro baten sartzea ere erabaki dezake epaileak".

Jasotako erantzunean, Gipuzkoako fiskalburuak dio auzi aurreko prozedura ireki duela, Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoaren 5.3 artikuluaren azken lerroak ahalbideratzen dion eskumena erabiliz. Prozedura horren barruan, fiskalak hiru eginbide agindu ditu: lehena, Arrasateko Udalak Segurtasun sailburu Beltran de Herediari igorritako hiru txostenak gaztelerara itzultzea. Bigarrena, polizia judizialari eskaera egitea Grupo Arrasate –izendapen hori erabiltzen du Arrasateko ustezko lapurrentzat– deituriko horren inguruan bidalitako delitu leporatze eta atxiloketen inguruan informazioa eman dezan: alde batetik, guardiako epaitegian aurkeztutako atestatuen datak eta prozedura zenbakia; eta, beste alde batetik, atestatu bakoitzean ikertutako, auziperatutako, salatutako edo atxilotutako pertsonen identifikazioa.

GIPUZKOAKO FISKALBURUAK DELITUGILEEI BURUZKO DATUAK ESKATUKO DITU

Eta hirugarrena, ebazpenaren berri ematea Udalari.

Aske geratzeko argudioak

Amaia Frontaura udaltzainburuordeak ere parte hartu zuen asteleheneko agerraldian. Ustezko lapurrak "behin eta berriz" aske geratzeko argudio legalei buruz galdetuta, esan zuen lapurretan egiteagatik hiru hilabetetik eta hiru urte arteko kartzela zigorrak jaso daitezkeela, baina Arrasateko lapurrak, epaituak izan direnean, bi urtetik beherako zigorrak jaso dituztela". Epaia ematen denean aurrekari penalak izango balituzkete, kartzelara bidaliko lituzkete, nahiz eta kartzela zigorra bi urtetik beherakoa izan. Baina hainbat atxiloketa gainean izate hutsak ez ditu aurrekari penalak sortzen. Aurrekariak izateko, sententzia irmo bat jaso behar da, eta, alkatearen arabera, lapurreta egin eta "hiru urte" pasa daitezke delitugileen kontrako epai irmo bat heldu arte.

NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ

Everestera begira

Everesten gertatzen denak bost axola lidake, gizarte honen paradigma izango ez balitz. Hunkitu egiten gara hango albisteekin, zaborrez lepo dagoelako edo masifikazioak daudelako tontorrean. Evolek ustelkeria kasu bat ateratzen duenean bezala, euskaldun koherente eta apalok, besteei leporatzen diegu zein ergelak diren.

Baina gurean, etxean bi edo hiru ibilgailu izatea normalizatuta dago, zaborrak tratatzeko errauskailua konponbidetzat eman dugu eta mugikorra kargatzeko kable bat erosteko Gasteiz da lehen aukera. Umeekin ere, zebra-bideak igarotzea arriskutsua den herri honetan, Gabonetako argiekin konponduko ditugu segurtasun eta komunitateko arazoak. Aurki, gainera, Mediterraneoko kanpin itxurako igerileku berriak izango ditugu, Arrasatearrok ur epeletan bainatzea merezi dugulako.

Masifikazioren eta esklusibotasunaren erdian bizi nahi dugu, gasolina eta plastiko artean, bata zein bestea jasanezinak direla jakingo ez bagenu bezala.

Atxilotu bat Arrasaten 200 marihuana landare edukitzeagatik

52 urteko gizonezkoa atseleheneanean atxilotu zuen Ertzaintzak, osasun publikoko delitua egotzita. Atxilotuaren jabetzakoa den eta Arrasateko San Andres auzoan dagoen lokal batean, 200 marihuana landare eta horien hazkunderako beharrezkoa den materiala aurkitu zituzten: lanparak, haizagailuak eta ke-erauzgailuak, hain zuzen ere.

Lokalean ateratako argazkia. ERTZAINTZA

ANABEL DOMINGUEZ

Arrozen festa, uztailaren 13an

Munduko arrozen festaren bigarren edizioak badu data. Ekin-ek, IMMEk, Udalak, Arrasate Helduen Eskolak eta Gurutze Gorriak antolatuko dute, besteak beste, eta Arrasaten dauden kultura ezberdinentzako topagune izateko asmoz egin dute. Izen emateak uztailaren 5a baino lehen egin beharko dira, eta herritar guztiak animatu dituzte ekintzan parte hartzera.

San Clement de Llobegrat-eko abesbatzakoak. BENET PUIG

Goikobalukoei, faborea bueltatzea tokatzen zaie

Astelehenean Katalunian jaieguna dela aprobetxatuz, hiru eguneko bisita egingo dute San Clement de Llobregat-eko abesbatzako lagunek Arrasaten. 2018ko apirilean Goikobalukoek egin zieten bisita, eta asteburu honetan anfitrioi lanak egingo dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Elkartruke guztien esentzia da hartzea eta ematea, edo ematea eta hartzea. Kasu honetan, Goikobaluko lagunei ematea tokatzen zaie, 2018ko apirilean hartzea egokitu zitzaien eta. "San Clement de Llobregat-en neukan lagun bitartez egin genuen lehen kontaktua. Haren alaba herriko abesbatzaren presidentea zela jakin nuenean, elkartruke bat egiteko ideia garatzen hasi ginen, eta 2018an bisitatxoa egin genuen Katalunia aldean", azaldu du Juan Antonio Barriocanal Goikobaluko partaide ezagunak.

Hala, asteburu honetan egingo dute elkartrukearen bigarren zatia, astelehena Katalunian jaieguna dela baliatuz hiru eguneko bisita egingo baitute San Clement de Llobregat-eko abesbatzakoek Arrasaten. Honela azaldu du Barriocanalek zernolako hiru egun dituzten aurretik: "Zapatu goiz partean helduko dira autobusez, eta heldu bezain pronto bazkaria enkargatu diegu batzokian. Tripa bete eta merezitako deskantsua hartu ostean, kontzertua egingo dugu bi taldeek San Juan Bataiatzailea parrokian, eta, behin hau eginda, afaria egingo dugu Sara Merenderuen. Domeka turismoa egiteko baliatuko dute, eta, nik dakidala, Gernika ingurura joateko asmoa dute".

Kontzertua, zapatuan

Elkartrukearen gailurra zapatuko kontzertua izango da, ezbairik gabe. Bertan, Goikobalukoak izango dira oholtzara igotzen lehenak, eta lau kanta hauek interpretatuko dituzte: *Oi, ama, Euskal Herria*, *Loreak udan*, *El roble y el ombú* eta *Mutil txaleko gorri*. Ostean, lagun katalanen txanda izango da, eta hiru zatitan banatutako emanaldia egingo dute: lehenean, abesti afrikarrak; bigarrenean, pelikuletako abestiak; eta hirugarrenenean, konpositore katalanen obrak. Amaieran, *Il meu avi* kanta abestuko dute bi abesbatzek batera, eta Maria Ubarretxena jarduneko alkateak Arrasateko oroigarriak banatuko dizkie bisitari katalanei.

BI ABESBATZETAKO PARTAIDEEK KONTZERTUA EGINGO DUTE ZAPATUAN SAN JUAN PARROKIAN

30. eta 25. urteurrenak

2019a urte berezia izango da Goikobalurentzat. Batetik, abesbatzak 30 urte beteko ditu, eta, hori ospatzeko, urriaren 19an, Mozarten *Requiema* interpretatuko dute, orkestra baten laguntzarekin. Bestalde, Goikobalu Txikik mende laurdena beteko du, eta azarorako kontzertu berezi bat prestatuko dute. Aipatu behar da hamar urte baino gehiagoren ostean, Juan Antonio abesbatzako Barriocanalek presidente kargua utzi duela, eta Maider Ruizek ordezkatuko du.

Audry Funk, Rebeca Lane eta Nakury rap abeslariak. SOMOS GUERRERAS

Latinoamerikako hip-hop eta rap doinuak bihar gaztetxean

'Somos guerreras' izena du Nakury, Rebeca Lane eta Audry Funk abeslariek elkarrekin egiten ari diren birak

X.G. ARRASATE

Mexikotik –Audry Funk–, Guatemalatik –Rebeca Lane– eta Costa Ricatik –Nakury– datozen eskarmentu handiko hiru rap abeslarik geldialdia egingo dute zapatuan Arrasateko gaztetxean. Horietako batentzat, Rebeca Lanentzat, ez da Arrasateko agertokira igoko den lehen aldia izango, 2017an Kooltur Osegunak dinamikak gonbidatuta etorri baitzen.

Somos guerreras dinamikak 2016an du jatorria, urte hartan indarrak batu zituzten-eta hiru abeslariek, hip-hop mundutik emakumeek dituzten arazoen inguruko hausnarketa ariketa bat egiteko. Hamar kontzertu egin zituzten elkarrekin Panaman eta Ciudad Juarezen, besteak beste. 2018ko azaroan, berriz batu ziren nazioarteko bira bati egiteko. Mexikon zortzi zuzeneko egin ostean, AEBetara egin zuten salto, eta orain, Europan barrena ari dira.

Sarrerak, 5 eurotan

Hip-hop zaleentzako kontzertu interesgarri hau 22:00etan hasiko da eta sarrerek bost euroko prezioa izango dute.

Arrasate Musikaleko Udaberri Zikloaren barruan, 21 kontzertu

Urtean zehar ikasitakoak taularatzeko eta partekatzeko kontzertuz jositako hilabetea dute aurretik musikariek

X.G. ARRASATE

Urtero legez, ekaina kontzertuz eta emanaldiz josita dator Arrasate Musikaleko kideentzat. Udaberri Zikloa izeneko kontzertu sorta prest dute jada, eta 21 emanaldi egingo dituzte ekainaren 1etik 28ra bitartean.

Bihar, zapatua, adibidez, Harreman GKEren festa solidariora batuko dira, eta kontzertua egingo dute, 13:00etan, Seber Altube plazan. Domekan, ordea, Arrasateko mugak gainditu, eta Oñatin egingo dute erakustaldia orkestrako kideek. Aste bitartean emanaldiek ez dute etenik izango, eta egunero egingo dute kontzerturen bat. Astelehenean, adibidez, biolin eta biola ikasleek kontzertua egingo dute Kulturaten, 18:30ean. Martitzenean, tronboi, tuba eta bonbardino ikasleek hartuko diete lekukoa, 18:00ean, Kulturaten. Asteazkenean, piano taldekoen txanda izango da –18:00etan, Musika Eskolan–; ostegunean klarinete taldekoena –18:30ean Kulturaten–; eta egubakoitzean, aldiz, hezkuntza berezikoena –18:00etan, Musika Eskolan–.

21. aldia, baina beti bezain garrantzitsua

Harreman GKEk Elkartasun Eguna egingo du bihar, zapatua. Herrialde txiroetako arazoak ezagutarazteko eta horiei aurre egiteko helburua izango du, beste behin, eta zozketak, kontzertuek eta haurrentzako jolasak izango dira

Mumbaiko Ankur umezurztegiko neskak. HARREMAN GKE

Xabi Gorostidi ARRASATE

Seber Altube plaza elkartasunaren eta solidaritatearen erdigune bilakatuko da zapatuan, Harreman, Serso eta AMS GKEen Elkartasun Egunaren epizentro izango baita. Amnesty International, Mugarik Gabeko Medikuak, Mundukide, Etorkinen Pastoraltza eta Harreman Denda eragileek postuak jarriko dituzte, esku artean dituzten proiektu solidarioen berri emateko. Baina informazioa hedatzeko postuez gain, zozketek, kontzertuek eta jolasek osatuko dute jaieguneko egitaraua.

Askotariko ekintzak

11:00etan, haurrentzako puzgarriak erabilgarri egongo dira, eta, handik ordu erdira, trikitilariek Seber Altubeko bazterrak alaituko dituzte. 13:00etan, Arrasate Musikaleko ikasleek hartuko diete lekukoa eta urtean zehar ikasitakoak erakutsiko dituzte aipatutako plazan. Arratsaldean, 16:30ean, puzgarriak martxan jarriko dituzte, eta 17:30ean, *Mugi Boogie* ikuskizunaren txanda izango da. 19:00etan, txokolate-jana egingo dute, beti bezala, Harreman dendako produktuak erabiliz, eta, behin tripa beteta, What A Band taldearen zuzenekoa hasiko da, 19:30ean.

Laguntzeak saria izango du

Aurten ere, Ibai-arteren laguntzarekin osatutako tonbola egingo dute, eta antolatzaileek bereziki eskertu dute merkatarien ekarpena. Bertatik batutako dirua Mumbaiko Ankur umezurztegira bideratuko dute (India), non kale gorria bizi ziren 200 neskari aterpe ematen dieten. 20:30ean egingo dute zozketa eta bertako sari nagusia Eroski Bidaiek-en eskutik datorren *ihesaldia* izango da. "Herritar guztiak daude festara gonbidatuta, beste mundu bat posible dela ikusteko", adierazi dute antolatzaileek.

GORA ETA BEHERA

GOIENA

Ikusmen eskasa biribilgunera sartzeko

Irakurle baten arabera, Zarugaldetik Muzibarreko biribilgunera sartzeko ikusmena eskasa da; nagusiki, edukiontziek ikusmena mugatzen dutelako, baina baita gaizki aparkatutako autoengatik.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

'Dragoiek' irabazi dituzte Arrasate Kirol Sariak

Espainiako Aerobik Txapelketan egindako lanagatik, Arrasateko gimnastek jaso zuten atzo ekitaldiko sari nagusia. Kirol ibilbidearen gaineko saria ere talde berera joan zen: herrian gimnasia erritmikoa sustatu duen Arantzazu Zubiak irabazi zuen

X.U. ARRASATE

Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko ordezkariendako arratsalde borobila izan zen atzokoa, Udalak antolatutako Kirol Sarien ekitaldian erabateko protagonista izan zirelako.

Batetik, kirolari edo kirol talde onenaren atalean, aerobikean jarduten duten neskek irabazi zuten, azken urteotan Espainiako Txapelketan lan azpimarragarria egiten dabiltzalako. Eta aurtengoa ez da gutxiagorako izan: duela aste gutxi, Sorian egindako hitzorduan, Uxue Azkuek urrezko domina lortu zuen banakako modalitatean –N2 kategoria–; Izaskun Garciak eta Nahia Irazolak brontzezko domina lortu zuten bikoteko modalitatean –N3 kategorian–; eta Sara Yan Azkaratek, Nora Marcok eta Maider Agirreurretak hiruko modalitateko bosgarren postua lortu zuten –N2 kategorian–.

Izan ere, saria ez da nolanahikoa, finalisten artean beste izen hauek zeuden eta: Aitor Fernandez, Levanteko atezaina; Istar Dapena, Jonathan Perez, Malen Ruiz de Azua eta Maialen Axpe, atletak; Irene Murua, saskibaloi jokalaria; eta aurten maila gorenera igo diren Arrasate-Arlutz Xake taldeko ordezkariak.

Arrasateko taldeko ordezkariak, Sorian eginiko txapelketan. ARRASATE DRAGOI

Kirol ibilbidea, Zubiarendako

Ekitaldia, baina, kirol ibilbidearen sariarekin hasi zuten, eta hor, Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko entrenatzaile Arantzazu Zubia izan zen aukeratua.

Saria jasotzeko beste hautagaiak ziren Arrasateko eskubaloiari ekarpen galanta egin zion Mariano Arrieta –hilondoko titulu berezi moduan–, Besaide Mendi Elkarteko zuzendaritzan urte mordoa egin ostean erretiroa hartu duen Karmelo Bergaretxe, 75 urte betetzen dituen Arrasate Atletiko taldea, Ointxe! saskibaloi taldeko presidente izandako Jon Basurko eta beterano mailan sekulako curriculuma duen Maria Jose Gil atleta.

Aipatu moduan, baina, 1980an Euskadiko gimnasia erritmikoko txapeldun izan zen Arantzazu Zubiarendako izan zen saria. Zubia 18 urterekin hasi zen entrenatzaile lanetan, Arrasateko orduko taldean –Gimka Gazela zuen izena–. Sasoi hartan, hamar gimnastarekin hasi zen, eta gaur egun, 140 gimnasta dituzte klubean.

Kirola Kalera Eguna, herriko taldeen jardunaren erakusleiho

Bihar, zapatua, goizean, zazpi gunetan batuko dituzte kirol jarduera guztiak, eta herritarren bistara jarri

X.U. ARRASATE

Herriko kirol talde guztiek urtean zehar egiten duten lanaren erakusleiho izan gura du biharko egunak; kluben jarduerak kantxetatik edo berdeguneetatik atera eta herriko kaleetara eroango dituzte.

Gaztetxoak xakean Portaloian. GOIENA

Zazpi gune, guztira

Iturriotzeko Elizako paretan (11:00-13:00) pilotan jardungo dute, Herriko Plazan errugbilariak ibiliko dira lehenengo (11:00-12:00) eta atletismokoak gero (12:00-13:00). Biterin herriko hainbat borroka artetako ordezkariak izango dira, 10:30ean hasita. Eta Dorleta Txirrindularitza Eskolakoek ginkana jarriko dute (10:30).

Jose Maria Arizmendiarrieta plazan egongo da boleibola (11:00), hiruko saskibaloia (12:00), futbola (10:30), eskubaloia (11:30) eta areto futbola (12:30). Arano eta Garcia Maisu-Maistra kalean herritarrek xakean jokatu ahal izango dute, eta Portaloian beroketak zelan egin erakutsiko dute. Azkenik, BAZ inguruan DYAko lagunek lehen sorospenak irakatsiko dituzte (11:00).

Bidasoarekin podiumera

Arrasate Kanpanzar taldeko Mikel Agirrek (6,51 luzera saltoan), Alain Egiak (salto hirukoitzean 14,05) eta Aitor Urangak (100 metrokoan 11.23) Bidasoa taldea ordezkatu dute asteburuan Anoetan. Bidasoa bigarren postuan sailkatu zen ligako jardunaldian, eta, besteak beste, arrasatearrek lortutako puntuei esker igo ziren podiumeko bigarren postura.



ARRASATE KANPANZAR

arbolapeta
arrasate
beinke

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa
Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Laguntza eskolarrak
Arreta goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak
Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 140/18

Jili Jili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Beatriz Aldai eta Ane Bereziartua, Argentinara prestatutako bidaiaren kartelarekin, Arrasateko bidaia-agentzian.

"Arrasate Bidaiak-ekin, Argentina eta bertako euskal jaia ezagutzeko aukera paregabea"

BEATRIZ ALDAI ETA ANE BEREZIARTUA ARRASATE BIDAIAK

Bask In Motion enpresarekin elkarlanean, urriaren 24tik azaroaren 15era bitarteko Argentinara bidaia prestatu dute, Debagoienetik irtenda. Hango hainbat hiri ezagutzeaz batera, Bahia Blancan izango den Euskal Jaian hartuko dute parte

Irteera urriaren 24an izango da, eta azaroaren 15era arte iraungo du bidaiak. Argentinako toki garrantzitsuenak bisitatuko dituzte, eta, bukaeran, Bahia Blanca hirian izango den Euskal Jaiaren ospakizunean parte hartuko dute –azaroaren 4tik 10era bitartean izango da hori–. Hain zuzen, 23 eguneko bidaia antolatu dute.

Ze garrantzi du Euskal Asteak Argentinan?

Ikaragarria. Euskal izaera oso baloratua dago Argentinan, eta euskaldunak errespetu handiz hartzen dituzte. Oso baloratuak daude Argentinan, isilean, buila askorik atera gabe lan asko egin dutelako lurraldean. Argentinako biztanleriaren %10ek euskal jatorria du, gainera. Euskal Herrian baino euskal jatorriko pertsona gehiago dago han –3 milioi inguru–, eta hori Euskal Jaian nabarmen gelditzen da. Euskal jatorria duten horiek guztiak elkartzeko egiten den jaia izaten da, oihartzun handikoa. Urtearen eta tokiaren arabera, bi mila pertsona elkartu daitezke. Azkenean, herri eta hiri ezberdinetan euskal folklorearekin egiten duten lana erakusteko balio du. Adin guztietako jendea batzen da, haur, nagusi edo gazte, eta denak jai giroan eta beraien dantzak erakusten pasatzen dituzte egun hauek. Baina ez dira dantzak bakarrik izaten: danborradak, erromeriak, kontzertuak, mintzodromoak, euskal kultura eta euskara, hizkuntza, oso presente izaten dira. Eta Euskal Astea ospatzen den Argentinako txoko hori 10.000 kilometrotara egon arren, oso euskal kutsuko festa erraldoi bilakatzen da. Argentinakoak, Uruguaikoak, Brasilgoak eta baita Euskal Herrikoak batzen diren jai erraldoi bat da. Hala ere, zer den azaltzeko onena hara joatea da. Han egonda bakarrik ulertu eta azaldu daiteke.

Zeintzuk dira bisitatuko dituzuen lekuak?

Azaroa urtaro egokia da Argentina bisitatzeko, han udaberria baita. Iguazuko ur-jauziak bisitatuko ditugu, eta handik, San Ignacio Mini ezagutuko dugu, hango euskal etxearen eskutik, baita guaranien artisautza ere. Horretaz gain, Salta, Calafate, Ushuaia eta Puerto Madryn hiriak ere bisitatuko ditugu. Horiek ikusi ostean, Bahia Blancan bukatuko dugu, aipatutako euskal jaia bizi izateko.

Euskal Jaiaz gain, natura eta paisaia ikusgarriak daude Argentinan; glaziarrak ikusiko ditugu, baleak, ur-jauziak... Buenos Aires oso hiri bizia da eta jarduera ezberdinak egiteko aukera dago.

Zer egin behar da izena emateko?

Gipuzkoa mailan bilera informatibo batzuk egingo ditugu eta jendea bilera hauetara etortzera gonbidatzen dugu. Etorri ezin denarentzat ere hainbat aukera baditugu: Arrasate Bidaiak-etik pasatu daiteke –Kontzezino kalea 12–, 943 71 25 30 telefonora deitu edo *baskinmotion.com* era idatzi dezake.

"EUSKAL KUTSU HANDIA DUEN FESTA EGITEN DA"

"ARGENTINA EZAGUTZEKO 23 EGUNEKO BIDAIA DA"

Desorden taldeko kideetako bi, Aramaioko kontzertuan. DESORDEN

Gogoeta iragarri dute Gazte Asanbladakoek

Eguzkierripa Rock jaialdian parte hartu zuten Desorden bizkaitarrek publikoko gizonezko batek taldeko kide emakumezkoekiko izandako jarrera salatu eta gero, jai ereduaren lanketa "ikuspegi feministatik" egin beharra nabarmendu du antolakuntzak

Julen Iriondo ARAMAIO

Kideetako bi emakumeak dituen Desorden taldeak Facebookeko bere orrian jarritako mezuak hala zioen: "Ederki pasa genuen, *baboso* batek muga zeharkatu zuen arte". Baina hori bakarrik ez; ingurukoen jarrera ere salatu dute taldekoek: "Okerrena da ze normaltasunekin tratatzen zuen jendeak. Pena da gauzak ez aldatzea...".

Gertatutakoa ezagututa, horrela azaldu du Gazte Asanbladak, "eraso sexista" publikoki salatzeko ateratako oharrean: "Taldea agertokian zegoela, gizon bat jarrera *babosoarekin* lehen lerrotik abeslaria eta baxu jolea inkomodatzen ibili zen. Abeslariak mikrofono bidez ohartarazi zion inkomodatzen zebilela, bere espazioa inbadituz eta askatasuna urratuz. Honek nazka ematen jarraitu zuen, publikoan zegoen beste emakume bat erasotzailearengana hurbildu eta lepotik hartuta bertatik joateko esan zion arte".

Gazte Asanbladakoek ere nabarmendu dute, emakume hark salbu, publikoan zegoen jendeak ezer egin ez izana, eta barkamena eskatu diote taldeari eurek ere "momentuan behar zuten babesa eta laguntza ez eskaintzeagatik" eta "erasotzailea jaigunetik ez botatzeagatik"; antolakuntza taldea gertatu zenaz momentuan ez zela ohartu azaldu dute.

Honekin batera, aurrera begira, "taldeko barne hausnarketa bat" egiteko eta "beharrezkoak diren neurriak" hartzeko konpromisoa erakutsi dute jaialdiaren antolatzaileek: "Ez dugulako inolako eraso matxistarik onartuko antolatuko ditugun jaialdi eta ekitaldietan".

"BABOSO' BATEK MUGA ZEHARKATU ZUELA SALATU DUTE DESORDEN TALDE BIZKAITARREKOEK

Eta ondoko gogoetarekin jarraitzen du Gazte Asanbladakoen oharrak: "Uste dugu joan den larunbatean gertatutakoa ez dela kasu isolatu bat, bizi garen jendarte heteropatriarkalean emakumeok pairatzen dugun biolentzia sistemikoaren beste adibide bat baizik. Jaiak, kasu, errealitatetik ihes egiteko saldu dizkiguten arren, egun, begirada lizunak, ukituak, piropoak eta beste hainbat zapalkuntza mekanismo jasan behar ditugu. Nazkatuta gaude! Lehen lerroan egon nahi dugu, mikrofonoa eskuan hartu, dantzatu, abestu eta gure gorputz askeez gozatu!".

Amaitzeko, "jai ereduaren inguruko lanketa ikuspegi feminista batetik" egitearen beharra azpimarratu dute: "Erabili ditzagun jaiak eredu askatzaileak praktikara eramateko eta nahi ditugun herri eta harreman ereduak eraikitzeko. Norberak erabakiz, guztiok gozatuz, sortu ditzagun jaiak guztiontzako espazio seguru eta gozamen iturri!".

Gasteizen kontrako kanporaketaren neurketetako bat. IMANOL SORIANO

Aramaioko pilotariak finalerako txartelaren bila, Herriartekoan

Pronostikoak apurtu eta Gasteiz kanporatu zuten aurreko asteburuan, eta Guardia dute kontrario orain

J.I. ARAMAIO

Ligaxka laugarren eta azken postuan amaitu eta gero, beste multzoko lehenaren kontra jokatzea egokitu zitzaion Aramaiori. Pronostikoak hautsi eta 2-1 irabazi zioten, ordea, Gasteizi: "Gazte mailakoarekin nahikoa ziur geunden, euren pilotari onena ez zelako etorri, besteak beste; ondo jokatu eta kadete mailakoa irabaztea izan da aurrera egiteko gakoa", zioen Jon Herrarte entrenatzaileak; 22-16 irabazi zuten aramaioarrek –22-5, gazte mailan; eta 8-22 galdu zuten nagusietan–.

Ondorioz, gaur, barikua, 18:30ean hasita eta etxeko pilotalekuan, Guardiaren kontra izango dute finalerdia aramaioarrek. Arabako Errioxako pilotariak beste herri indartsu bat, Amurrio, kanporatzetik datoz. Hala ere, eta Julen Olaizolak jokatu ezina ere kontra izango duten arren, badute finalerako sailkatzeko itxaropena: "Kadeteetan irabazteko aukera badugula uste dut; gazte mailakoa ikusiko dugu nola doan; baina nagusietan ere badugu irabazteko esperantza, eurek ere baja garrantzitsua dute eta".

NIRE USTEZ

PERU ABARRATEGI

Zer izan nahi duzu handitan?

Haurrak garenean, askotan galdetzen digute zer izan nahi dugun handitan. Nik ez dakit, suposatzen dut beste ume askok moduan futbolaria edo pilotaria erantzungo nuela, baina denborak jarri nau bere lekuan. Baloiari ostikoak emateko ez dut behar besteko abileziarik eta ezker gantxoarekin ere asko daude ni baino abilagoak. Beraz, txikitan baliagarri izan zitezkeen bi topiko horiek dagoeneko ez dute balio handirik.

Gaur egun, ez dut askotan entzun nahi izaten galdera hori: Zer izan nahi duzu handitan? Kontua da dagoeneko nagusiak garela eta batzuk ikasketak amaitzear edo amaituta gaudela jadanik. Nik ez dut batere argi zertan egingo dudan lan urte gutxi barru; egia esan, ez dut batere argi zertan lan egin nahiko nukeen ere. Badirudi, derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatzerakoan ikasleok aspertuta gaudela jadanik ikasle izateaz; ni ere horietako bat nintzen. Orain, unibertsitate ikasketak bukatzear nagoela, nagusitan ere ikasle izan nahi dudala erantzungo nuke, ez dut eta ikasle bizitza baino hoberik imajinatzen.

24 millas film dokumentaleko irudi bat. GOIENA

'24 millas' filma, Izaskun Arriaranen azalpenekin

Ikusiz Gozatu ekimenaren eskutik, Mediterraneoko errefuxiatuen erreskateak gaitzat dituen dokumentala ikusteko aukera izango da bihar, zapatua, kultura etxean; boluntario jarduten duen aramaioarrak, bestetik, euren lana eta egoera azalduko ditu

J.I. ARAMAIO

Izaskun Arriaran aramaioarra kide duen Itsas Laguntza Humanitarioa elkarteko boluntarioek, beste batzuekin batera, *Maydayterraneo* proiektuaren barruan 2017an egindako lehen erreskate misioan gertatutakoa erakusten du pelikulak –21:00etan hasiko da saioa–.

"Misio horretan ikusiko dira bi erreskate, nahikoa gogorrak, gainera. Gauzak kontu handiarekin egin behar dira, ze arriskua da jende dena itsasora jausi eta itotzea. Prozesu nahikoa luzea da; kanpotik ikusita, ematen du gogoa... hartu 200 pertsonak eta hustu, eta zure itsasontzira eraman, baina oso prozesu zaila da. Eta, honekin batera, ikusiko da Libiako soldaduekin izandako arazo txiki bat; tiroketa bat ere egon zen, beraiek eskatzen zutelako erreskatatutako jendea beraiek eramatea bueltan Libiara", dio Arriaranek pelikularen edukiaren gainean galdetuta.

Erreskatera ezin irtenda

Gaur egun, egoerak latza izaten jarraitzen du Mediterraneoan: "Bi asteotan albiste beldurgarriak entzun ditugu: 200dik gora pertsona itota hil dira; beste bi itsasontzi Libiakoek eraman dituzte bueltan bertara; beste itsasontzi bat ikusi zuten egun baten jendez beteta, eta handik bi egunera hutsik ikusi zuten, eta ez dakigu jende hori non dagoen. Egunero ari gara gauza hauek ikusten".

Bien bitartean, erreskaterako prest dauden taldeak ezin uretaratu: "Gure egoera duela hilabete batzuetakoa modukoa da: ez dugu erreskaterako baimenik. Une honetan, Lesbosen gaude; bertara joan ginen, erreskate

FILMAK JASOTZEN DU BI ONTZIREN ERRESKATEA, ETA LIBIAKO SOLDADUEKIN IZANDAKO LISKARRA

lekutik gertuago egoteko, baina baimen barik jarraitzen dugu; errekurtsoa aurkeztu genuen, eta erantzunaren zain gaude: itsasontzia prest, jendea prest, baina baimenik ez dugu erreskaterako".

Laguntza eman nahiko luketen itsasontzi guztiak daude egoera berean, Izaskun Arriaranen hitzetan Europak ez dituelako errefuxiatuak bere lurretan nahi, eta ez duelako gura drama horren berri zabal dadin ere: "Denek esaten dute arazoa konpondu beharko litzatekeela jatorrizko herrialdeetan, eta hori oso argi dugu denok, baina hori gertatzen ez den bitartean, jendea egunero ari da hiltzen".

Izaskun Arriaran bera zapatuko emanaldian izango da, gaiari buruzko azalpenak emateko: "Eskola mailan ere zerbait egin dugu; eta hau aukera ona da herriak ikusteko Euskal Herri mailan oraindik asko hedatu ez den dokumental hau. Poztekoa da".

Aitor Ugarte, lasterketan. GOIENA

Espainiako Kopako bigarrena ere irabazi egin du Aitor Ugartek

Roquetes-en, Tarragonan, jokatu zen kilometro bertikalen egutegiko bigarren lasterketa, eta, Arredondokoan bezala, Aitor Ugarte aramaioarra izan zen nagusi kadeteetan; ia bost minutu atera zizkion bigarrenari. 4.300 metroko ibilbidea eta 850 metroko desnibela zituen probak. Hasi eta lasterrera erasoa jo eta bakarrik egin zuen lasterketa Ugartek.

Hainbat ekintza egingo ditu eskolak ikasturte amaieran

Jaia egingo dute bihar, zapatua, 11:00etan hasita: buruhandiak, tailerrak, bazkaria, bingoa eta herri kirolak izango dituzte. Martitzenean, berriz, antzerkia egingo dute 5. eta 6. mailetako ikasleek kultura etxean. Hurrengo barikuan, azkenik, eskolako ikasle eta irakasleek eta Alaiak abesbatzak emanaldia egingo dute plazan, 11:30ean.

Miren Amuritzarekin atzeratutako tertulia, datorren eguenean

Julian Unzuetaren hileta zelaeta, Txirritolak atzeratu egin zuen Amuritzarekin aurreko eguenean egitekoa zen tertulia; hilaren 13an egingo dute, 18:30ean, parkean. Bizkaitarraren lehen eleberria, *Basa*, izango da saioaren ardatza, irakurzaletasuna bultzatzeko kanpainaren barruan. Manex Agirrek egingo ditu moderatzaile lanak.

Ur parkea, iazko inaugurazioan. GOIENA

Bihartik aurrera eta uda osoan erabilgarri egongo da ur parkea

Iazko udazkenerako lanak amaitu eta egun apur batzuetan probatzeko aukera izan eta gero, lehenengo uda sasoia izango du oraingoa ur parkeak. Jaiegunetan 11:00ak eta 19:00ak artean egongo da erabilgarri eta lanegunetan, berriz, 16:15etik 19:00etara. Abuztuko oporrak pasatuta, eguraldiak esango du noiz arte izango den martxan ur txorroten parkea.

Erdi Arora bidaia, Amillenaren bisita gidatuaren bidez

Aramaio Ezagutu ekimenaren barruan, Erdi Aroko jauntxoei eta kontuei buruzko ibilaldia egingo du Amillenak hurrengo domekan, hilak 16. 10:30ean da hitzordua, Santa Ana ermitan, eta Azkoagatik eta Barajuendik egingo dute osteratxoa, bi orduz. Helduentzako irteera da. Izena emateko: 945-44 50 16 edo *aramaio.amillena@gmail.com*.

Miren Amuritza. GOIENA

Aretxabaletako Auzoko taldeko kideak, ospakizunaren jaieguneko kartela eskuetan dutela. AITOR AGIRIANO

Auzoko egitasmoaren VI. jaia ospatuko da domekan

Aniztasunak, euskarak eta herritarrek bat egingo dute ikasturte amaierako festa egunean. Dultzaina doinuak, auzoko dinamikak, munduko leku askotariko janarien dastaketa eta plaza dantzen saioa izango dira gozagai, besteak beste

Aitor Agiriano ARETXABALETA

Urte osoan zehar egindako lanaren erakusleiho izango da, beste behin, Auzoko jaia.

Aretxabaletan izango da seigarrena, eta, herritar guztiekin batera, gaur egun egitasmoa martxan duten herrietako taldeak gerturatuko dira festa eguna ospatzera: Eskoriatza, Soraluze, Arrasate, Bergara, Donostia, Ibarra, Oñati eta Gasteiztik, hain zuzen.

Euskaratik urrun bizi diren pertsonak euskarara gerturatzeko helburua dute eta astero biltzen dira taldeak, euskaraz hitz egiten aritu eta hainbat dinamika eginda ongi pasatzeko asmoz. Hala, aniztasuna oinarri hartuta, euskaraz ez dakitenek euskarara gerturatzeko aukera izaten dute Auzoko taldeetan.

Hori horrela, etzi egingo duten ikasturte amaierako jaiarekin, herriz herri egiten diharduten lana ezagutzera emateaz gain, euskara erdigunean jarri eta munduko jatorri askotariko kultura ohiturak gertutik ezagutzeko aukera eskainiko du ospakizunak.

Herritar guztiak jaira gonbidatuta

PALOMA MARTINEZ AUZOKO TALDEAREN DINAMIZATZAILEA

"Ilusioz eta gogotsu gaude azken jairako. Sorpresa asko prestatu ditugu: adibidez, Aretxabaletako Basotxo erretiratuen elkarteko kideek bat egin dute gurekin eta kantu eta dantza batzuk prestatu dituzte. Euskararen inguruan elkar ezagutzeko aukera paregabea izango da".

AMINATA ETA MALIKA AUZOKO TALDEKO KIDEAK

"Datorren ekainaren 9an, domeka, zatozte denok Aretxabaletara. Guztiok elkarrekin VI. Auzoko jaia ospatu dezagun. Kultura ezberdinen arteko elkartrukea egingo dugu, betiere, euskara ardatz hartuta. Ez hutsik egin! Guztiok zaudete-eta gonbidatuta".

Guztientzako moduko egitaraua

Dultzaineroek egindako dianarekin hasiko dute eguna, goizeko hamar eta erdietan, eta kanpotik datozenei ongietorria egingo diete, Azbe-ko autobus geltokira iritsitakoan.

Jarraian, kalejiran egingo dute Durana kalean barrena Herriko Plazarainoko bidea, bertan gauzatuko dituzte-eta prestatuko ekintza guztiak: 11:30ean hasita, Auzoko saioetan burutzen diren dinamikak ezagutu eta horietan parte hartzeko aukera izango dute bertaratutakoek. Bestetik, ordu beretik 12:30era bitartean, haurrek ere izango dute non gozatu, propio beraientzako prestatutako txokoan: munduko jolas eta eskulan tailerretan aritzeko aukera izango dute haiek.

Horrez gainera, hamabi eta erdietan hasita, jatorri askotariko janaria probatzeko aukera ere egongo da. Izan ere, Aretxabaletako taldekideek prestatutako janariez gain, gainontzeko herrietatik datozenek ere kozinatutakoa dastatu eta ohiko ez diren jakiak probatu eta ezagutzeko aukera eskainiko dute.

Azkenik, plaza dantzen saio batekin emango diote amaiera koloretsua izango den festa egunari.

JATORRI EZBERDINETAKO HIZKUNTZA ETA KULTURAK EZAGUTZEKO AUKERA

Andramaixak iragarriko dituen irudia aukeratzeko, lehiaketa

Uztailaren 5era arte aurkeztu ahal izango dira kartel proposamenak eta irabazleak 300 euro jasoko ditu

Aitor Agiriano ARETXABALETA

Andramaixak iragarriko dituen kartela hautatzeko lehiaketa antolatu du Kultura Sailak.

Animatzen den orok izango du parte hartzeko aukera. Erabili beharreko teknika librea izango da, eta DIN A3 tamainan eta formatu digitalean gehienez sei mega dituen lana aurkeztu beharko du sortzaileak.

Horrez gain, derrigorrez agertu beharko da ondorengo testua: *Andramaixak 2019, Abuztuaren 13a, 14a, 15a, 16a eta 17a. Aretxabaleta.*

Uztailaren 5a izango da lanak aurkezteko azken eguna eta posta arruntez edo elektronikoz bidali beharko dira kultura etxera edo udaletxera.

Hala, uztailaren 16an jakinaraziko du Kultura batzordeko kideek eta hainbat herritarrek osaturiko epaimahaiak aurtengo jaiak iragarriko dituen kartel irabazlea zein izan den. Irabazleak 300 euroko saria eskuratuko du.

Erromeriaz gozatzeko aukera Basotxo elkartearen eskutik

Domeka honetan, hilaren 9an, gorputza mugitu eta dantza egiteko aukera izango da, Basotxo erretiratu elkarteak antolatu duen erromerian.

Arratsaldeko seietarako jarri dute hitzordua Santa Rita Lorategian denak bildu eta hasiera emateko. 19:00etara bitartean, ordubetez, lagun artean arituz gozatuko dute.

Ukelele musika doinuak eta dantzak, Aretz taberna parean

Aretxarte Merkatari Elkartea hasi da jada egubakoitzak girotzen.

Gaur, arratsaldeko seietan, txikienentzako animazioa izango da Aretz taberna parean. KIA eta bere Ukelelearen eskutik, dantza eta musika doinuz beteriko ikuskizunean barrena murgiltzeko aukera izango dute herriko umeek.

Kintoen erritua jaso du Zilarmendik 'Banakoa'-n

Ekaitz Zilarmendi argazkilari aretxabaletarrak 'Banakoa' lana aurkeztu berri du; kintoen erritoari eta haiek egiten dituzten dantzei erreparatuta osatu duen argazki sorta da; lan pertsonal hori 'Dantzan.eus' webgunean jarri du ikusgai

Mirari Altube ARETXABALETA

Oñatiko Argi argazki jaialdiaren barruan, orain dela bi urte, aurkeztu zituen kintoen bueltan egindako lan horren printza batzuk Ekaitz Zilarmendik, baina azken bi urteotan moldatzen eta garatzen joan da proiektu hura, besteak beste, argazki berriak sartuta. Orduan *Sistemak* deituriko lana orain *Banakoa* izenarekin aurkeztu du: "Begirada bat da. Bakoitzak bere begirada propiotik begiratzen du mundu hau eta nire egia islatu dut", dio.

'Banakoa' proiektuko argazki bat. EKAITZ ZILARMENDI

Errituen gaineko hausnarketa

Kintoen gaineko lana 2007an hasi zuen, nahiz eta 2012ra arte buru-belarri ez sartu horretan. Helduen munduan sartzen hastea tokatzen zaien gazteek Aretxabaletan egiten dituzten errituak jaso ditu. "18 eta 19 urteko gazteek egiten duten errritual horretan badago zerbait. Aldaketa asko tokatzen zaizkie sasoi horretan, eta erabaki batzuk hartu beharra ere bai. Ondorio gutxi batzuk dira, edo, beharbada, galdera batzuk. Bizitzaren etapa berri batera pasatzera doazela esateko egiten dituzten erritu horien gaineko hausnarketa txiki bat da". Erritu horien artean daude tantaia jasotzea ekainaren 23an eta herritarren aurrean dantzan egitea Santa Ageda egunaren bueltan. "Eta dantza horien artean badago bat guztiek egiten dutena: banakoa".

Sortze prozesuaren parte

Dokumentatze lana izatetik lehen urteetan lan pertsonal izatera pasatu da. "Urtetik urtera errepikatzen diren erritoak dira, eta urtero berdina jasotzen nenbilen kezka sortu zitzaidan. Kezka horrek lagundu egin zidan zentzu bat topatzera egiten nenbilen lanari. Hasierako emaitza eta gaur egun bilakatu dena zeharo ezberdinak dira; sortze prozesu baten parte da hori guztiori", azaldu du Zilarmendik.

Argazki zuri-beltzekin osatutako sorta da *Banakoa*: "Argazkilaritzarekin harremana hortik abiatu nuen, eta lan hori ere bai. Zuri-beltzean hasitakoari nondik eman behar nion jarraipena zalantzak izan nituen, baina 2017an erabaki nuen abiapuntuari kasu egin behar niola". Gaineratu du estetika ezberdinetan dantzan jardutea gustuko duela, mugarik jarri barik sortze prozesuari.

"Esperimentatzea, jolas egitea, oso gustuko dut"

E.Z.

EKAITZ ZILARMENDI
ARGAZKILARIA

Afizio zena ofizio du orain, eta oso gustura dihardu lanean.

Zein unetan zaude?

Disfrutatzen. Ez da bide erraza izan; nork bere burua topatu behar du bidean, eta une honetan lasai nago, gozatzen. Gauza asko egiteko gogoarekin, baina lasai hartuta, antsietate barik, egunerokoan gauza berriak eginaz. Esperimentatzea, jolas egitea oso gustuko dut, hori da nire leloa, eta horretan nabil.

Esku artean beste lan pertsonalik baduzu?

Orain dela hamar urte hasi nuen lan bat oraintxe dabil gorputza hartzen. Lan profesionalak uzten dizkidan tarteetan heltzen diot pertsonalari, eta txukuntzen jardun dut orain arte. Kintoen lanarekin zerikusi handia du eta oinarritzen da bizitzak duen dualtasunaren dantza horretan. Gorpuzten dabil baina erritmo geldoan.

MIRARI ALTUBE

Kultura herritarrei gerturatzen

Bihar Txotxongilo Taldeak ireki zuen *7x7 Kultura kalean* ekimena eguaztenean txotxongilo saioarekin. Eta gaur, egubakoitza, izango du jarraipena horrek. Screamers And Sinners talde aretxabaletarrak kontzertua eskainiko du Mitarte kalean (19:00). Datorren eguaztenean, ostera, Voces Riberas talde nafarra gerturatuko da komentuko lorategira.

Julio Sotorekin esango diote agur ikasturteari Lekaixokakoek

Nafarroako txapelduna izango dute lagun Lekaixoka bertso eskolako kideek bertsotan jarduteko gaur

M.A. ARETXABALETA

Julio Soto (Gorriti, 1987) gonbidatu dute Lekaixoka bertso eskolako kideek, eta harekin jardungo dute bertsotan gazteek zein helduek ikasturteari bukaera emateko. Durana kalean, udaletxe zahar inguruan, elkartuko dira, gaur, egubakoitza, 19:00etan.

Beñat Zamalloak jardungo du gai-jartzaile lanetan, eta Aretxabaletako taldekideez gain bertsotan egingo dutenen artean daude Haizea eta Oihana Arana ahizpa eskoriatzarrak, Aitor Ugarte aramaioarra eta Ane Zuazubiskar arrasatearra.

Lekaixokako kideak pozik daude ikasturteak izan duen ibilbidearekin. "Umeen taldea sortzea lortu dugu eta hori nobedade handia izan da", adierazi du Martin Berrizbeitiak. Helduen taldean, ostera, zortzi bat lagun elkartu dira taldean, eta Ane Zuazubiskarren agindueta jardun dute lanean. Urtean zehar hainbat saio egin dituzte, kopla-musikatuak esaterako, eta ildo horretatik jarraitzeko asmoa agertu dute.

LORAMENDI EUSKARA ELKARTEA

2019ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA:

EGUNA: EKAINAK 20, OSTEGUNA

ORDUA: 18:00, 18:15

LEKUA: Udaletxe Zaharra

Aurrez edozein ekarpen egin nahi izanez gero, udaletxe zaharrean aurkituko gaituzu, astelehen eta asteazkenetan 16:00-19:00 bitartean eta astearte eta ostegunetan 09:00-12:00etara.

Bestela, telefonoz edo e-postaz:
685 756 729 edo 943 770 970
euskara@loramendielkartea.eus

Loramendi

Aretxabaletatik joandako hainbat lagun, otsailean, Montferri herriko ezti ekoizpena ezagutzen. GARI ITURBE

Kataluniatik 30 bat lagun datoz herrira asteburuan

Lagun artean sortutako kontuak elkartrukea izan du emaitza; otsailean, Urbaltz elkarteko hainbat aretxabaletar joan ziren 200 biztanle eskas dituen Tarragonako Montferri herrira, eta orain, handik datoz bisita itzultzera

Mirari Altube ARETXABALETA

Kataluniar batzuk elkartruke baterako elkarte bila zebiltzala jakin zuten Urbaltzeko hainbat kidek iaz, eta, hortik abiatuta, harreman estua sortu da. Bihar, zapatua, ospatuko duten Urbaltz elkartearen egunera gonbidatu dituzte, eta asteburu-pasa betebetea antolatu diete.

Tarragonako herri txikia

Iazko ekainean, hain zuzen, etorri ziren Montferriko lau lagun Aretxabaletara, herria eta elkartea ezagutzera. Eta aurtengo otsail bukaeran Urbaltz elkarteko 30 bat lagun joan ziren Kataluniara, asteburu-pasa. "Ateak parez pare zabaldu zizkiguten, dena gure zerbitzura jarri. Eta harreman estuak sortu dira gure artean", adierazi du Gari Iturbek, elkartrukearen antolatzaileetako batek. Tarragona barnealdean kokatutako herri txikia izanagatik ekoizle asko ditu, eta horiek guztiak ezagutu zituzten: "Cava egiten duten upategietara eraman gintuzten, baita garagardoa, olioa eta eztia egiten duten ekoizleak ezagutu ere. Kontzertuetan izan ginen eta *calsotada* ere gertatu ziguten".

Bazkarian 100 lagunetik gora

Han egindako harrera beroa egin gura diete orain hemen ere, eta, horretarako, egitarau dotorea zehaztu dute –balkoietan esteladak jartzera gonbidatu dituzte herritarrak–. Gaur, egubakoitza, egingo diete ongietorria, afariarekin (21:30), eta etxeetan hartuko dituzte datozen 30 lagun horiek; umeak, gazteak eta helduak.

Atseden hartu ondoren, bihar (10:00), Areantza auzora joango dira, Urkulu eta inguruko parajeak ezagutzeko asmoarekin. Areantzako kanpai-jole eskolakoek egingo diete harrera han, kanpai joaldia eskainita. Eguerdian, bazkaltzeko elkartuko dira (14:30). "Bazkari horretarako gonbidapena herritarrei ere zabaldu diegu eta 100 lagun baino gehiago elkartuko gara. Izan ere, Urbaltzeko eguna denez, herriko beste elkarte batzuetako gonbidatuak ere izango ditugu", dio Iturbek. Elkartasun kamiseta horiak egin dituzte bazkari horretarako, eta horiek jantzita joateko dei egin dute. Bazkalostea Bixentak taldeak girotuko die (17:30).

100 LAGUNETIK GORA ELKARTUKO DIRA BIHAR BAZKALTZEKO, URBALTZ EGUNAREN BUELTAN

Domeka goizerako, aukera bat baino gehiago eskaini diete: Bedoñako txakolindegira bisita, herri kirolak eta Leitz Gatzagako museora bisita. Eguerdi partean, herriko beste elkarte batzuk ezagutzera joango dira, musikak girotuta (12:30), eta ondoren, elkar agurtu eta itzulerako bidaiari ekingo diote kataluniarrek.

MIRARI ALTUBE

Euskaldun txapelketan nagusi

Gipuzkoa Ogiberri taldeko Garazi Estebez txirrindulariak irabazi du Euskaldun txapelketa. Zapatuan Ugao-Miraballesen (Bizkaia) jokatutako lasterketan lehenengo ezin zuen eta domekan, Ubarrundian (Araba), bigarren. Era berean, Europako pistako txapelketa gertatzen dabil uztailera begira, eta Valentzian egon berri da entrenatzen.

Kurtzebarri eskolakoek jai giroan agurtuko dute ikasturtea

Lehiaketak, jolasak, ikuskizunak, kalejira, bazkaria, dantza eta gehiago izango dituzte bihar, zapatua

M.A. ARETXABALETA

Urtero legez, uholde berdeak beteko ditu herriko kaleak ekainarekin batera; izan ere, Kurtzebarri eskolakoek jai giroan agurtuko dute ikasturtea bihar.

Etxafuegoek iragarriko dute jaiaren hasiera (11:30) eta ikasleendako zein gurasoendako jolasei ekingo diete Herriko Plazan; aurretik lehiaketara aurkeztuko diren tartak jasoko dituzte eskolako jangelan (10:30-11:30). Kurtzebarriko batukadak girotuko ditu gero kaleak, buruhandi eta erraldoiekin batera (12:30); eta eguerdian (13:30), *Eguzkiari agurra* ikuskizuna eskainiko dute. DBHko ikasleek, gainera, ikas bidaiarako dirua batzeko, taberna jarriko dute ikastetxeko arkupeetan.

Pilotalekuan bazkalduko dute (14:30), eta bazkalostean (16:00), *Munduan berbena* emanaldia eskainiko die Txatxilipurdik txikienei. Musika, ostera, AZ Gaubelak taldeak eroango du, gura beste dantza egiteko (16:00-18:00). Bien bitartean, bolo txapelketa jokatuko da eta puzgarriak izango dituzte txikienek.

Bizir Eguna ospatuko dute zapatuan, Mikel Crespo gogoan

Orain dela ia bi urte, 2017ko abuztuan, Pirinioetako Balaitus mendian hil zen Mikel Crespo Zuazua gazte aretxabaletarra izango dute gogoan aurten ere, Bizir Egunarekin. Haren senideak, lagunak eta gertukoak elkartuko dira, bigarren urtez, eta herritarrei ere eskainiko dizkiete eurekin bat egiteko uneak.

Iaz legez, mendi buelta egingo dute goiz partean, Kurtzebarrira; Mendiola auzotik abiatuko dira (09:15). Eta egunak iluntzean izango du jarraipena (19:00), hainbat kontzerturekin girotuko dute-eta Arlutzeko kantxa; hona hemen musikariak: Ekiñe Casado arrasatearra; Krisis talde aretxabaletarra; Gari eskoriatzarra; eta Leire Etxezarreta eta Eider Garro trikitilariak. Antolatzaileek iragarri dute txosna jarriko dutela kontzertuen gunean (18:00).

Iaz, eskolako txikienak dantzak egiten izan ziren Fernando Eskoriatza plazan. IMANOL BELOKI

Ikasturteari agur esateko, eskolako jaia

Egun osoko egitaraua prestatu dute Luis Ezeiza Herri Eskolakoek zapaturako. Aurten, berritasun batekin emango diote, gainera, hasiera: batukada kalejirarekin. Eskolatik plazarako bidea egingo dute egunotan entseatu dutena praktikan jarriz, 10:30ean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Aste honetan, Luis Ezeiza Herri Eskolako ikasleek curriculumarekin zerikusi zuzena duten hainbat ekintzatan hartu dute parte: ipuin kontaketak, ikasleek prestatutako antzerkiak, abestiak, filmak, bertsoak... Bihar, zapatua, emango diote amaiera asteari, eta baita ikasturteari ere; izan ere, Luis Ezeizako jaia izango dute.

Batukada kalejira

Iaz, trikiti doinuek lagunduta hartu zuten eskolatik plazarainoko bidea Herri Eskolakoek. Aurten, aldiz, egunari hasiera emateko, batukada kalejira egingo dute, berritasun moduan. "Haurrei proposatu genien, eta, prest agertu zirenez, astean zehar entseatzen izan gara gurasoak, haurrekin batera. Ez dakigu nola irtengo den, baina egunari hasiera bikaina emateko eta eskolako jaia dela herritarrei ohartarazteko antolatu dugu", adierazi du Antonio Regañok, Koldotxo Guraso Elkarteko lehendakariak.

Batukada kalejira amaitzean, 11:00etan, dantzak izango dira nagusi Fernando Eskoriatza plazan. Eskolako haurrek egunerako prestatutako dantzak egingo dituzte gurasoen eta familiakoen aurrean.

Bazkaria eskolako arkupeetan

180 pertsona batuko dira eskolako arkupeetan bazkaltzeko, eta bakoitzak bere jana eramango du. "Urtero egin izan dugu horrela, eta aurten, Guraso Elkartekook jarriko ditugu edaria, postrea eta kafea. Hala ere, eguraldiak asko baldintzatuko du. Izan ere, txarra egiten badu, bazkaria bera eta egitarauko ekintzak frontoian egingo ditugu", adierazi du Regañok.

Bazkalostean, bingoa izango dute, eta gero, puzgarrietan aritu ondoren, plazara joango dira guztiak DJ Motoren musikarekin batera jaiegunari amaieraematera.

Zapatuko egitaraua

Herri Eskolako jaia

- **10:30** Batukada kalejira. Luis Ezeizatik Fernando Eskoriatza plazaraino.
- **11:00** Ikasleen emanaldiak. Fernando Eskoriatza plazan.
- **Ondoren** Tailerrak eta jokoak. Fernando Eskoriatza plazan.
- **11:30** Buruhandiak. Fernando Eskoriatza plazan.
- **14:00** Herri bazkaria. Luis Ezeizan.
- **15:00** Bingoa. Luis Ezeizan.
- **16:00** Puzgarriak. pilotalekuan.
- **18:30** DJ Moto. Fernando Eskoriatza plazan.
- **21:00** Jaiaren bukaera.

Javi Fachal eskoriatzarra iazko EskoXtrem MTB martxan. IMANOL SORIANO

EskoXtrem MTB martxarako izen-ematea zabalik dago

Uztailaren 6an izango da, eta aurten ere ibilbide luzea eta motza izango dira; baita berrikuntzak ere

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako EskoXtrem MTB martxa uztailaren 6an izango da, eta dagoeneko ireki dute izen-ematea; *Kirolprobak.com* webgunearen bidez egin beharko da. Aurtengoa 30. edizioa izango da, eta, urtero moduan, zirkuitu ederra prestatu dute antolatzaileek.

Urtero moduan, ibilbide motza eta luzea izango dira: motzak, 39 kilometro; eta luzeak, berriz, 49 kilometro. "Urtero prestatu izan dugun ibilbide antzekoa izango da, nahiz eta berritasunak ditugun. Plazatik hasiko gara, eta Gatz Bidetik Gatzagaraino iritsita, Dorletatik gora, Hiruerreketaraino iritsiko gara. Handik, berriz, Usakoaitzera. Zati honetan, bide luzea egingo dutenak desbideratu egingo dira, eta gorabehera batzuk izango dituzte; eta motza egingo dutenek, aldiz, bidea jarraituko dute. Marisanetik gora, Isuskitza, Jarindo... pasa, eta Luis Ezeiza Herri Eskolan amaituko da martxa, bolatokian", adierazi du Iban Diaz EskoXtrem MTB martxako antolakuntzako kideak.

Ibilbide luzea, sorpresaz beteta

Ibilbide polita baina gogorra izango dela aurtengoa gaineratu du Diazek: "Hiru jaitsiera berri ezagutzeko aukera izango da aurtengo martxan, eta baita igoera berri bat ere, *Asentsioko sugea* deritzona. Martxaren amaiera aldera denez, indarrak hartuta joan beharko dute parte-hartzaileek".

Paella, anoa-postuan

Iaz, berrikuntza moduan, anoa-postuan paella jarri zuten, eta aurten errepikatzea erabaki dute antolatzaileek, iazko arrakasta ikusita. Horrekin batera, ez da faltako garagardorik, urtero lez.

Eskoriatzako Ferixan, Santa Marinan, baserriko produktuekin osatutako postuak jarri zituzten ekoizleek. IMANOL SORIANO

Buztinate elkarteko hainbat kide, Ferixan irabazitako saria mahaian dutela. JAVI ROYO

Ferixiak herriko kaleak bete ditu, beste urte batez

Euskal Herri osoko baserritarrak eta artisauak batu ditu, beste urte batez, Eskoriatzako Ferixiak. Hala, 23. edizio honetan, eguraldia lagun, "pozik" daude antolatzaileak parte-hartzearekin, eta, orokorrean, balorazio positiboa egin dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako 23. Ferixiak jende asko batu zuen Eskoriatzan pasa den zapatuan. Eguraldia lagun, artisautza produktuak, barazkiak eta jakiak, arropak, bitxiak, taloak eta edatekoak... eskaintza zabala eta askotarikoa izan zen. Hori horrela, Arizmendiko Jose Arana guneko antolatzaileek egunaren balorazio positiboa egin dute. "Herritarrek transmititu digutenengatik, balorazio positiboa egiten dugu. Sekulako eguraldia egin zuen eta horrek jendea kalera ateratzea ekar dezake, edo kanpora egun-pasa joatea... Hala, uste dugu giro ederra izan zela Eskoriatzan, eta jende dezente batu zela. Arberriz, bi eratako balorazioak jaso ditugu: batetik, lehen aldiz Eskoriatzako Ferixara gerturatutakoek oso gustura izan zirela adierazi digute. Era berean, salmenta asko egindakoak eta beste urteekin alderatuz gutxiago saldu dutela esan digutenak ere badaude...", adierazi du Esti Aguadok, Jose Arana guneko antolatzaileetako batek.

Postuei dagokienez, berriz, herrikoak, bailarakoak eta Euskal Herriko hainbat herritatik joandako artisauak batu ziren. Ana Jara kuartzozko olioarekin, Gemma Carballares, Maria Romera, Nahikari Some, Patricia Ruiz, Edurne Erauzkin, edota Txus Gruzeta bitxiekin, Xabier Oyanguren koadroekin, Juan Jurado bastoiekin eta Javier Etxebarrieta instrumentuekin, besteak beste. Haiekin batera, baserriko produktuekin osatutako postuak ere jarri zituzten bertako zein kanpoko ekoizleek Santa Marina plazan: barazkiak, txorizoak, gazta, masustak... Hori horrela, urteroko sariketa ere izan zen eta aurtengo irabazleak honako hauek izan ziren: postu originalenaren saria Lourdes Martinezentzat izan zen. Martinezek kortseak izan zituen ikusgai Fernando Eskoriatza plaza parean. Baserriko produktuen saria, berriz, Asier Sagastarentzat izan zen eta artisauen saria, Buztinate elkartearentzat. Azken hauek, Alvaro Garcia irakaslearen gidaritzapean, buztingintzako kide diren hainbat ikasleren laguntzarekin hainbat pieza erakutsi eta haurrentzako tailerra egiten izan ziren goiz osoan.

Sari banaketa ostean, aitortza

Bestalde, duela gutxi zendu zen Maximo Iñurrategi, eta omenaldia egin zioten, urte askoan Ferixan postua jartzeagatik. Iñurrategiz gain, Eskoriatzako Talogile taldekoek ere aitortza jaso zuten, beraiek gabe Ferixia ez zelako berdina izango.

NIRE USTEZ

NEREA GORDEXOLA HERRITARRA

Armiarma sare ezkutua

Hona hemen familia, lagun, maitale, etsai, bihurtu den kideari buruzko hausnarketa txiki bat.

Bere baitan hari finenarekin osatutako poltsa handia daraman adiskidea. Oraindik ezezagunak, asmatu gabekoak diren lekuetatik, narrasean arrastoak utziz daramana. Amaierarik, mugarik, ez duen eta suntsiezina den poltsa erraldoia. Imajinaezinak diren kontzeptuz, argazkiz, bizitza ezberdinez, ipuinez, gezur eta egiez beterikoa. Irudikatzeko erraza, ezta?

Orain imajinatu, segundo batez, bertan, zorro horren barruan, zure bizitzaren parte bat dagoela. Zure bizitzako denbora momentu konkretu batean geratu eta bertan, milisegundo hori irudien bitartez plasmatuta azaltzen dela. Bizitako uneak, barreak, haserreak, negarrak, amodioak, ilusioak, ametsak... horiek guztiak ere, etxeko egurrezko kutxatxo preziatuan egon beharrean, bertan daudela. Halako batean konturatzen zara, zu bezala, ondokoak ere bere une gogokoenak bertan partekatzen dituela, haren bizimoduari buruz ia guztia dakizula. Zure parte bilakatu dela. Horrela, poltsa horren edukiera handituz doa, armiarma sare bat bilakatuz, soziala eta aldi berean nahasia den sarea. Hasieran dibertigarri, baina arriskutsu izan daitekeena, begiak estalirik eta azpijokoz beterik, erakartzen gaituena.

Beste lau urtetarako izendatuko dute alkate Joserra Zubizarreta

Datozen lau urteetara begirako udalbatza berria eratuko da ekainaren 15ean, osoko bilkura aretoan egingo den inbestiduran. Ekitaldia 12:00etan hasita, Joserra Zubizarreta izendatuko dute Eskoriatzako alkate, berriz ere.

Udalbatza berria 11 zinegotzik eratuko dute: alderdi jeltzaleko sei zinegotzik –Joserra Zubizarreta, Maite Uribe, Antonio Regaño, Puri Regidor, Josu Ezkurdia eta Ana Castro–, EH Bilduko lauk –Eluska Irazu, Nestor Arana, Dorleta Sologaistoa eta Ander Errarte– eta Eskoriatzako Elizateen Elkarteko batek –Iñaki Kerexeta– osatuko dute.

Emakumeen aurkako indarkeria izango da hizpide astelehenean

Miriam Herbon emakumeen aurkako indarkerian adituak hitzaldia eskainiko du astelehenean, ekainaren 10ean, kultura etxean. Gazteleraz eskainiko duen *Amar con los ojos abiertos* izeneko hitzaldia 18:00etan hasiko da, eta bertan, maitasuna, askatasuna eta errespetua harremanetan... izango ditu ardatz hizlariak. Genero ikuspegitik aztertuko da maitasunak zer esan nahi duen emakumeentzat; indarkeria matxista prebenitzeko argibideak emango ditu... eta maitasun menpekotasunak emakumea indarkeriaren biktima izatera eramaten duela ere izango du hizpide, besteak beste.

Nerea Pavo eskoriatzarra, lehenengo mailara begira

Nerea Pavo Bilbo FS areto futbol taldean ari da jokatzen, atezain. 'Play-off'-etan sartuta, Preconte Telde talde kanariarraren aurka 1-0 aurreratuta ziren pasa den asteburuan; hala, lehen maila igotzeko pauso batera daude

Imanol Beloki ESKORIATZA

Nerea Pavo eskoriatzarrak ibilbide luzea du areto futbolean. 8 urte zituenetik aritu da Eskoriatzako taldean, eta 2016an, bigarren mailako Ordizia taldean hasi zuen etapa berria. Han bi urte eman ondoren, berriz bueltatu zen Eskoriatzara, eta aurrean aukera eder bat suertatuta, Bilbo FS taldean hasi da aurten, bigarren mailan. Hori horrela, taldea lehen mailara igotzeko *play-off*-etan sartuta dago, eta pasa den zapatuan etxean 1-0 Preconte Telde talde kanariarrari aurrea hartuta, lehen mailarako txartela lortzeko pauso batera daude bilbotarrak.

Teror izeneko udalerri kanariarrean jokatuko dute bueltako partidua, zapatu honetan, 18:00etan, Kanarietako ordutegian. Hori horrela, aukera asko dituzte lehen mailara igotzeko: partidua irabazita, berdinketa batekin, nahiz eta partidua galdu, gola egiteak abantaila emango lieke, aurkariek ez zutelako joanekoan golik egin. Hori horrela, Nerea Pavo atezain eskoriatzarra partidurako gogoz dago, eta, bere kirol ibilbidea hazten joateko eta datorren urtean erronka berri bati aurre egiteko irabazi beharra dutela adierazi du.

Nerea Pavo eskoriatzarra. BILBO FS

"Ilusioz eta gogotsu"

Nerea Pavok, Bilbo FS taldean ibilbide berria hasi bakarrik egin duen arren, lehen mailara igotzea amets bat dela adierazi du: "Ilusioz nago. Niretzat, erronka berria da, eta, hainbat urtez bigarren mailan egon ostean, lehen mailako erronkari heldu nahi diot. Beraz, ea garaipenarekin bueltatzen garen Kanarietatik".

Denboraldi borobila

Denboraldi bikaina izan da aurtengoa, 25 garaipen lortu ditu Bilbo FS taldeak, pasa den asteko garaipenaz gain. Horrez gain, hiru berdinketa; eta partidu bakarra galdu dute. Hala, denboraldia behar bezala bukatzeko, gogor lehiatzera irtengo direla kantxara adierazi du Pavok.

Txirrindularia, MTB martxa egiten. DORLETA TXIRRINDULARI ELKARTEA

MTB martxaren balorazio "positiboa" egin dute

73 parte-hartzaile izan dira aurtengo Leintz Gatzagako Mountain Bike martxako hamazazpigarren edizioan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Dorleta Txirrindularien Lagun Elkarteak antolatutako MTB martxa pasa den domekan izan zen. Hamazazpigarren edizioari begira hainbat berrikuntza egin dituzte, eta bertaratu zirenen erantzun ona jaso dutela adierazi dute antolatzaileek.

"Guztira, 73 parte-hartzaile izan ziren, eta antolakuntzatik oso pozik gaude, eta balorazio positiboa egiten dugu. Data jartzerakoan ez genuen asmatu; izan ere, Zegama-Aizkorri ere bazen... hala ere, aurreikuspenak bete ditugu. Iazko parte-hartze kopurua mantendu egin dugu, eta aurtengo berrikuntzekin asmatu. Hala ere, beti daude hobetzekoak...", adierazi du Beñat Agirreurretak, antolakuntza taldeko kideak.

Eskerrak antolatzaileei

Parte-hartzaileez gain, laguntzen aritu zirenei eskerrak eman nahi izan dizkie antolakuntzak: "Mila esker erantzunagatik. Mila esker babesleoi eta laguntzen ibili zareten boluntario guztioi; motorrean, bidegurutzeetan, zein herrian lagundu zenutenei eskerrik asko, benetan".

AGURTZANE GAINZARAIN

Hasi dira danbor hotsak

San Pedro jaiei begirako danborradako entseguak astelehenean hasi zituzten, eta eguna iritsi arte, 20:00etan, Joseba Iñurrategi pilotalekuan batuko dira astelehenero eta eguaztenero entseguak egiteko. Andoni Moto izango da bigarren urtez, danborradako zuzendaria, eta bere gidaritzapean, fin-fin ari dira partaideak entseatzen.

Mugikorren erabilera hobetu eta ikasteko hitzaldiak bibliotekan

Ekainaren 14an, 17an, 18an, 19an, eta 20an, telefono mugikorren erabileraren gaineko ikastaroa jasoko dute Olazar Erretiratu Elkarteko interesdunek bibliotekan. Hala, bertaratu nahi duen bazkideak bere datuak utzi beharko ditu Olazar elkartekoen bulegoan; astelehenean edo eguenean, honako ordutegian: 11:00etatik 12:30era bitartean.

Ikastaro horretaz gain, ekainaren 15eko eta 16ko asteburuan, Iparraldera irteera egingo dute Olazar Erretiratu Elkartekoek. Larrungo gailurrera trenean igoko dira, Hendaiako gaztelubadia bisitatuko dute eta Hondarribia eta Biarritz bisitatzeko tartea hartuko dute.

GATZ MUSEOA

Fisikariak museoan bisitan

Leintz Gatzagako Gatz Museoan, unibertsitatean ikaskideak izandako Fisikako ikasleak izan ziren pasa den asteburuan, Gatzagak duen ondare preziatua ezagutzen. Gatzaren ekoizpenaz, iturburuaren jatorriaz, dorlen sistemen teknikaz... hitz egin zien Aitor Larrañagak, Gatz Museoko arduradunak.

Ume batzuk jolasean seminarioko patioan, astelehen arratsaldean. AMAIA TXINTXURRETA

Seminarioko parkinga, Gobernu berriaren esku

Jarduneko Udal Gobernuak "garbi" du ez litzatekeela zuzena izango parkingerako adjudikazio prozesuarekin jarraitzea, eta hurrengo Gobernuaren esku utzi du proiektua; 'Patixuan aparkalekurik ez!' taldeak 1.703 sinadura batu ditu, "azterketa sakonagoa" eskatzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

Seminarioko parkinga egiteko prozesua eten egin du jarduneko Udal Gobernuak. Jarduneko alkate Elena Letek zehaztu duenez, ez dute seminarioko parkinga egiteko obra adjudikatuko, "garbi" dutelako jardunean dagoen Gobernu batek ezin duela prozesu horrekin aurrera jarraitu: "Garbi dugu jardunean dagoen Gobernu batek ezin duela prozesu honekin aurrera jarraitu, ez litzateke zuzena izango, eta horrela adierazi genion Gorka Artolari. Gobernu berriak erabakiko du zer egin".

EH Bilduren iritzia, 17tik aurrera

Ekainaren 15ean Bergarako alkate izendatuko duten EH Bilduko zerrendaburu Gorka Artolak GOIENAri adierazi dio oraindik ez dutela erabakirik hartu gaiaren gainean, eta ekainaren 17tik aurrera jarriko direla lanean, "baita horretan ere". EH Bilduk azken hilabeteotan azpimarratu izan du erdigunean aparkaleku baten beharra badagoela, baina egiteke dagoen mugikortasun planaren arabera zehaztu beharko litzatekeela, besteak beste, haren kokapena.

Lete: "Ez egitea galera litzateke"

Elena Lete buru duen Gobernuaren agintaldiko "proiektu izarra" izan da seminarioko parkingarena, eta uste dute "galera" izango litzatekeela ez egitea: "Azken 18 hilabeteotan aritu gara lanean buru-belarri. Gobernu berriak erabakiko du zer egin, baina galera bat litzateke ez egitea".

Bestalde, esleipen prozesua eten izanarekin pozik dago Aranzadiko hainbat gurasoz osatutako *Patixuan aparkalekurik ez!* taldea. Maiatzaren 31n, 1.703 sinadura aurkeztu zituzten udaletxean, patioan aparkalekurik ez egitea eta herriko aparkaleku arazoari aurre egiteko "azterketa sakonagoa" eskatzeko.

EH BILDUK EZ DU ERABAKIRIK HARTU, BAINA MUGIKORTASUN PLANA GARATU NAHI IZAN DUTE ORAIN ARTE

1.703 sinadura aurkeztu dituzte

Babesarekin "oso pozik" dago guraso taldea. "Hilabete eskaseko bilketan lortu ditugu sinadura horiek; eskerrik asko! Zailtasunak izan ditugu ulertzera emateko ez dela kontrako eskaera bat bakarrik, baizik eta herrirako mugikortasun ereduaren gaineko hausnarketa bat ere eragitea nahi genuela", dio taldeko eledun Larraitz Uribesalgok. Jarduneko Gobernuak prozedura eten izana ontzat jo dute eta Gobernu berriari eskaera zehatz bat egin diote: "Erdiguneko aparkaleku beharraren konponbideak mugikortasun plan jasangarri bat izan behar du oinarri. Gure ustez, oso erabilia den eremu hau ez da bateragarria parking batekin".

NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

Perspektiba kontua

Ez dizut ez dakizun ezer esango, ez baitaukat egia absoluturik zuri kontatzeko, irakurle ausart hori. Ausarta izan behar da gero sasi-idazle honen txokora gerturatu, eta egia absolutuen inguruan irakurtzeko. Ez, ez daukat egia absoluturik zuri kontatzeko, nahiz eta maiz uste dudan nirea dela egia, nik dudala arrazoia. Xume diot hau, baina buka esazu mesedez esaldia irakurtzen ni epaitu aurretik. Beti uste dut/dugu nirea/gurea dela egia absolutua, arrazoia, betiere nire/gure perspektibatik, nirea/gurea bakarra balitz bezala, errealitate bakarra, behar bakarra... Azken finean, hauek guztiek baldintzatzen dute egia, testuinguru guztiek bilakatzen dute egia egia. Arriskutsua izan daiteke bizikidetza eta ongizatearen ikuspegitik beste perspektibak kontuan ez hartzea.

Eta erlatibizatzeak egia absolututik aldentzen gaituenez, kolore ezberdinetako betaurrekoen atzean kokatuko naiz. Eta zure aurrean konprometitzen naiz, besterik ez bada, nire sudurretik harago begiratzen; alegia, beste perspektibak kontuan izaten. Ikusten! Ez dizut ezer berririk esan... edo bai? Hau ere perspektiba kontua izango da.

GORA ETA BEHERA

A.T.

Organikoa ez dena errefusenera botatzen

Argazkian ikus daiteke Mankomunitateko langile bat organikoak ez diren poltsak atera eta errefusenera botatzen, Labegaraietan. "Ez da lehen aldia", dio argazkia helarazi duen herritarrak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Errespetuzko jarrerak bultzatuko dituzte

Pazko jaiak hasiko dira gaur, eta martitzenera arte iraungo dute. Jaiguneak espazio aske eta seguruak izateko lan egin dute aurten ere. Martxanterek antolatuta, Txoko Morea jarriko dute. Horrez gain, Udalak arduraz kontsumitzeko mezua zabaldu du

Erraldoien konpartsak. IMANOL SORIANO

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA

Gaur jaurtiko duten txupinazoarekin hasiko dituzte jaiak, eta martitzenera arte iraungo du pozak bergararren artean. Askotariko ekintzak antolatu dituzte, adin guztietako herritarren beharrak asetzeko.

Txoko Morea

Jai guneak espazio aske eta seguruak izateko lan egin dute aurten ere. Hala, Martxanterek antolatuta, Txoko Morea jarriko dute gaur, bihar eta astelehenean. Ordutegia ondokoa izango da: gaur, 19:00etatik 00:00etara; bihar, 17:00etatik 01:00etara; eta astelehenean, 19:30etik 00:00etara. Egoera matxistei aurre egiteko gunea izango da.

Barrakak, merkeago

Astelehen goizean eta eguaztenean barrakak merkeago izango dituzte. Euro 1 ohiko barraketan eta 1,5 euro berezietan.

Prebentzioa

Bestalde, kontsumo arduratsua bultzatu nahi du Udalak. Horretarako, *testing*-a egingo dute, zapatuan, Irala kalean.

Pazkoak 2019 Egitaraua

EGUBAKOITZA 07

19:30 Kattalin elkartearen eskutik txupinazoa eta Bitorianatxoren jaitsiera. Segidan, Musika Bandaren kalejira.

20:30 Matxiategin barrakak irekitzea eta Bideberrin txosnak irekitzea.

20:30 Haur eta gurasoentzat parrilada.

22:00 DJ Porru 2.0 haur dantzaldia, Seminarioko karpan.

21:30 Guda dantza taldearen kontzertua San Martin plazan.

22:30 En Tol Sarmiento taldearen kontzertua San Martin plazan.

ZAPATUA 08

10:00 Diana. Bolutik, Bergarako trikitilariak; Labegaraietatik, Elgoibarko dultzaineroak; eta, Oxirondotik, Udal Txistulari Banda.

11:00 Erraldoien gunea San Martin plazan.

11:00 Herriko elkarteen arteko bakailao lehiaketa San Martin plazan.

11:00 Hockeyko Euskadiko Kopa Labegaraietan –infantil maila–.

11:30 Pentekosteetara ongietorria emateko ekitaldia.

11:30 Erraldoi konpartsen kalejira.

12:00 Errekortadore eskola ibiltaria zezen-plazan. Sarrera 2 euro.

13:00 Bergarako Erraldoien Konpartsako *Bitorianatxo* erraldoi berriaren aurkezpena plazan.

13:30 Bakailao lehiaketako sari banaketa, San Martin plazan.

17:00 *Free style* erakustaldia Mariaren Lagundiko jolastokian.

17:30-21:00 Ndank Ndank tonbola solidarioa Irala kalean.

17:30 Buruhandi eta kilikien irteera San Martin plazan.

18:00 Bergarako eta Torrejon de Ardozko erraldoi konpartsen kalejira Bergarako kaleetan.

18:30 Errekortadore gaztetxoen (8-15 urte) eta gazteen txapelketa (16-20 urte) zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

20:30 Low Cost Deluxe eta Black Lemon Bergarako taldeen kontzertua Irizarko plazatxoan.

23:00 Esne Beltza taldearen kontzertua San Martin plazan.

00:00-03:00 *Testing*-a Irala kalean.



DOMEKA 09

09:00 Bigantxak zezen-plazan. Sarrera 2 euro.

11:00 Meza nagusia San Pedro parrokian.

11:00 Umeentzat goitibehera zirkuitua Herrilagunak kalean.

11:00 Hockeyko Euskadiko Kopa Labegaraietan –infantil maila–.

11:30 38. haur eta gazteen Simon Arrieta plastika sariketa San Martin plazan.

12:30 Bergarako Udal Musika Bandaren kontzertua Udal Pilotalekuan. Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque.

13:00 Haurren eta gazteen Simon Arrieta plastika lehiaketako sari banaketa San Martin plazan.

13:30 Hockeyko Euskadiko Kopako emakumezkoen finala Labegaraietan.

15:30 Goitibehera lasterketa San Martzialgo bidean. Antolatzailea: Inertzia Kirol Elkartea.

17:00-20:00 Zirku eskola Gaztetxoendako, Arrizuriaga azpiko jolas-parkean.

18:00-20:00 Andoni Ollokiegirekin kantu animazioa Irala kalean.

18:30 Euskal Herriko errekortadoreen ikuskizuna, Seminarioko zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

20:00 Gimnasia erritmikoko erakustaldia San Martin plazan. Antolatzailea: Ariznoa gimnasia erritmiko elkartea.

22:00 Oinkari Dantza Taldearen eta Hika konpainiaren Sagartu dantza emanaldia San Martin plazan.

ASTELEHENA 10

KUADRILLEN EGUNA

10:30-12:00 Pentekoste Saria plater tiroketa Arraten. Ondoren, bazkaria (Oilagorrako zuzendaritzan apuntatu beharra dago). Antolatzailea: Bergarako Oilagorra Ehiza Elkartea.

11:30 Kuadrillen arteko herri kirolen txapelketa, zezen-plazan.

12:30 Dantzaldia La Nueva Talisman orkestrarekin Espoloian.

14:30 Herri bazkaria San Martin plazan.

15:30-17:30 Pentekoste Saria pitxoi tiroketa Arraten.

18:30 Zezen-plazaraino txarangarekin joan ostean, gaztetxoendako bigantxak egongo dira zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

19:30 Kantu Kolore taldearekin haurrentzako erromeria plazan.

19:30 Bergara Hiria mutilen pilota finalak Udal Pilotalekuan.

23:00 Camp dantzaldia La Nueva Talisman orkestrarekin Espoloian.

23:00 Erromeria llargi Beltza taldearekin, San Martin plazan.

MARTITZENA 11

UMEEN EGUNA

09:00 Bigantxak zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

11:00-14:00 Haurrentzako jolas parkea Ipintza II-ko patioan.

12:00 Idi proben erakustaldia Bergarako abeltzainen eskutik San Martin plazan. Aurkezlea: Iñigo Almortza.

13:00 Los Tenampas mariatxi taldea, D. Irala kalean.

14:30 Bazkaria San Joxepe elkartean eta, ostean dantzaldia.

16:30 Bergarako bolo, toka eta igel txapelketak San Joxepen.

17:00-20:00 Haurrentzako jolas-parkea (puzgarriak, jokoak eta ekintza ugari) Ipintza II-ko patioan.

17:00 Pilota partida profesionalak Bergarako Udal Pilotalekuan.

17:30 Jago magoaren erakustaldia Simon Arrieta plazan.

18:30 Errekortadore eskola ibiltaria zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

20:00-22:00 Erromeria San Martin plazan.

22:00 Bitorianatxoren igoera San Martin plazan.

00:00ak arte Erromeria San Martin.

Egitarau herrikoia

EGUBAKOITZA 07

13:30 Triki-poteoa.

15:00 Ikasle bazkaria.

19:00 Ttek! elektrotxaranga herriko kaleetan zehar.

20:00 Txosnagunearen irekiera Kopla Barik bertso eskolaren eskutik.

21:00 Turtukiña DJa.

23:00 Barne Guda, Crim eta Brigade Loco taldeen kontzertuak.

03:00 DJ Albabarruna feat DJ PZ.

08:00 Gaupasero argazkia eta Ttek! elektrotxaranga herriko kaleetan zehar.

ZAPATUA 08

15:00 Presoen eta iheslarien aldeko bazkaria Bideberrin.

19:00 Ezten Giro taldearen eskutik erromeria.

00:00 Urgatz eta Egurra Ta Kitto taldeen kontzertuak.

02:30 Ttun Ttun Brigade eta Gorpuzkingz musika taldeen emanaldia

04:30 MTR DJak.

DOMEKA 09

12:00 Haima migratzailea txosnagunean.

14:00 Bazkaria txosnagunean (bakoitzak berea eramanda).

16:00 Haur eta gurasoentzat Makedo sormen tailerra Jau!-ren eskutik eta mahai jokoak Maijokuren eskutik.

17:30 Niala magoaren ikuskizuna.

19:30 Izaki Gardenak taldearen kontzertua.

21:00 Txapak girotutako afaria.

22:00 Film laburren lehiaketako emanaldia.

ASTELEHENA 10

20:00 Laket taldearekin erromeria.

23:00 Modus Operandi eta Bad Sound musika taldeen kontzertuak.

03:00 Karaokea.

MARTITZENA 11

19:30 Joseba Irazoki eta Lagunak-en kontzertua.

"Lehengai ona dago, urte luzez bandak sortzen jarraitu dezan"

ALFREDO GONZALEZ CHIRLAQUE BERGARAKO MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIA

32 urteren ostean, domekan zuzenduko du banda azken aldiz, baina argi utzi nahi du gertu egongo dela "edozertan" laguntzeko; etorkizun oparoa duen "familia" bat dela dio

Alfredo Gonzalez Chirlaque, martitzen arratsaldean. XABIER URZELAI

Jokin Bereziartua BERGARA

"Babeslekua" da Alfredo Gonzalez Chirlaquerentzat Bergarako Musika Bandaren entsegu lokala. Bertan elkartu da GOIENArekin, domekan bandako zuzendari moduan erretiroa hartuko duela eta. 63 urte ditu eta bandan 54 urte egin ditu, horietatik 32 zuzendari. Aitortu du "zaila" egingo zaiola etapa berrira egokitzea: "Laguntzeko gertu egongo naiz, bergarar guztien zerbitzura".

Nola zaude egun handira begira?

Ez nuen uste ezer berezirik sentituko nuenik, baina barruko tximeletak sentitzen hasita nago. Kalean esan didate erretiroa gogoz hartzen dela, baina horrenbeste bete nau nire lanbideak, zaila egingo zait etapa berrira egokitzea. Horregatik esaten dut ez dudala agurrik nahi, hau *gero arte* bat dela. Edozertarako egongo naiz hemen; Enrikeri [Enrike Txurruka, lekukoa hartuko diona] behin eta berriz esan izan diot beldur barik deitzeko.

Askok geratu zaituzte kalean?

Batzuek uste zuten erretiroa hartuta nengoela, prentsan agertu izan naizelako. Zoriondu egin naute eta erretiratu batzuek ondoetorria eman didate *klubera* batuko naizelako laster; kar, kar.

Kazetarion deiak ere jaso dituzu.

Bai, ondo dakizu. Zuzendari aldaketarena gertutik jarraitu duzue, eta eskertzen da, zinez.

1965ean sartu zinen Bergarako Musika Bandan. Nolakoa zen orduan?

Aitak oso goiz sartu ninduen, 9 urterekin. Nik instrumentu guztiak ezagutzea nahi zuen: perkusioa, metala, egurra... Gero, oboea aukeratu nuen ikasketetarako. Gogoan dut Aste Santuko prozesio baten beldurtuta irten nintzela, oso serioa zen hura 9 urteko ume batentzat. Baina horrela suertatu zen. Orduan, 30 bat kide ginen, ez gehiago. Baina artalde hark artzain ona zuen, Miguel Gonzalez Bastida; banda profesional baten antzeko soinua lortzen zuen aitak. Orduko eta egungo bandaren artean alde handiak daude, garaiak asko aldatu dira. Barruko harremana askoz hobea da gaur egun ordukoa baino, eta horrekin ez dut esan nahi nire hasieretako giroa txarra zenik. Lehen, adinaren araberako harremanak izaten ziren nagusi, hein batean, eta gaur egun, denok nahastuta gabiltza.

"BADA GARAIA BESTE ESTILO BATI ETA INDARTSU DATORREN JENDE GAZTEARI LEKUA UZTEKO"

"BANDAN JAIO NINTZEN, ASKOTAN ETORTZEN ZIREN GAZTEAK ETXERA ENTSEATZERA"

Banda barruko giro on horren erantzuleetako bat izango zara zu...

Beti gustatu izan zait musikariak babestea, eta euren artean ezagutu daitezela. Emanaldien ostean musikariak gertu izatea gustatu izan zait zer pentsatzen duten jakiteko. Arazoak baleude errazagoa delako horiek konfiantzazko testuinguru lasai batean identifikatzea.

32 urte daroatzazu bandako zuzendari. Hasierako helburuak bete dira?

Epe luzera begirako proiektu bat aurkeztu nuen orduan, eta helburuak era naturalean joan dira betetzen. Horregatik diot etorkizunerako oso prestatuta dagoen banda bat dugula.

Zerk egin zaitu berezi?

Ez dakit esaten... sorkuntzak, esango nuke. Banda berriaren eta Bergarako Musika Eskolaren sorrera nabarmenduko nituzke. Izan ere, aspaldi, bandak bere akademia propioa zuen, baina nire proiektuaren helburuetako bat bazen eskola sortzea, bandarentzat eta beste elkarte batzuentzat harrobi moduan funtzionatuko zuena. Oro har, dinamizatzea izan da nire ekarpen nagusia, eta, apal esanda, hein batean lortu egin dudala esango nuke.

Dinamizatze lan horren adibiderik?

Oilaskoa eta xanpaina batzen dituen afaria, zergatik ez. Urtean behin elkartzen gara, banda, orkestra eta beste hainbat lagun, eta garai ezberdinetako alkateak etorri izan dira; harrituta geratu izan dira barruan dugun giroarekin. Natural irteten da.

Anekdotarik gogoratzen duzu?

Instrumenturen bat galdu izana, patxadagatik autobusa galdu eta taxia bere poltsikotik ordaindu behar izan duen kidea, sokamuturrak plaza erdian harrapatu gintuenekoa... Pasadizo asko, gure ondarea direnak dagoeneko.

Zer izan da banda Alfredorentzat?

Ni bandan jaio nintzen. Oso umetatik entzun izan ditut banden gaineko istorioak; aita, aitajauna eta osabak izan ditut banden zuzendaritzan. Bandan sartu aurretik ere, banda gertutik bizi nuen; izan ere, musikari gazte askok etxean entseatzen zuten. Ni etxerako lanak egiten nenbilen bitartean, klarinete, tronpeta edo beste instrumentu batzuk entzuten nituen etxean. Bandaren sekretu guztien berri izan dut txikitatik.

Zer eman dio bandak Bergarari?

Oparotasuna eman dio, zentzu guztietan. Kontzertuetan jende asko egon ohi da eta urteko ekitaldi berezietarako sarrerak berehala agortzen dira. Horregatik diot harro egon behar dugula Bergaran dugunaz. Banda batek herriarena izan behar duelako; eta, bestela, hiltzera kondenatuta dago.

Erretiroa hartzeko une egokia dela esan izan duzu. Zergatik orain?

Badelako garaia estilo berriak lantzeko eta indartsu datorren jende gazteari lekua uzteko. Une egokia da, aldi berean, bandarentzat eta niretzat. Gainera, oso esku onetan uzten dut. Enrike Txurruka zuzendari ona izango da eta Igor Larrañagak ere lan ederra egingo du zuzendariorde. Bandak urte luzez

sortzen jarraitzeko lehengai ona dago, zalantza barik.

Musikari lotuta jarraituko duzu, ala?

Musika ezin dut utzi. Konposatzen eta sortzen pasatuko dut denbora gehiago orain; suposatzen dut pieza horietako bat estreinatzeko aukera emango didatela bandakoek etorkizun batean; kar, kar.

Arrantzan egitea gustatzen zaizu. Denbora gehiago izango duzu orain...

Kar, kar. Aspaldian ez naiz joan, baina garai batean izugarri ondo egiten zidan arrantzan joateak. Pentsatzeko balio izaten zidan, musikaz harago. Hemen [bandaren entsegu lokalean] ere asko pentsatu izan dut.

Zure bigarren etxea izan da hau.

Etxean baino ordu gehiago egin ditut hemen. Oraindik ere etortzen naiz zapatu eta domeka goizetan. Nire babeslekua da.

Gonzalez Bastidatarren azkena zara.

Nire birraitona Salamancatik etorri zen. Piano afinatzailea zen eta Ibarrako Agirre Pianoak enpresak kontratatuta etorri zen Euskal Herrira. Ondoren, nire aitona Ibarratik Seminariora etorri zen eta bandaren ardura hartu zuen. Geroago, nire aitak hartu zuen eta haren ostean, nik. Dena den, Patrizia alabak jarraitzen du bai bandan eta baita orkestran ere, eta ikasketak ere musikara bideratu ditu. Izan ere, pedagogia eta irakasle ikasketak egin ditu eta orain, musika irakaskuntzan ari da espezializatzen. Oso harro nago alabaz.

Pelikula-banda bat ere bada Bergarakoa, etxebestetarrei esker. Nolakoak izan ziren grabaketak?

Ahaztezinak. Pelikularen zuzendaria ere bergararra da eta gugana etorri zenerako banda prest zegoen lanerako. Hori da Bergarako Musika Bandaren estiloa, herriari mesede egingo dioten ekimenetan era aktiboan parte hartzea. Itzela izan da zinema-mundua ezagutzea, barre ederrak egin ditugu. Orain gutxira arte, harremanetan egon gara lantaldearekin; joan den astean bukatu genuen *Agur, Etxebeste* pelikularako azken audioak grabatzen.

Etzikoa izango da bandako zuzendari gisa zure agurra, eta ziur programa maitasun bereziz prestatu duzula. Ze piezarekin hasiko zarete?

Programa ikusiz gero, batek baino gehiagok pentsa dezake ez dela originala, askotan interpretatu izan ditugun piezak direla.

"ETXEAN BAINO ORDU GEHIAGO EGIN DITUT ENTSEGU LOKALEAN, BABESLEKUA DA NIRETZAT"

"BANDAK HERRIARENA IZAN BEHAR DU; BESTELA, HILTZERA KONDENATUTA DAGO"

Izaera berezia du obra horietako bakoitzak. Lehena *Campo de rosas* izango da, nire aitak konposatutakoa eta hari eskainia. Izan ere, argi daukat musikaren gainean dakidana aitari zor diodala. *Campo de rosas* pasodoble oso maitatua da Bergaran, eta, garai batean, Bilboko lehiaketa bateko lehen saria jaso zuen.

Eta hortik aurrerako piezak?

El lago de los cisnes suitea izango da bigarren obra, Txaikovskirena. Bandak gehien interpretatu duen egilea da eta musikari moduan oboearekin egin nituen lehen soloak pieza horiekin egin nituen. Hirugarrena izango da *1832*, bandaren 175. urteurrenaren harira joko duguna [gaur egun, 187 urte ditu], eta musikariei eskainia dagoena. Hurrengo pieza ere oso berezia izango da, asko kostatu zitzaidan aukeratzea. *Forrest Gump suite* deitzen da; musikak izugarri ondo deskribatzen du Forrest Gump pertsonaia: gaiztakeriarik gabeko pertsona eta barrutik irteten zaiona egiten duena. Musikak halakoa behar du izan. Pieza honekin, bandatik pasatu eta dagoeneko gure artean ez daudenak gogoratu nahi izan ditut; 54 urtetan jende asko ikusi dut pasatzen.

Eta zuzenduko duzun azken pieza?

Pomp and circustance. Zergatik bukatuko dudan honekin? 1987ko urtarrilaren 6an zuzendu nuen lehena izan zelako. Pieza hori ezin aproposagoa da ziklo hori ixteko. Amaieran, *Bergarako ereserkia*-k ez du hutsik egingo.

Ezer gaineratu nahiko zenuke?

Eskerrik beroenak eman gura dizkiot Bergarako herriari, bandari emandako babesagatik, eta horrela jarrai dezala urte luzez.

Txurruka: "Badoa nire aita musikala"

Txurruka. X.U.

Enrike Txurrukak hartuko du Alfredo Gonzalez Chirlaqueren lekukoa; 45 urte ditu, eta, bandako eta orkestrako kide izatez gain, pianoko goi mailako ikasketak eginak ditu. Bandako perkusio taldean aritu izan da orain arte: danborra, atabalak, bateria, teklatuak… Zuzendari izango zela jakin zenetik, ikasten aritu da Gonzalez Chirlaqueren ondoan. "Eguneroko jarduna, bandaren artxiboa... 1.300 obra inguru ditugu; errepasatze lanak izan dira, batik bat. Bagabiltza martxa hartzen", adierazi dio GOIENAri. Zuzendari gisa behin hartu zuen batuta, apirilaren 14an, musika eskolaren kontzertu pedagogikoan. Irakaslearekiko hitz politak ditu Txurrukak: "32 urtez izan da nire irakasle, nire aita musikala izan dena badoa. 12 urte nituenetik hemen aritu naiz bueltaka Alfredorekin. Azkar esaten da, baina astean hiru entsegu izan dira 32 urtetan zehar. Familia bat da banda, eta Alfredo beti izan da familiako beste kide bat. Bandako kide moduan, ikasle eta musikari moduan eta bergarar moduan eskerrak eman beharrean gaude egin duen lan guztiagatik".

Aurten, 187 urte egin ditu Bergarako Musika Bandak, eta, historia luzea izan arren, Txurruka etorkizunari begira jarrita dago: "Bandak historikoki egon izan dira adineko jendeari lotuta, baita garai batean Bergarakoa ere. Orain, baina, badago belaunaldi nahiko gazte bat eta, bereziki, musika eskolari esker jende berria sartzen da, gutxika. Etorkizunerako lehengaia badago".

Turismo atari berria aurkeztu dute, diseinu modernoarekin

Orain arte zegoen ataria erabilgarriago egin dute eta herrian egiteko proposamenak batu dituzte

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA

Bergarak turismo atari berria sortu du: *Bergaraturismo.eus* da web atariaren izena eta lau hizkuntzatan dago: euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez.

"Iraganean, Udaleko turismoko webgunea egon bazegoen, baina kasu hartan, gehiago zen Bergarari buruzko informazio bilduma bat. Webgune berri honetan egin da ahalegina Bergara bisitatu nahi duenarentzat erabilgarriagoa izateko; eta bisitari hauei proposamen zein aukera desberdinak eskaintzeko modu argigarrian. Era berean, balio du bergararrok herrian ditugun baliabideak eta ondarea hobeto ezagutzeko", azaldu dute udal ordezkariek.

Diseinu moderno eta garbia

Grupal plataforman egin dute web ataria, eta, diseinu moderno eta garbia dauka, "irisgarriagoa, erakargarriagoa eta biziagoa". Informazioaren bilketan, antolamenduan eta eskaintzan hainbat berrikuntza egin dituzte atari berria sortzerakoan.

Alde batetik, Bergaran egin daitezkeen egun erdiko eta egun osoko proposamenak zerrendatu dituzte. Horrez gain, Bergarako zerbitzu publikoen eta pribatuen baliabideak eguneratu dituzte.

Herriko azpiegiturak

Herriak dituen kultura azpiegituren gaineko informazio osoa dago atari berrian. Batetik, Laboratorium museoari buruzko informazio zabala gehitu dute, bisitariendako eskaintza osatuta. Bestetik, Seminarixoko eta Udaleko kultura agendarekin lotu da ataria, "bisitariak herriak eskaintzen duen kultura eskaintza zabalaz jabetu daitezen".

Bergarari buruzko bideoak ere gehitu dituzte, eta ibilbideak errazteko *Wikiloc* eta antzeko plataformak lotu dira atarira.

Bisitak aztertzeko modua

"Google Analytics bidez jarraipena egingo zaio webguneari, bisitak nongoak diren eta zein atal diren ikusienak aztertu; eta, horren arabera, webgunean moldaketa eraginkorrak egiteko", diote udal arduradunek.

Nabarmendu dute turismo ataria zabalik dagoen proiektua dela eta "ekarpenen eta beharren arabera" joango direla aldaketa gehiago egiten.

IMANOL SORIANO

"Oso pozik" erromeriarekin

Musika eskolako dantza taldeak, Janire Urbietak, Xamatzek, Moises Aspiazuk eta erraldoiek elkarrekin dantzatu zuten domekan. Garai bateko erromerien ohitura eta giroa berreskuratzeko asmoz egin zuten saioa, eta antolatzaileak "oso pozik" geratu ziren dantzaldiak emandakoarekin. Eguzkipean egindako saiora herritar asko batu ziren.

Jokalariak, San Martingo plazan jarritako kantxetan jokatzen; eguraldi txarra bada, Labegaraietara joango dira. GOIENA

Bergarako hiruko torneoa, enpresetara zabalik

Ekainaren 22an eta 23an egingo dute txapelketaren 12. edizioa. Aurtengo nobedadea da torneoa enpresetara zabaldu dutela, eta bertako izenarekin esku hartzen dutenek sari berezia izango dute; azken egunean, saskibaloi egokituko erakustaldi egingo dute

Xabier Urzelai BERGARA

Ekainaren 22an eta 23an egingo dute Bergaran hiruko saskibaloi txapelketa. BKEko saskibaloi saileko presidente Marian Melladoren esanetan, herrian errotuta dagoen txapelketa da hirukoa: iaz, esaterako, 70 talde inguruk hartu zuten parte, eta denak ez ziren bergararrak, kanpotik ere etortzen da-eta jendea. Bada, aurten ere nobedadeak izango dira: "Urtero ahalegintzen gara berritasunen bat ekartzen. Iaz saskibaloiaren gaineko mahai-ingurua egin genuen [Euskal Herriko kategoria ezberdinetako klubetako emakumezko presidenteak jarri zituzten mahaiaren bueltan] eta aurten Enpresa Saria jarri dugu abian. Hala, taldekideek enpresen izenean hartu ahal izango dute esku, eta ez da mugarik egongo".

Izen-ematea, Internetez

Ekainaren 19a da izena emateko azken eguna. Hainbat bide daude horretarako: Internet bidez, Bergara Kirol Elkartearen webgunean (*Bergarake.com*) edo izen-emate orria ikastetxera eramanda. Horrekin batera, Labegaraietara edo Agorrosinera eraman daiteke izen-emateko orria.

Eguraldiaren menpe

Urtero moduan, San Martin plazan saskiak jarriko dituzte; eguraldi txarra eginez gero, bestela, torneoa Labegaraietako kantxara eramango dute.

Egutegiari dagokionez, ekainaren 22an, goizean, juniorren, kadeteen eta infantilen txanda izango da eta arratsaldean, seniorrena eta enpresena. Domeka goizean, bestalde, alebinak eta benjaminak ibiliko dira nor baino nor gehiago.

Bergara Hiriko finalak 10ean eta profesionalen jaialdia 11n

Domekan Eskuz Banakako Txapelketako finalean izango den Irribarria Bergaran egongo da martitzenean

X.U. BERGARA

Astelehenean, hilak 10, jokatuko dituzte Bergara Hiria txapelketako finalak (19:30). Martitzeneko finalerdietan, promes mailan Larrazabalek eta Etxeberriak 22-11 irabazi zieten Alberdiri eta Gartziari, eta finalean Murua eta Oliden izango dituzte zain.

Nagusien mailan, berriz, Zubizarretak eta Elizegik alde handiagoarekin irabazi zieten Elolari eta Sarasari (22-8). Hala, asteleheneko finalean, Canabalen eta Aldabaren kontra neurtuko dituzte indarrak.



Irribarria Bergaran. GOIENA

Puntako jaialdia martitzenean

Martitzenean, berriz, pilotazaleek puntako beste hitzordu bat izango dute, eskuz binakako partiduan Altuna III.ak eta Rezustak domekan Urrutiren kontra finala jokatuko duen Irribarria izango dute-eta aurrean, Zabaletak lagunduta. Lehenago (17:00), Mendizabal III.ak eta Martijak Etxeberriaren eta Ladis Galarzaren kontra jokatuko dute. Eta hirugarren partiduan, Dariok, Ruizek, Zabalak eta Etxebarriak jokatuko dute.

Padel Txapelketa hasiko dute ekainaren 12an

Padel txapelketa jokatuko dute Agorrosinen ekainaren 12an hasita. Txapelketaren formatua kanporaketena izango da, eta izena eman duen jokalari bakoitzak –atzo, eguena, zen izena emateko azken eguna– gutxienez bi norgehiagoka jokatuko ditu kanporatua izan aurretik. Hiru kategoria egongo dira: gizonezkoak, emakumezkoak eta mistoak.

Ariznoako gimnastek hainbat erakustaldi dituzte egunotan

Ekainaren 14an Labegaraietan (18:30) eta ekainaren 19an Antzuolako frontoian (17:30), Ariznoakoek ikasturteari agur esateko jaialdia egingo dute. Urtean zehar landutako ariketak erakutsiko dituzte. Bestalde, herriko jaien baitan, oraingo domekan (20:30, plazan), gimnasia herritarrei gerturatzeko asmoz, entrenamendu saioa egingo dute.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Ondo pasau jaixetan!
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Masterreka, 10 · BERGARA
Tel.: 943 76 16 63
Santa Ana 11 · ELGOIBAR
Tel.: 943 74 10 11

Iturgintza - Berokuntza
Ondo pasau jaixak!
Laskurain
• Energia berriztagarriak (biomasa, aerotermia, solarra...)
• Kalefakzioak (lur-radiantea, radiadoreak...)
• Minusbaliarako adaptazioak
• Altzariak, manparak, osagarriak, iturriak...
Barrenkalea 44 • Tel.: 943 76 24 89 • 610 20 54 99
fontanerialaskurain@gmail.com

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA
Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargaral 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA
Bergara / Ibargarai 41 / 688 80 16 72

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Kakahueteak, meloiak eta sandiak ere hazten dira

Gure baratzeetan landatzeko ohiturarik ez izan arren, badira gurean oso ondo ematen duten hainbat landare. Ezagutzea da kontua, eta saio berezia egin zuen martitzenean Kimu Bat enpresako Aitziber Otegik Elgetako baratze parkean

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako hamar bat ortuzainek entzun zituzten landare exotikoen inguruko azalpenak martitzenean. Kimu Bat enpresako Aitziber Otegik argitu zuen bertakoak ez diren landare ugari dagoela, eta gurean ere oso ondo ematen dutenak. "Exotikoak esaten diegu hemengoak ez direlako, baina kontuan hartu behar dugu baratzeetan edukitzen ditugun patatak, tomateak, porruak... ez direla, berez, hemengoak. Exotikoak ziren bere garaian".

Tailerrean, *physalisa,* Zeelanda Berriko espinaka, *cornichon* pepinoa, kakahuetea, meloia, sandia eta *lufa* izeneko kalabaza nabarmendu zituen, besteak beste. Horiek guztiak orain landa daitezke, eta emaitza onak ematen dituztela esan zuen.

Tailerra egiten, martitzenean, Elgetako baratze parkean. L.Z.L.

'Physalisa' eta espinaka

Physalisa bola laranja bat da, berriki postreak egiteko erabiltzen dena. "Oso goxoa da. Orain landatzen da eta irailean hasten da ematen, eta ematen hasten denean asko ematen du".

Espinaka, hemen, negukoa da, baina Zeelanda Berriko espinaka orain landatzen da. "Hilabete eta erdiko epean hasten da ematen, eta ez du batere lanik. Oso landare txikia landatzen da, baina metro bateko diametroa hartzen du".

Pepinoa eta kakahuetea

Cornichon delako pepinoa oso txikia da; igokaria, sarea ipintzen badiogu. "Balio du ozpinetan jartzeko edo baratzean ari garela gosetzen bagara zuzenean landaretik jateko. Goxoa da".

Kakahuetea ere hazten da gurean. "Gutxik dakiguna da lur azpitik ateratzen dela. Ez dugu sekulako produkzioa lortuko, baina landare bakoitzak eskukada bat emango digu irailean edo urrian, orain landatzen badugu".

LANDARE HORIEN EZAUGARRIAK GERO ETA HOBETO EZAGUTZEN DIRA, ETA ERRAZ LOR DAITEZKE

Meloia, sandia eta 'lufa'

Txikiak, akaso, baina meloia eta sandia ere ateratzen dira. *"Lufa,* berriz, kalabaza bat da, eta, heltzen eta sikatzen uzten badugu, dutxarako esponja natural bat lortuko dugu", azaldu du Otegik.

"Probatzea da hemen kontua"

AITZIBER OTEGI
KIMU BAT ENPRESA

L.Z.L.

Landatzeko ohiturarik ez izan arren, hainbat landarek gurean erraz ematen dutela dio Otegik.

Zergatik ez ditugu landare horiek landatzen?

Ezagutzen ez ditugulako, baina nahiko erraz ateratzen dira hemen. Batzuek, gainera, landatzen ditugun zenbait landarek baino errazago ematen dute. Esaterako, boniatoa. Patataren oso antzerakoa da, eta, patataren aldean, batere lanik ematen ez duena. Jendea, pixkanaka, hasi da landatzen, baina gutxi oraindik.

Antzerako tailerrek badute eraginik?

Egia esan, bai. Normalean, zerbait berria denean kosta egiten zaigu aldatzea, baina probatzea da hemen kontua. Tailerrotan landare batzuk ere oparitzen ditugu, eta jendea badabil animatzen. Orain, antzerako landareen eskaera gero eta handiagoa da.

Iñaki Olaortua, pozik, Racing-en egindako denboraldiarekin

Bigarren mailako jokalaria izateko aukera du elgetarrak, baina umiltasunez dio irabazi egin behar duela postua

L.Z.L. ELGETA

Santanderko Racing Bigarren Mailako taldea izango da hurrengo denboraldian, eta, igoera lortuta, pozik dira. Pozik da, baita ere, Iñaki Olaortua elgetarra. Bi urteko kontratua sinatuta iritsi zen taldera, uztailean, eta B mailako jokalaria izateko aukera du orain. "Postua irabazi egin behar dut oraindik. Taldea fitxaketa berriak egiten hasiko da, eta ikusiko dugu zer gertatzen den", azaldu du.

Iñaki Olaortua elgetarra. RACING CLUB

Olaortua gustura dago egindako denboraldiarekin. "Ahaleginak merezi izan du, baina ez da erraza izan. Denboraldi hasiera eta amaiera izan dira bereziki gogorrak. Hasiera, jokatzeko aukera gutxi izan nuelako; eta amaiera, nekea sumatu dugulako, orokorrean, guztiok".

Racing taldeko jokalariek pare bat egun izan dituzte ospakizunetarako, eta eguaztenean ekin zioten berriz entrenatzeari.

Elgetatik jasotako animo-mezuak asko izan direla esan du Olaortuak. "Mezu pila jaso ditut. Domekako partiduaren aurretik ere jaso nituen, eta benetan eskertzen ditut denak".

Zapatuan bisita gidatua Arantzetako baselizak ezagutzeko

Ezkutuko altxorrak egitasmoaren barruan, Arantzeta auzoko baselizak ezagutzeko bisita gidatua egiteko aukera izango da bihar, zapatua. Nerea Villak gidatuko du bisita, eta taldea 10:00etan abiatuko da Elgetako plazatik.

Hiru bat orduko ibilbidea izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Ibilbide horretan, Uriarteko Ama, Santutxoa, San Adrian, San Martin eta San Blas baselizak ezagutzeko aukera izango da. "Baseliza horiek barrutik ikusteko aukera izango dugu, eta lotuko ditugu Santiago bidearekin. Arantzetako baselizetan Santiago bidearekin lotutako santu garrantzitsuak daudela konturatuko gara", azaldu du Villak. Bisita gidatua doan da, baina komeni da izena ematea. Interesatuek *turismo@debagoiena.eus* helbidera idatzi behar dute, edo 943 79 64 63 telefonora deitu.

Erretiratuek irteera antolatu dute ekainaren 19rako

Bizkai aldera egingo dute egun osoko txangoa. Gallartako Meatzaritzaren Museoa ikusiko dute, eta ondoren, Zugastietako Maite jatetxean bazkalduko dute. Domekan eman behar da izena, 11:00etatik 13:00etara, Ozkarbi elkartean. Prezioa 30 euro da. Urteko kuota ordaintzeko eguna ere izango da domeka. Kuota hamar euro da.

OHARRAK

Autobusak Bergarara

Gaur eta bihar gaueko zerbitzua izango da, jaiengatik.

Ipuinen Ordua

Boluntario taldearen eskutik hiru saio gaur, liburutegian, 17:00etan hasita.

Podologoa

Ekaineko kontsulta hilaren 20an izango da. Txanda hartzeko: 943 76 80 77 (Nati).

Bi elgetar daude herriko eguneko zentroan

Eguneko zentroak zazpi erabiltzailerentzako gaitasuna du, eta, beteta badago ere, bi dira Elgetakoak. Hala, zerbitzua zabalik mantentzeko beharrezkoak dira inguruko erabiltzaileak. Arduradunak zerbitzua herrian ezagutzera ematen ahaleginduko dira

Maialen Regueiro ELGETA

Elgetako eguneko zentroak zazpi erabiltzailerentzako tokia du. Gaur egun, beteta dago, baina zazpitik bi dira Elgetakoak. Hala, zerbitzua mantentzeko ezinbestekoa da inguruko herrietako erabiltzaileak izatea. Zentroko arduradun Beatriz Guelbenzuk, gainera, honako hau adierazi du: "Ekintza batzuk egingo ditugu eguneko zentroa ezagutzera emateko; ate irekiak eta eskuorriak, besteak beste".

Elgetako eguneko zentroko erabiltzaileak. LARRAITZ ZEBERIO

Tutoretzapeko etxebizitza

Elgetako eguneko zentroak bere baitan dauka tutoretzapeko etxebizitzaren ardura, eta gaur egun hutsik dago. Etxebizitza horrek hiru logela ditu, eta, beraz, hiru herritarrentzako tokia egongo litzateke bertan. Kasu honetan, egoera berezia da, herritar bat tutoretzapeko etxebizitza horren erabiltzaile izateko pertsona horrek autonomoa dela erakutsi beharko duelako.

Mendekotasuna dutenentzat

Eguneko zentroa mendekotasuna duten pertsonei zuzenduta dago. Hala, Guelbezuk honako hau adierazi du: "Pertsona batek duen mendekotasun maila gizarte zerbitzuetako langileek aztertzen dute, eta, horren arabera, pertsona horri bideratutako neurriak zeintzuk diren zehazten da". Dependentzia fisikoa edota kognitiboa izan daiteke; beraz, eguneko zentroak behar horiei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen ditu.

EGUNEKO ZENTROAK ZAZPI PERTSONA HARTZEKO GAITASUNA DU; GAUR EGUN, BI DIRA ELGETAKOAK

Eguneko zentroko zerbitzuak

Zentro horrek astean zeharreko zerbitzua eskaintzen du. Berezko garraioa du eta furgoneta bati esker, goizean, erabiltzaile guztiak jasotzen dira zentrora eramateko. Arratsaldean, berriz, egun osoa zentroan igaro ostean, furgoneta berean joanda erabiltzaile bakoitza bere etxean uzten dute. Hilean behin, erabiltzaileek txakurterapia jasotzen dute Donostiako enpresa baten bitartez. Zentroak sukalde propioa du eta bertan egindako jana jaten dute.

Gustura etortzen zara zentrora?

JUAN KRUZ OTXOA
ERABILTZAILEA

"Oso pozik eta gustura etortzen naiz eguneko zentrora. Izan ere, margotzeko, kartetan jokatzeko eta lagunekin egoteko aukera izaten dut eta asko ikasten dut. Hemengo langileek, gainera, oso ondo zaintzen gaituzte".

LUISA TRAPAGA
ERABILTZAILEA

"Hemen oso ondo zaintzen gaituzte, eta oso gustura etortzen naiz. Margotu egiten dugu, karta jokoan ere egiten dugu... Bazkaria eta askaria ere denok batera egiten dugu. Etxean egotea baino nahiago dut hona etortzea. Denbora azkar joaten da hemen".

Beatriz Guelbenzu. L.Z.

"Gure lana erabiltzaileak zaintzea da"

Zein da pertsona helduak eguneko zentrora ez eramatearen arrazoia?

Herri txikietan oraindik familiei kosta egiten zaie horrelako erabakiak hartzea. Zentzu horretan, familiek argi izan behar dute eguneko zentroen helburua pertsona helduak zaintzea dela. Are gehiago, gaixotasun zehatz batzuk dituzten herritarrei ondo datorkie horrelako errutina batzuetan sartzea. Familientzat ere positiboa da eguneko zentroen existentzia, liberazio eta atsedenaldi gisa. Hala ere, familia batzuetan oraindik oso barneratuta dago helduek etxean egon behar dutela, baina ahaztu egiten zaie horrek ez duela esan nahi pertsona hori ondo zaindua egongo denik.

Atxorrotxera mendi-irteera

Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta, irteera egin zuten domekan, Atxorrotxera. Giro ederrarekin abiatu ziren Leintz Gatzagatik eta Eskoriatzako Atxorrotxerainoko bidea egin zuten.

Atxorrotx puntara iritsi, eta Erdi Aroko gazteluaren aztarnak eta bertan dagoen ermita ikusi zuten. Ondoren, Leintz Gatzagako Gatz Museoan izan ziren bisitan.

KANTSATZEKE MENDI TALDEA

Salgai daude Beheko kaleko jaietako afariko txartelak

Beheko kaleko jaietako afaria ekainaren 14an izango da eta txartelak dagoeneko salgai daude. Ume eta gaztetxoen afariko menua solomoa patatekin eta izozkia izango da eta txartelak sei eurotan daude. Helduek, berriz, errusiar entsalada langostinoekin, oilaskoa labean, flana eta kafea izango dute eta txartelak hamalau eurotan daude.

Uztaileko udalekuetan izena emateko azken eguna, ekainaren 14a

Udalekuak ekainaren 24tik uztailaren 24ra bitartean izango dira eta 2 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta daude. Ekainaren 14a izango da izena emateko azken eguna. Prezioak hauek dira: aste bat 40 euro, bi aste 60 euro, hiru aste 75 euro, lau aste 90 euro eta hilabete guztia 100 euro. Izena *www.elgeta.eus* atarian eman daiteke.

"Aldagelak egin arte lanean jarraituko dut"

IBON GEZALAGA AKE-KO PRESIDENTEA

Hiru urte daramatza AKEko zuzendaritzan Ibon Gezalagak. Presidente gisa bi urte bete ditu eta beste urtebete egiteko gogotsu dagoela aurreratu dio GOIENAri

Maide Arregi ANTZUOLA

Ibon Gezalagak AKEko presidente karguan jarraituko duela aurreratu du. Izan ere, Eztalako aldagelak eginda utzi gura dituela azpimarratu du.

Zein balorazio egiten duzu?

Urtea ondo joan da. Esan, baina, jokalariei dagokienez preferente eta gazte mailetan justu samar ibili garela. Ez, ordea, kadete eta infantil mailetan. Preferenteei dagokienez, iaz baino lasaiago ibili garela aitortu beharra daukat. Denboraldia amaitzeko sei partidu falta zirela mailari eustea bermatua geneukan. Gainontzeko taldeek, gainera, kopa jokatu dute.

Futbol eskolaren ereduarekin gustura zaudete. Asmatu duzue.

Antzuolako klubaren filosofia ez da irabaztera joatea itsu-itsuan, ondo pasatzea eta kirolaz gozatze baizik. Aurten, 73 gaztetxok parte hartu dute futbol eskolan.

Entrenatzaile berria du lehen taldeak.

Bai, Iker Epelde azkoitiarra. Oso pozik gaude. Iaz, gazteen entrenatzailea izan zen, eta adostua geneukan aurten preferente mailakoena izango zela. Aurten, gainera, infantil txiki –11-12 urte– kategoria aterako dugu, haur asko daudelako. Talde mistoak izango dira, ziurrenez. Futbol eskola ere halaxe da; izan ere, futbola gustatzen zaien neska asko daude Antzuolan.

Ibon Gezalaga, AKEko presidentea. MAIDER ARREGI

"INFANTIL TXIKI KATEGORIA ATERAKO DUGU DENBORALDI BERRIRAKO; MISTOAK IZANGO DIRA"

Eztalako aldagela berriak ere lortu dituzue Udalarekin elkarlanean.

Kosta da, baina aurrera doa. Lanak hasten direnerako beste aldagela aurrefabrikatu batzuk lortu ditugu. Izan ere, gure asmoa da Eztalan jarraitzea. Inguruko herrietako azpiegiturek ezin dutela bi klub jaso aztertu dugu. Talde asko mobilizatu beharko genituzke; baita txikienak ere.

Lau aldagela izango dituzue.

Bai; partidu asko jokatzen dira eta ordutegi malguagoa edukitzeko jokoa emango liguke lau aldagela izateak. Gure proposamena da aldagelak tokiz aldatzea eta taberna dagoen tokian jartzea. Horregatik, gai hau bukatutzat eman arte zuzendaritzan lanean jarraitu gura dut.

Aurten ere Antzuola, gorri-gorri

Klubeko zuzendaritzak orain dela hiru urte hartu zuen AKE Eguna herrira zabaltzeko erabakia. Eta asmatu dute. 330 lagun batu ziren pilotalekuan bazkariaz gozatzeko. Kontuan izan behar da gaur egun 155 jokalari dituela AKEk, eta, hain zuzen ere, kopuru hori bikoiztu egin zela AKE Eguneko ospakizunean. Antzuola gorriz jantzi dute aurten ere.

Gaztetxoenek ere festarekin bat egin zuten. IMANOL SORIANO

GOIENA

Ekainean irekiko dute ur parkea

Bainu denboraldia hasi berri da bailarako hainbat herritan. Antzuolan ekainaren erdi aldera irekiko dutela haurren ur jolas parkea adierazi du Udaleko Hirigintza teknikari Valen Moñuxek. "Ez da egokitzapen obrarik egingo. Instalazioan, hobekuntza teknikoak soilik egingo dira estolderia uren instalazioa hobetzeko", argitu du Moñuxek.

Fusilariak behar ditu Antzuolako Mairuaren Alardeak

Uztailaren 20an ospatuko da aurtengo Mairuaren Alardea. Elkarteko kideek adierazi dute jendea behar dela, eta, bereziki, fusilariak. Interesa dutenek ekainaren 14ra arte dute izena emateko. Udalera jo dezakete, edo mezua bidali *kultura@antzuola.eus* helbidera. 943 76 62 46 telefono zenbakira ere deitu daiteke, izena eta telefonoa emanda.

'Gara' egunkariaren egoeraren berri emateko hitzaldia

Gara egunkariaren egoeraren berri emango du Mikel Zubimendi *Gara*-ko kazetari bergararrak. Bertan, egoera horren jatorria eta etorkizuna bermatzeko planak azalduko ditu; eta abian jarri duten *Harpidetu etorkizunera* kanpainaz ere jardungo du Zubimendik. Hitzaldia ekainaren 13an, 18:30ean, Olarango aretoan izango da.

ANTZUOLAKO PENTSIODUNAK

Pentsio duinak aldarrikatzen

Antzuolako erretiratu eta pentsiodunek, astelehenero bezala, elkarretaratzea egin dute asteon ere. 35 lagun inguru batu dira pentsio duinak eta erretiratuen eskubideak aldarrikatzeko asmoz. Astelehenero ez dute hutsik egiten eta eguerdiko hamabietan batzen dira Herriko Plazan, udaletxe aurrean. Herritar guztiei egiten diete elkarretaratzera joateko deia.

Martitzen arratsaldean Olaranen batu ziren herritarrak mikromatxismoaz jarduteko. MAIDER ARREGI

Ikustea oso zaila den indarkeria matxistaz

Egunerokoan eta modu oso sotilean azaltzen dira mikromatxismoaren zantzuak. Jendarte eredu matxista batek ezarriak direla dio Emagin elkarteko Aiora Epeldek. Genero eraikuntzaren esparruan oraindik ere asko egiteko dagoela dio

Maider Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udaleko Gizarte Sailak antolatuta, mikromatxismoaren gaineko solasaldi irekia egin zuten martitzenean. Herritar ugari gerturatu zen egun kulturalki horren barneratuta dauden mikromatxismo jarreren gainean hausnartzera.

Alaitz Igartzabalek, jarduneko Gizarte Ongizate zinegotziak, esan zuen egunero dela Martxoaren 8a: "Matxismoaz urte guztian zehar berba egin beharra dago. Egunero egin behar zaio aurre matxismoari".

Emagin ikerkuntza eta formakuntza feminista elkarteko kide Aiora Epeldek eman zuen solasaldia. Baina zer da mikromatxismoa? "Indarkeria mota oso sotila da. Ikustea asko kostatzen den indarkeria mota bat da. Azken finean, emakumea gutxietsi eta diskriminatzen duen indarkeria isila. Izate konkretu batekin lotzen den indarkeria sotila da mikromatxismoa". Genero eraikuntzarako, mikromatxismoa ezinbestean albo batera utzi beharra dagoela azpimarratu zuen Epeldek: "Benetan eskubide berdintasunean oinarritutako jendarte eredua behar baldin badugu, pertsona orok izan beharko du nahi den hori eta nahi duen elementuekin. Eraikitzeko eskubide eta libertate osoa izan beharra dauka".

Baina norberaren identitatea askatasun osoz aukeratzea gaur egun oso zaila dela dio Emagin elkarteko kide Aiora Epeldek: "Eraikitzeko eskubide eta askatasun hori gaur egun ez dela existitzen ikusten dugu. Genero maskulinoa eta genero femeninoa horren ezarria eta naturalizatua duen jendarte eredu baten baitan ezinezkoa da-eta nork bere identitatea askatasun osoz eratzea. Izan ere, genero bakoitzak oso ezarriak ditu bere ezaugarriak".

"MIKROMATXISMOA IDENTIFIKATZEA OSO ZAILA DA, AZALEAN TXERTATUA DAUKAGULAKO"

Non azaleratzen da?

Aipatu bezala, mikromatxismoa oso sotila da eta eguneroko kontuetan oso barneratuta dago. Epeldek zenbait adibide jarri zituen mikromatxismo zantzu horiek identifikatzen laguntzeko: "Neska bat eta mutil bat taberna batetara sartu eta garagardoa eta kafea eskatzen badute, zuzenean garagardoa gizonezkoari aterako diote eta kafea emakumeari. Baina zergatik? Garagardoa bai emakumeek eta baita gizonezkoak edan dezakete. Gizartean, gure imajinario kolektiboan ezarria dago alkohola gizonezkoendako gehiago dela. Etxeko kontuetara joanda, zenbat aldiz entzun behar izaten dugu emakumeok etxeko lanetan lagundu egiten digutela. Mikromatxismoa identifikatzea zaila da, oso barneratua dugulako".

NIRE USTEZ

AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

Ez dadila argia itzali

Badira munduan hamaika zirku. Badira kolore ezberdinetako ehunka karpa. Badira ikuskizun anitzak dituzten milaka emanaldi. Ez dago, ordea, Gure Zirkua bezalakorik.

Ilusioa. Piztu ilusioa. Karpa barrura sartzearekin aski da irribarre bat ahoan marrazteko. Badira fokuak, bada musika, badira ikusleak, bada gogoa. Ederra da bertan egiten dutena; ezbairik gabe, magia da hura.

Emozioa. Bizi emozioa. Ikuskizuna hastearekin bat aski da emozio uholde bat sentitzeko. Badira irriak, bada negarra, badira beldurrak, bada urduritasuna. Ederra da bertako kideek egiten dutena; ezbairik gabe, magia da hura.

Auzolana. Egin auzolana. Antolatzeko era ikustearekin bat aski da atzean dagoena identifikatzeko. Badira boluntarioak, bada elkarlana, badira besarkadak, bada laguntasuna. Ederra da egin dutena plazaratzea; ezbairik gabe, magia da hura.

Jarrai dezala horrela. Ez dadila zirkuaren argia itzali. Segi ameslari!

ANTZUOLAKO HERRI ESKOLA

Zaporeak ekimenarekin bat

LHko 5. mailako ikasleek bat egin dute Zaporeak ekimenarekin eta janari bilketa jarri dute martxan. Lesbosko esperientziaz eta errefuxiatuek bizi duten egoeraz jardun zuten boluntario lanetan ibili den Xabi Gezalagarekin. Ekainaren 14ra arte, makarroiak, dilistak, arroz luzea, sardina eta atun latak, oliba-olioa, currya... jasoko dituzte eskolako sarreran.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Trauti elkarteko kideak kartelak jartzen minusbaliatuendako gordeta dagoen aparkaleku batean. SANTI MENDIOLA

Elbarriendako dauden aparkalekuen defentsan

'Jarri bere azalean, ez bere aparkalekuan' esaldia duten kartelak jarriko ditu Trauti elkarteak bihar herriguneko hainbat tokitan, "aparkaleku horiek zentzuz eta errespetuz erabiltzeko" mezua herritarren artean zabaltzeko asmoz

Oihana Elortza OÑATI

Elbarriendako aparkalekuak elbarriendako uzteko mezua zabaldu gura du Trautik elkarteak bihar egingo duen ospakizun ekitaldian. "Enkargu bat edo beste egiteko minusbaliatuendako gordeta dauden aparkalekuak erabiltzen dituzte hainbatetan gidariek, horien beharrik ez eduki arren. Aparkaleku horiek erabiltzea baimentzen duten txartelak ez dira luxu bat, beharragatik da. Eta mezu hori zabaldu gura dugu bihar egingo dugun Trauti egunean: *Jarri bere azalean, ez bere aparkalekuan*", dio elkarteko kide Lukene Igartuak.

Bi minuturako

Igartuak aitortzen du gidari askok zentzuz eta errespetuz erabiltzen dituztela aparkaleku horiek, baina badirela beharrik ez izan arren erabiltzen dituztenak ere. "Adibidez, kutxazainera dirua ateratzeko, bi minutuan egiten den kontua dela pentsatuta, elbarriendako diren aparkaleku batean uzten dute ibilgailua. Handik gutxira, aparkaleku horren beharra duen herritarra aparkatzera joan eta ezin, okupatuta dagoelako. Gertatu dira horrelakoak", dio.

Batzuetan, txartelaren erabilera okerrak egiten direla ere adierazi du Igartuak: "Senide batek beharra duelako eskatu bai, baina gero norberak ere erabiltzea baita senide hori garraiatzen ez duen bidaietan ere".

Kontzientziatu

Igartuak dio mezu hori herritarrengana heltzea gura dutela, jendeak kontzientzia izatea aparkaleku horiek ondo erabiltzeko eta libre uzteko benetan beharra duenak erabil dezan. Horretarako, *Jarri bere azalean, ez bere aparkalekuan* esaldia duten kartelak jarriko dituzte herrigunean elbarriendako gordeta dauden hainbat aparkalekutan.

ELBARRIEN TOKIAN APARKATZEKO TXARTELA EDUKITZEA EZ DELA LUXUA ESAN GURA DUTE

Ekintza horrekin hasiko dute biharko Trauti eguna. Goizetik egongo dira Foruen plazan elkarteko kideak. "Ibilgailu bat ekarriko dugu ikusteko nola moldatu eta egokitu daitekeen gidatzeko behar bereziak dituen pertsona batek arazorik gabe edo ahalik eta erraztasun guztiekin gidatu dezan", aurreratu du Lukene Igartuak. Irrintzi Adaptaciones auto konponketa tailerrekoa izango da eramango duten ibilgailua. Horrez gain, itsuek ibiltzeko dituzten zailtasunak ezagutzeko, sokekin egindako ibilbideak prestatuko dituzte, begiak estalita eta bastoiekin egiteko. Gurpil aulkiarekin ere egin ahal izango dira, euren zailtasunak zeintzuk diren ikusteko.

165 lagun izango dira erretiratuen bazkarian etzi, domeka

Domekan hasiko da Pake Leku elkarteak antolatutako Jubilatuen Astea. Normalean, bazkariarekin eta omenaldiarekin bukatzen dute aste hori, baina, hilaren 16an kiroldegiko kantxa okupatuta egongo denez, erabaki dute ekitaldi horrek ematea hasiera aurtengo Jubilatuen Asteari. 165 lagunek eman dute izena bazkarira joateko.

Bazkariaren aurretik, 13:00etan, urteroko omenaldia egingo diete bazkide zaharrenei. 60ko hamarkadan Extremaduratik Oñatira etorritako Daniel Martin (90 urte) eta Manuela Granado (89 urte) senar-emazteak izango dira aurtengo omenduak. Dantzaldiarekin bukatuko dute domekako ekitaldia.

Datorren asterako, eutanasiari buruzko hitzaldia, musika kontzertua, ibilaldia eta bingo berezia dituzte antolatuta, besteak beste.

Gure Esku-ren bozeramileak datoz Oñatira eguaztenean

Gure Esku ekimeneko bozeramaile berriak, Amalur Alvarez eta Josu Etxaburu, datoz Oñatira datorren astean. Ekainaren 12an egingo dute aro berriaren aurkezpena, kultura etxean, 19:00etan, Oñatiko Gure Esku taldeak antolatuta.

Debagoienan egingo duten lehen aurkezpena izango da Oñatikoa.

Egin dezagun posible mezua duen aro berrian sartu da Gure Esku dinamika eta horri buruz jardungo dute bi bozeramaileek. "Sei urtetan ikasitakoa praktikara eramateko sasoia da, aldarrikapenetik gauzatzerako prozesua da hau", azaldu zuen Alvarezek Goiena telebistan pasa den apirilean, aro berriaren aurkezpena Donostian egin eta gutxira. Aro berri honetan herri ekimen bat martxan jarri gura dutela adierazi zuen bozeramaile donostiarrak.

Zazpietan botako dute etxafuegoa Olakuan jaiak hasteko

Olakua auzoko jaiak dira asteburu honetan. 19:00etan botako dute etxafuegoa gaur eta kalejira egingo dute segidan txorimalo eta erraldoiekin. Gauean, Governors, Txapelpunk, Txerrikumiak eta Lee-Kore taldeek joko dute. Domekara bitartean, jolasak, bazkaria, dantza ikuskizunak, bertso saioa eta herri kirolak ere egongo dira.

Usakoko bainu denboraldia zapatuan zabalduko dute

Bihar, zapatua, zabalduko dute bainu denboraldia Usakon. Hala, irailaren 8ra bitartean, sorosle zerbitzua egongo da arratsaldero, 15:00etatik 20:00etara. Urtero egiten duten moduan, aurten ere urpekariak egon dira urtean zehar urak ekarritako zikinkeriak putzutik ateratzen. Eguen arratsaldean, atzo, egin zuten lan hori urpekariek.

'Galapote'-rako sarrerak salgai jarri ditu Irazan-ek

Galapote izeneko ikuskizuna egingo du Irazan antzerkiguneak ekainaren 15ean, eta sarrerak salgai jarri ditu dagoeneko Txokolateixian, bost eurotan. *Playback* gala bat prestatu dute, lehiaketa formatuan. Taldeka lehiatuko dira parte-hartzaileak, nor *playback* onena egin. Galan sorpresak eta pintxoak egongo direla aurreratu dute.

Postetxeko autobus geltokia tokiz aldatuko dute

Ekainaren 11atik 27ra bitartean postetxeko autobus geltokian obrak egin behar dituzte, eta geltokia metro batzuk aurrerago eramango dute. Obra horiek iraun bitartean, geltokia Cegasa enpresa aurrean dagoen biribilgunearen ondoan egongo da. Egungoa baino metro batzuk aurrerago egongo da behin behiko autobus geltokia.

1.600 euro banatuko ditu Txandak erosleen artean

Ekainean eta uztailean herriko dendari elkarteko komertzioetan erosketak egiten dituzten herritarren artean 1.600 euro banatuko ditu Txandak. 400 euroko lau erosketa-txartel zozkatuko ditu, bi ekainean eta beste bi uztailean

Bi lagun Txandako produktuei begira. GOIENA

Oihana Elortza OÑATI

Bezeroek herriko merkatariengan jartzen duten konfiantza eskertzeko, beste zozketa bat antolatu du dendarien elkarteak, Txandak. Udako Zozketa izena jarri dio eta ekaineko eta uztaileko erosleen artean banatuko du. 1.600 euroko dirusaria da, 400 euroko lau erosketa-txarteletan banatuta.

Txartela bete

Ekainaren 1etik uztailaren 31ra bitartean Oñatin erosteak saria izan dezake. Izan ere, Txandak 1.600 euro oparituko ditu komertzioetako bezeroen artean; hau da, 400 euroko lau erosketa-txartel. Horietako bi ekainean erosketak egindako bezeroen artean zozkatuko dituzte eta beste biak, uztailekoen artean.

Bi hilabete horietan Txandako komertzioren batean erosketa bat egiterakoan, norberaren datuak jarri behar dira erosketa-txartelean. Ordainagiriaren atzean idatzi behar dira norberaren datu horiek: izena, bi abizen eta kontakturako telefono zenbaki bat. Paper hori zozketarako kutxan sartu besterik ez da egin behar zozketan parte hartzeko. Ondoren, hilabetearen bukaeran zozketa egingo dute Txandako ordezkariek eta hilabeteko bi irabazleei telefonoz deituko diete, saria noiz eta non jaso behar duten jakinarazteko.

Oñatiko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren laguntzarekin antolatu du Udako Zozketa Txandak.

Kide izateko

Oñatin establezimendu bat eduki edo zabaldu eta Txandako kide izan gura edo edozein ekimenetan parte hartu gura duen herritarrari, elkartera batzeko gonbidapena egin gura dio herriko dendarien elkarteak. *Txanda.oinati@hotmail.com* da elkartearen helbidea.

NIRE USTEZ

ONEKA ANDUAGA

Lasterketa

Imajinazio ariketa batekin nator gaurkoan. Pentsa momentu batez lasterketa batean izena eman duzula. 2 ordu baino gutxiagoan gainditu beharreko proba gogorra da, baina bi urte dituzu karrera ondo gertatzeko.

Egiari zor, lehenengo urtean ez duzu zure ehuneko ehuna eman, baina entrenatzaileek jarritako proba guztiak gainditu dituzu. Azkenean, iritsi da lasterketa eguna eta zure onena eman duzu; baina, nerbioak direla edo presioa dela, ez duzu lortu jarritako marka gainditzea. Hurrengo ediziora arte itxaron behar…

Amorrua ematen du, ezta? Ba, orain imajinatu lasterketa hori selektibitatea dela. Zoritxarrez, ez nabil horren urruti. Bestela, galdetu aste honetan Eibartik bueltaka ibili diren estresatu horiei.

Gaur egun, batxilergoko urteetan gogor lan eginda ere, hiru eguneko azterketa-maratoiak guztiz baldintzatu dezake etorkizuna. Agian, hortxe dago arazoa: hezkuntza lasterketa –eta azterketa– bezala ulertzean.

Bost urteren ostean, bueltan da raid proba

Ekainaren 15ean eta 16an jokatuko da Oñatiko III. raid proba eta Oñatiko Raid Orientazio Elkarteak asteburu osorako egitaraua osatu du. Bikoteka hartuko da parte eta ekainaren 12a izango da proba horretan izena emateko azken eguna

Maialen Regueiro OÑATI

2014a ezkero bost urte igaro dira, eta bueltan da Oñatiko Raid Orientazio Elkarteak (OROE) antolatutako Oñatiko III. raid proba, ekainaren 15ean eta 16an jokatuko dena. Hala, OROE elkarteko kideak buru-belarri aritu dira azken hilabeteetan probako xehetasunak lotzen eta parte hartzaileek osotasunean gozatu dezaten.

2013ko Oñatiko raid proba. IÑAKI LEGARISTI

Raid probak

Raid probek orientazioa izaten dute oinarri, baina kirol-modalitate ezberdinak lantzen dira; mendiko bizikleta, korrika eta eskalada, besteak beste. Normalean, natur inguruetan antolatzen dira eta iraupen ezberdina izan dezakete: zazpi ordu, egun osoa, bi egun... Proba hauetako ezaugarri garrantzitsu bat da zehaztu gabeko ibilbidea dutela. Izan ere, bikote bakoitzak mapa bat jasotzen du probaren hasieran eta estrategia bat eraman behar dute aurrera, ibilbideko kontrolpuntu gehien bisitatzeko. Probako irabazlea denbora gutxienean puntu gehien eskuratzen dituen bikotea izango da.

Oñatiko proba

Hurrengo asteburukoa Ipar Ligako Abentura Raiden 2019ko ligako hirugarren proba izango da eta bi egunetan jokatuko da: zapatuan zortzi ordu eta domekan bost. Elkarteko kide Joseba Lopezek honako hau azpimarratu du: "Zapatutik domekarako gaua neutralizatua izango da eta parte hartzaileek zoru gogorrean egingo dute lo. Domekan, probarekin jarraitu aurretik, gosaltzeko aukera izango dute". Hala, OROE elkarteak asteburu osoko egitaraua osatu du.

Zapatuan, 10:00etatik 12:00etara bitartean egingo diete harrera parte-hartzaileei, Enpresagintza Fakultatean, eta horien materiala jasoko dute. 13:00etan, harreragunean autobusa hartu eta irteera puntura joango dira. Honen harira, Lopezek hauxe adierazi du: "Egitarauan ez dugu zehaztu zein izango den irteera puntua, informazio hori bizpahiru egun lehenago adieraziko dugulako". Proba hasi aurretik parte-hartzaileek azalpen teknikoak jasoko dituzte. 15:00etatik 23:00etara bitartean izango dute probaren lehenengo zatia egiteko denbora. Behin zortzi orduko jarduna amaituta, eta afari gisa, salda eta pasta jateko aukera izango dute.

Domekan, probako bigarren zatiari hasiera eman aurretik, azalpen teknikoak emango dituzte eta 08:00etatik 13:00ak bitartean egin beharko dute bigarren zatia. 14:00etan, bazkaria egingo dute Berdura plazan eta ondoren, sari banaketaren eta material zozketaren txanda izango da.

Probako egun bakoitza lau sekziotan banatuta egongo da. Zapatuan, *bike & run,* trekkinga, BTT, orientazio espezifikoa eta proba berezia. Domekan berriz, BTT, trekkinga, proba berezia eta herri orientazioa.

Beharrezko materiala

Antolakuntzatik probako parte-hartzaileek izan beharko duten materialaren berri eman dute. Hala, bikoteek botikina, mugikorra, iparrorratza eta mapa eramateko funda bat izan beharko dituzte. Raider bakoitzak, berriz, mendiko bizikleta, kantinplora, haizearen aurkako arropak, motxila, bizikletarako materiala, manta termikoa, frontala eta txilibitua izan beharko ditu. Honen harira, aipatu behar da walkie-talkie gisako komunikazio-ekipoak eta nabigazio sistema elektronikoak debekatuta daudela.

Izen-ematea zabalik dago

Proba honetan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago eta ekainaren 12a izango da azken eguna. Horretarako, izen-emate inprimakia bete behar da eta bikote bakoitzak 150 euro ordaindu beharko ditu. Ordainketako ziurtagiria *onatiraid@gmail.com* helbidera bidali beharko da.

Joseba Lopez.

"Gakoa estrategia on batean dago"

Nola hasi zinen raid-etan parte hartzen?
Kirola egitea beti izan dut gustuko, baina inoiz ez dut nahi izan bereziki kirol batean aritu. Aitor Otamendi bizilaguna dut eta bera horrelako probetan parte hartzen hasi zenean eta berak izandako esperientziak kontuan hartuta, probatzeko erabakia hartu nuen. Izan ere, abentura hauetan kirol ezberdinak lantzen dira, korrika, bizikleta eta igeriketa, besteak beste, eta horregatik dut gustuko.

Estrategia faktore garrantzitsua al da raid batean?
Korrika edo bizikletan oso ona izan zaitezke, baina estrategia txarra bada, ez dut uste proba ona egiteko aukerarik dagoenik.

Udako ekintzetan izena emateko tokia dago oraindik

Udako ekintzetako lehen –ekainaren 24tik uztailaren 5era bitartean– eta bigarren –uztailaren 8tik 19ra bitartean– txandetan oraindik izena emateko tokia dago, Rosa Lasagabaster Kirol teknikariak azaldu duenez. Beraz, txanda horietan izena eman nahi duenak Zubikoan galdetu behar du ea zein taldetan dagoen tokia.

Lehen kadeteko neskak kopako txapeldunak dira

Lehen kadete eta infantil mailetako neskek kopako finaleko partiduak jokatu zituzten, Zubietan. Kadeteak, Astigarragako Mundarro taldea menderaturik (1-0), kopako txapeldunak dira. Infantilen kasuan, berriz, ezin izan zuten Leintz Arizmendi taldearen aurkako norgehiagoka irabazi (3-0) eta kopa gabe gelditu dira.

Lehen Erregionaleko mutilak kopako txapeldunak dira

Iñigo Zubiaren mutilak lehen erregionaleko kopako finala irabaztea lortu zuten Beasainen jokatutako partiduan. Amara Berriren aurka jokatu zuten norgehiagoka eta oñatiarrak izan ziren garaile (3-0). Zubiaren taldea gogotsu zegoen final hau jokatzeko eta kopa irabaztea denboraldia borobiltzeko modurik onena izan da.

Txantxiku sariaren 32. edizioa jokatuko da bihar, Zubikoan

32. Txantxiku sariaren baitan, Bergara, Legazpi, Eibar, Azpeitia eta Azkoitiko benjamin, alebin eta lehen urteko infantil mailetako igerilariak batuko dira bihar, 15:30etik aurrera, Zubikoa igerilekuan. Modu horretan, igerilekua 10:00etatik 13:30etara bitartean egongo da zabalik. Ondoren, pilotalekuan banatuko dituzte.

Herriko pilota txapelketan, guztira, 50 bikote arituko dira

Dagoeneko hasi da herriko pilota txapelketa eta aurten, guztira, 50 bikote arituko dira: 35 gizonezkoetan eta hamabost emakumezkoetan. Aurreko urteko datuekin alderatuz, parte-hartzaileak areagotu egin dira –iaz 39 bikote aritu ziren– eta antolakuntzako kideak pozik daude horrekin. Partiduak ekainean eta uztailean jokatuko dira.

'Humanity at music' ikuskizuna domekan

Arrasateko eta Aretxabaletako agerpen arrakastatsuen ondoren, 'Humanity at music' sinfonia kooperatiboa Oñatin izango da. 60 musikarik eta 100 ahots eta dantzarik hartuko dute parte ikuskizunean; baita Andoni Egaña bertsolariak ere

Amaia Zabala Tolosa OÑATI

Proiektu interkooperatiboa dela azpimarratu dute antolatzaileek; ondorioz, ekitaldia ere askotariko parte-hartzaileen elkarlanaren emaitza izango da.

Ekitaldia San Migel elizan 19:30ean hasiko bada ere, 19:00etan plazatik abiatuko da Andoni Egaña, Iosu Igartuarekin batera, sinfonia kooperatiboa piztuko duen bertso saio labur baina ozenarekin.

San Migel eliza prest izango da Arrasate Musikaleko hirurogei musikarik, Ganbara eta Hots abesbatzen laurogei ahotsek eta Oñatz Taldeko dantzariek eskainiko dituzten zortzi piezez gozatzeko, guztiak Andoni Egañaren bertsoekin aurkezturik.

Humanity at music, sinfonia kooperatiboa ikuskizun musikal bat baino askoz gehiago dela adierazi dute antolatzaileek: "Kooperatibagintza aldarrikatzen duen egitasmo interkooperatiboa da. *Humanity at music* ekainaren 9an iritsiko da Oñatira eta herritarrok harrotasunez egingo diegu kantu historian, orainean eta etorkizunean hazi eta hezi gaituzten balio kooperatiboei".

Sarrerak, 5 eurotan

Sarrerak dagoeneko salgai daude Oñatiko Udalak dituen salmenta puntuetan. Kalean, salmenta plataformetan eta Internet bidez *www.humanityatmusic.com* helbidean, 5 euroren truke. Gainera, domekan bertan, ekitaldia hasi baino 20 minutu lehenago, San Migel elizan eskuratzeko aukera izango da.

Irailaren 14an, Buesa Arenan

Humanity at music, sinfonia kooperatiboa herriz herriko biraren azken helmuga irailaren 14ko ekitaldi erraldoia izango da, Gasteizen, Buesa Arenan; han, 500 pertsonak baino gehiagok parte hartuko dute. Sarrerak berehala izango dira salgai ekimenaren webgunean.

'Enarak' liburua aurkeztuko du Udalak eguenean, ekainak 13

Jerardo Elortza Bilduma liburu sortako bigarren zenbakia aurkeztuko du Udalak datorren eguenean, ekainak 13. *Enarak* du izena lan horrek eta 1960ko eta 1970eko hamarkadetan kanpoko beste herrialde batzuetatik –Andaluzia, Galizia eta Extremadura, adibidez– Oñatira bizitzera etorritako hamaika herritarren testigantzak batzen ditu. Amagoia Gurrutxaga zarauztarrak idatzi du liburua, eta hura egon da herritar horiekin. Egindako elkarrizketetan jasotako testigantzak dira liburuan batu dituenak. Bildumako lehen liburua abenduan aurkeztu zuten, *Jerardo Elortzarekin berbetan*. Bilduman dozena bat liburu inguru argitaratzea aurreikusten dute, guztiak ere Oñatiren historiari lotutakoak.

Enarak liburua osoko bilkuren aretoan aurkeztuko dute hilaren 13an, eguena, 19:00etan. Elkarrizketatuak izan diren herritarrek ere jaso dute gonbidapena aurkezpenera joateko.

Txaro Olalde, erakusketan. O.ELORTZA

Garaguneko kideen lanak ikusgai daude kultura etxean

Adimen urritasuna duten pertsonei arreta okupazionala eskaintzen diete Garagune zentroetan eta zerbitzu horren erabiltzaileek egindako pintura eta eskulan erakusketa da aste honetan zabaldu dutena. Oñatiarren lanak ere badaude tartean, tartean Txaro Olalderenak.

Erakusketa hilaren 16ra arte egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara.



Oihana Kortazar bosgarren postuan helmugaratu zen Zegaman, eta euskaldun onena izan zen. IOSEBA BEREZIBAR

"Irabazteko gai ez naizenean ere korrika jarraitu nahiko nuke"

OIHANA KORTAZAR MENDI LASTERKARIA

Elgetarrak aspaldian barruan zeukan arantza atera zuen domekan, Zegama-Aizkorrin: la bi urtez geldirik egon eta gero, eliteko emakumezkoekin batera lehiatu da

Xabier Urzelai ARRASATE

Urtebete eta bederatzi hilabete egon zen Oihana Kortazar (Elgeta, 1984) korrika egin barik. Orkatilako maleoloan edema antzeman zioten, Tenako bailarako trailean bihurritu bat egin eta gero. 2016ko abuztua zen, eta, errekuperazio prozesu luze baten ondoren, iaz hasi zen ostera ere korrika. Martxotik hona, lasterketa askotan lehiatu da, baina foku mediatikotik urrun dauden probak izan dira. Domekan, mundu mailako erakusleiho handienetako batean erakutsi zuen –eta bere buruari erakutsi zion– berriro ere onenekin batera egon daitekeela.

Esango nuke garaipen askok baino zapore hobea utzi zizula domekako Zegamak. Hala da?

Bai, egia esan, bai. Bosgarren izan nintzen, baina helmugako azken zuzena egiten nire gorputzaren erreakzioa izan zen besoak altxatzea, zerbait irabazi izan banu moduan; kar, kar. Egindako denboraz ahaztu nintzen, baita lortutako postuaz ere. Egun hartan eman nezakeen dena eman nuen, oso pozik amaitu nuen.

Egin zuen beroarekin, zaila zen marka pertsonaletatik gertu ibiltzea.

Lasterketan zehar nahitaez erlojuari begiratzen diozu, erreferentziak buruan izaten ditugulako. Baina, behin podiumeko postuetatik kanpo egonda, ez zidan axola bost minutu gora edo behera egitea. Baina bai, bost ordutik beherako denbora egin nuen, euskaldun onena izan nintzen eta hasieratik izan nituen sentsazio onak.

Lasterketako momentu bat aukeratzekotan, zein?

Ibilbide osoan zehar publikoaren partetik jaso nituen animoekin geratzen naiz. Konturatu nintzen lehen Aizkorrin, Sancti Espiritun edo Andraitzen batzen zela jendetza handiena, baina domekan ibilbideko beste puntu batzuetan ere jende asko zegoen. Horrek esan nahi du lasterketa honetatik kanpo egon naizen bi urte hauetan zale kopuruak gora egin duela.

Sentsazio ederra izan behar du lesioa gaindituta dagoela ikusteak, nahiz eta helmugara gorputz osoa minduta iritsi zineten denak.

Korrika egiten duenak badaki beti izaten dela nonbaiteko mina. Orkatilako lesioa gaindituta daukat, baina beti sortzen dira bestelako lesio txikiak, beti dago zerbait. Baina domekan izugarri gozatu nuen, ez nuen ezer igarri. Orain bai, gorputz osoa daukat minduta; kar, kar. Oso garrantzitsua da pasatu duzunaz jabetzea, eta orain non zauden ikustea. Horrenbeste denbora geldi egon eta gero, gehiago baloratzen da horrelako lasterketa bat egiteko aukera izatea.

Zegama-Aizkorri azterketa zen zuretako? Berriro aurrean egoteko kapaz zinela erakutsi gura zenuen?

Bai. Zaila da azaltzen, baina gauza bat da norberak zer erakutsi gura duen, eta beste bat da jendeak zer espero duen zugandik. Domeka goizean irteera puntuan zeuden neska asko ez nituen ezagutzen, jende gaztea etorri delako. Eta, hilabete hauetan Euskal Herriko hainbat lasterketatan egon naiz, baina ez Zegama-Aizkorriko maila dutenak. Bada, lasterketak irabazita ere beti dago norbait pentsatzen duena maila handirik egon ez delako ibili zarela aurrean, beti egoten dira *baina* horiek... Alde horretatik banuen gogoa halako mailako lasterketa batean lehiatzeko, jakinda emaitza edozein izan zitekeela. Batez ere, nire buruari erakutsi gura nion zertarako kapaz naizen.

Ia bi urtez mendi lasterketen mikromundu horretatik kanpo ibili zara. Zer ikasi, edo ikusi duzu?

Gauza asko ikasten da kanpotik begiratuta. Umiltasunez jokatzen duten kirolariengan jarri dut arreta, isil-isilik lan egiten duten horiengan, horiek dira eredugarri. Umiltasunez eta zaratarik atera barik lan egiteak duen balioa ikusi dut, eta gero, aukera badago lasterketa batean egindakoa erakusteko, bada, erakutsi.

Lesioak balio izan dizu hastapenetara bueltatzeko? Lasterketak gogoaren arabera aukeratzea, kanpora joateari uztea...

Bai; izan ere, min hartu arte, nik ez neukan *Herrikrosa* eta *Kirolprobak* webguneetan ibiltzeko premiarik, eta azken hilabeteotan horrela ibili naiz, Interneten ze lasterketatan parte har nezakeen begira, eta horren arabera familiarekin aste-

"ZEGAMA-AIZKORRI AZTERKETA ZEN NIRETAKO; BATEZ ERE, NON EGON NAITEKEEN IKUSI GURA NUEN"

buruak antolatzen. Lesioaren ondoren, kostatu egiten zitzaidan entrenatzera joatea, motibazioa falta zitzaidan, eta lasterketa horiek baliatu ditut sasoia errekuperatzeko.

Babesleekin izan beharreko konpromisoak ez dira lehengoak modukoak izango; arnasa ematen du horrek?

Bai; lasaiago nabil, duda barik. Orain, Salomoneko enbaxadore naiz, baina ez bertako atleta, eta horrek asko lasaitzen nau. Azkenean, norberak jartzen dio presioa bere buruari, baina Salomoneko kide izanda nazioarteko zirkuituko lasterketetan egon beharko nuke. Esaterako, Golden Trail Series-etan esku hartu beharko nuke, Salomonek sortutako zirkuitua delako. Eta zirkuituko lasterketetako bat Canazeikoa da. Paraje ederrak ditu, oso lasterketa polita da, baina beti kontrako eztarritik sartu izan zait lasterketa hori, eta konturatzen zara urtero konpromisoagatik joaten nintzela lasterketa horretara. Canazei modukoak badaude beste batzuk, eta horietara joatearren beste lasterketa batzuk alboratzen dituzu. Eta, konturatu orduko, halako gurpil batean sartu zara… Eta zure buruari galdetzen diozu ea ze demontretan ari zaren, benetan gustukoak dituzun lasterketak alboratzen badituzu, berrietara joateari uzten badiozu… Azken batean, ez garelako honetatik bizi. Gure zaletasuna da, baina balantza horretan oreka galtzen ari zarela ikusten duzu, eta momentu batean galdetzen diozu zeure buruari ea horrela ibiltzea merezi duen, aste barruan hegazkin bat hartu eta batera eta bestera ibiltzea merezi ote duen. Orain, nik nahi ditudan lasterketak aukeratzen ditut, eta maila ematen ez badut, bada, nire arazoa baino ez da.

Kortazarrek besoak altxa zituen helmugan (4.52.16), nahiz eta bosgarrena izan. I.K.

"GUSTURA NABIL EGUTEGIA BEGIRATU ETA ZE PROBATARA JOAN GURA DUDAN ERABAKITZEN"

"SALOMONEKO ENBAXADOREA NAIZ, BAINA EZ BERTAKO ATLETA; LASAIAGO NABIL HORRELA"

Baina domekan aurrean ibiltzeko kapaz zarela erakutsi zenuen…

Baina hori ikusita ere ez zait nazioarteko zirkuitu handietan izena emateko gogoa etorri, benetan. Aurten egin gura ditudan lasterketak nahiko zehaztuta ditut. Esaterako, bai egingo nuke ostera ere Suitzan egiten duten Sierre-Zinal lasterketa, izugarri polita delako. Baina hori da gauza bat eta beste bat da zirkuitu bateko gutxieneko lasterketa kopuru bat derrigor egin behar izatea, ez dut horretarako gogorik. Ondo errekuperatzen banaiz, domekan Arnoko [Mutriku] lasterketan egongo naiz, baita hilaren 23an Flisch-eko [Zumaia] maratoian ere. Uztailean, esaterako, Herradura de Campoo lasterketa egiteko asmoa dut. Iaz, lesionatuta egon ostean burututako lehenengo maratoia izan zen, izugarri sufritu nuen, baina lasterketa asko gustatu zitzaidan. Eta abuztu amaieran egingo duten Trail Valle de Tena ere egin nahiko nuke. Hain justu, lasterketa horretan lesionatu nintzen, orduan esan nuen ostera ere ez nintzela zoratuta ere itzuliko, baina goi mendiko lasterketa ederra da, eta oso teknikoa, apenas egiten da korrika. Bada, beldurra kentzeko edo txoke-terapia moduan, hara joango naiz. Eta amaitzeko, irailean Covaledara joango naiz, Soriara, Trail Pico Urbion lasterketara. Ez naiz aspertuko. Kar, kar.

Mendi lasterketez ari gara, baina asfaltoan, esaterako, Behobia-Donostia irabazi duzu. Errepidera bueltatzeko asmorik?

Orain momentuan ez dut batere gogorik. Badakit aste barruan errepidean entrenatu beharra daukadala, hor irabazten dut abiadura, eta mendirako ondo etortzen zait. Baina desgastea ere handiagoa da. Orain momentuan maratoi bat prestatzeak ez ninduke batere motibatuko. Kontrara, mendiko maratoi batean badakit tarte batzuetan oinez joango naizela, aldapa beherak izango ditudala, tontorrean bista politekin gozatu ahal izango dudala eta erritmo ezberdinetan korrika egingo dudala. Horrek betetzen nau, eta asfaltoan ez daukat halakorik.

Etorkizunari begira, atleta batzuei entzun izan diet maila onean ez dauden egunean erretiroa hartuko dutela. Beste batzuek, ordea, ondo onartzen dute ezinbestekoa dena, bizitzaren legea. Eta, maila apalago batean bada ere, mendi lasterketez gozatzen jarraitzen dute. Non ikusten duzu zure burua?

Orain momentuan, behintzat, garbi daukat, beste gauza bat da momentua iristen denean zertarako gaitasuna izango dudan. Bigarren kasuan ikusten dut nire burua. Uste dut jarraitu egingo dudala mendian korrika egiten, eta motiboa da nire semeendako eredu izaten jarraitu gura dudala. Orain, txukun samar nabil, eta nire semeak adin horretan daude... denak izan behar du irabazi, irabazi eta irabazi. Pentsa, domekan Zegaman inguruko guztiak geunden pozik, nire seme nagusia kenduta. Errieta egin zidan bosgarren sailkatu nintzelako eta bi kanpotar aurretik helmugaratu zirelako; kar, kar. Ikus dezatela egiten dudan hori ez dela lasterketetan aurrean ibiltzeko, bizitza filosofia bat dela, kirol ohiturei eutsi egin behar zaiela gero ere.

ARIZMENDI

Arizmendi, Gipuzkoako txapeldun

Infantil mailako Gipuzkoako txapelketako finalean bailarako bi talde izan ziren aurrez aurre Zubietan, Arizmendi eta Aloña Mendi. Biak ala biak denboraldi ederra eginda iritsi ziren liga amaierara, baina ikasturtea errematatzea geratzen zen. Hala, finalean, sekulako beroa egin zuen, eta Arizmendikoendako izan zen garaikurra (2-0).

DORLETAKO AMA

Bailarako harrobia, batera

Joan den astean, Lokatzako, Dorletako Amako eta Aloña Mendiko gazteenek Aretxabaletan izan zuten hitzordua. Kategoria txikietan, zirkuitu itxietan egiten dituzte lasterketak, eta Aretxabaletan industrialdearen zati bat aprobetxatzen dute, eta baita Araba ibilbideko zuzena ere. Gipuzkoako beste ziklista askorekin batera, bailarako asko igo ziren podiumera.

MENDIA Aiba! eta Txikirri-Txikirri asteburuan

Domekan, mendizaleek hitzordu bikoitza izango dute. Eskoriatzan Txikirri-Txikirri mendi zeharkaldiaren 12. edizioa egingo dute –izen-ematea 06:30etik 07:30era– eta Arrasaten Besaide Mendi Elkarteak antolatuta Aiba! egingo dute. Hor ere egunean bertan eman daiteke izena –07:00etan abiatuko dira–.

ATLETISMOA Realeko atletak Malagan nagusitu dira

Aurreko asteburuan, Realeko atleta arrasatearrak Malagan izan dira lehian. Taldeka txuri-urdinak nagusitu ziren. Istar Dapena lehena izan zen pertika saltoan (5,10) eta Iñigo Uribarren salto hirukoitzean (15,11). Maialen Axpek Anoetan 4,25eko marka egin zuen eta Malen Ruiz de Azuak 3,90 egin zuen Bartzelonan.

"Saiakerak izango dira, ez produktu bukatuak"

IBAN ARANTZABAL 2DEO LABORATEGIAREN ANTOLATZAILE TALDEKO KIDEA

2deo, euskarazko ikus-entzunezko laborategia, zabaldu du Donostiako Tabakalera eraikinean Gipuzkoako Foru Aldundiak –Etorkizuna Eraikiz ekimenaren baitan–

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Egubakoitzean egin zuten inaugurazio ekitaldia, baina hasita daude lanean iaz egin zuten deialdian jasotako ideia batzuk garatzen. Goienako Komunikazio Taldeko zuzendari Iban Arantzabalek izan du proiektua martxan jartzeko prozesuaren ardura.

Jaio da 2deo laborategia; pozik?

Bai, oso; kontzeptua lantzen hasi ginen, orain dela urte eta erdi, hiru laguneko taldea, eta pozik erakutsi genuen jendaurrean egubakoitzean. 500 metro koadro ditu, eta era dinamiko eta eskalagarrian banatzen diren espazio irekiak daude, materiala editatzeko eremuak eta laborategiko langileen lan eremuak. Une honetan, hiru langile daude, *Erreztaileak* deitzen diegu guk, eta euren lana da proiektuak lantzen ari direnei erraztasunak eta laguntasuna ematea.

Sormenerako tokia izango da; baina hori bakarrik?

Bereziki, sormenerako landuta dago, eta esango nuke xede talde nagusia ikus-entzunezko sektorea dela, baina ez bakarrik; badaude herritarrentzako keinu batzuk ere. Atea zabalik dago eta edonor sar daiteke nahi izanez gero, eta sarreran aurkituko du bideomatoia, eta han, ikus-entzunezkoekin lotutako ideiak grabatu ahal ditu.

Iban Arantzabal, 2deo laborategiaren aurkezpenean. TABAKALERA

Nola funtzionatzen du?

Garai bateko fotomatoi moduko bat da, baina gaur egunera ekarrita, irudia eta ahotsa jasotzen du. Horrek esan gura du nork bere burua pantaila batean ikusiko duela, eta modu errazean grabatuko du partekatu nahi duen ideia hori. Asmoa da orain 2deo sarreran egotea, baina, geroago, Donostiako toki ezberdinetara eramatea bideomatoia, eta bestelako gai batzuen gainean galdetzea, eta baita beste formatu batzuekin probatzea ere.

Ze bide jarraitzen dute gero horiek?

Konfidentzialtasun osoz gordetzen dira jasotakoak, eta hortik ideia baliagarriren bat ateraz gero, deia jasoko luke asmatzaileak, proiektua gauzatu ahal den aztertzen hasteko.

Bideomatoiaz gainera, 2deorako beste sarbide batzuk ere badaude.

Hala da, bai; ikus-entzuleei eman nahi diegun sarbidea da hori, eta beste bat profesionalei begira egiten diren deialdiak dira. Iazkoan 85 proiektu jaso genituen eta horietatik epaimahai batek 23 aukeratu zituen; dagoeneko ari dira 2deon ideia horietako batzuk garatzen.

Behatzaile talde bat ere sortzen ari zarete nazioartean; zertarako?

Hori izango da 2deorako hirugarren sarbidea. Mundu mailako askotariko profesionalekin osatu gura dugun sarea da. Urtean hainbat bider batuta, gure galdera behatzaileei honako hau izango da: "Badago zerbait Euskal Herrirako egiteko modukoa eta guk egin ahal duguna?". Hala balitz, saiatuko ginateke urtean pare bat ideia ekartzen, eta baita horiek garatzeko ingurumaria guztia, ondo mimatu baliabideekin eta behar denarekin, eta euskarazko ekoizpen berriak sortuko genituzke. Gure asmoa proiektu bakoitzean askotariko profiletako eta sektoreetako lagunekin taldea sortzea da; izan ere, hortik aterako dira ideia freskoagoak eta posibleagoak. Saiakerak izango dira beti, ez dira produktu amaituak; 2deo ez da produkzio zentro bat, baizik eta esperimentatzeko laborategia; hortaz, gure helburua prototipoetara heltzea da. Merkatua badago eta 2deok ez du konpetentziarik egin gura aspektu horretan.

Ideia batzuek aurrera egingo dute eta beste batzuek ez, ezta?

Hori da, batzuk bidean gelditu ko dira eta beste batzuk arrakasta bidean jarriko ditugu; eta hori estrategikoa da guretzat, audientzietan eta kontsumoan eragitea da helburua.

Eraikina ere elkarlanerako diseinatuta dagoela diozue.

Igurtzia da, bai, beste helburuetako bat; izan ere, sektore profesionalekin egin ditugun elkarrizketetan ikusi genuen oso atomizatuta dagoela sektore hori, eta eraikin horrek guztiak nahastea bultzatzen du. Era berean, nahastu, ez bakarrik profesionalen artean, ikasleekin ere bai, hortxe dago Elias Kerexeta Zine Eskola, adibidez, edo zergatik ez zientzia alorrekoekin...

Orain abian duzuen proiekturik?

Hor dago, esaterako, Gaztezulo eta X taldea elkarlanean egiten ari diren gazteen ikus-entzunezko kontsumorako bideratutako aplikazioa. Laster izango da prototipoa prest eta X taldeak egindako websail bat izango du.

Bideomatoia, ideiak biltzeko kutxa

Donostiako Tabakalera eraikinean, 2deo sarreran, dagoen aparatuan edozeinek dauka ikus-entzunezkoekin lotutako ideiak proposatzeko aukera.

Jasotakoak konfidentzialki gordeko dira, eta, proiektu bat garatzeko baliagarria dela ikusiz gero, laborategiko lantaldearen deia jasoko luke asmatzaileak.

2deoko bideomatoia. TABAKALERA

BERGARAKO PENTEKOSTE JAIAK

GOIENA TELEBISTA

EKAINAREN 11N, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

AITOR AGIRIANO JAIRIK JAI IBILIKO DA

goiena

Zu hemen zaude.

Ekaineko egubakoitzetan kontzertuak Sastiñan

Zuzeneko musika lasaiarekin gozatzeko askotariko aukerak izango dira ekainean, gaurtik hasita, Sastiña ermitan –eguraldi ona bada kanpoan eta txarra bada ermita barruan–; aurreko aldietan moduan, emanaldi guztiak 20:00etan eta doan dira

A. Aranburuzabala ARAMAIO

2010ean hasi zen Udala ekaineko eta iraileko egubakoitzetan Sastiña musika jaialdia antolatzen, eta, orain arteko eskaintzak izan duen "harrera ona" ikusita, hamargarren edizioa abiaraziko dute gaur, egubakoitza.

Ekainerako prestatutako egitarauan herriko musika taldeei tokia egitea dutela helburu dio Aramaioko Kultura teknikari Itxaso Aspiazuk: "Gonbidapena egin genien, baina ez dugu proposamenik jaso; hortaz, saiatuko gara iraileko jaialdirako beste deialdi bat egiten".

Bohemian Soul taldeak kontzertua eskainiko du gaur Aramaion. BOHEMIAN SOUL

Galdakaotik, Bohemian Soul

2015ean sortu zuten Patricia Recless abeslariak eta Mario Maravillas gitarra-joleak Bohemian Soul bikote artistikoa. Garai ezberdinetako askotariko musika taldeen eta abeslarien bertsioak egiten dituztela kontatu dute: "60ko hamarkadan hasi eta gaur egungo kantu ezagunak aurkituko dituzue gure errepertorioan; adibide batzuk aipatzearren, Eagles, Metallica, Amy Winehouse, Adelle eta baita Coque Maya ere. Aurrerantzean, guk konposatutakoak ere eskaini nahi genituzke, eta ari gara dagoeneko kantu berriak sortzen".

Egitaraua

- **Ekainak 7** Bohemian Soul (rocka, countrya, soula, rhythm&bluesa).
- **Ekainak 14** Rule Of Trees (folka, popa, rock akustikoa).
- **Ekainak 21** Lobo & Carmine (country-mexa).
- **Ekainak 28** Discofagia (rocka, popa, soula).

EMANALDI GUZTIAK SASTIÑAN, 20:00ETAN ETA DOAN DIRA.

Hurrengoan ere, kantu ezagunak

Rule Of Trees laukoteak hartuko du lekukoa datorren astean Sastiñan; horiek ere folk, pop eta rock akustiko estiloetako kantu ezagunak eskainiko dituzte.

Hirugarren egubakoitzean, berriz, Robert James Waller idazlearen *Aires de la frontera* eleberritik "lapurtutako" Lobo&Carmine izena duen bikoteak country estiloa oinarri duen emanaldia eskainiko du; eta, ekaineko egitaraua borobiltzeko, Discofagia taldea gonbidatu dute Aramaioko musika ziklora.

Debagoieneko bi bertsolari, biharko Eskolarteko finalean

Aitor Tatiegi oñatiarra eta Aitor Ugarte aramaioarra Saran lehiatuko dira beste hamaika lagunekin batera

A. A. DEBAGOIENA

Sarako trinketean hirugarrenez jokatuko dute Euskal Herriko Eskolarteko finala, eta guztietan izan da Aitor Ugarte aramaioarra, Arabako ordezkari moduan. "Biharko gogotsu" dagoela dio, eta ez dela bereziki entrenatu gaineratu du. Ez du faboritorik ikusten: "Gipuzkoako txapeldun Aitor Tatiegi eta Xabat Illarregi nafarra aipatuko nituzke, baina egun ona izatea da gakoa. Lagun onak gara denak".

Tatiegik estreinakoz kantatuko du bihar Saran. "Selektibitatea prestatzen jardun dut; hortaz, ez dut prestatzeko eta urduri jartzeko astirik izan. Nik ere ez dut faborito garbirik, aipatzekotan, Illarregi nik ere".

Aitor Sarasuaren omenez

Irabazleari txapela Maddi Sarasuak, Aitor Sarasua zenaren alabak, jantziko diola aurreratu dute antolatzaileek: "Aitorrek bertsolaritzari egindako ekarpen handiari esker onez".

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira maiatzeko irabazleak!

EBOOK READER SPC
Amaia Gorosabel Pagaldai (Bergara)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Jose Maria Lasaga Heriz (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Igor Larrañaga Ortueta (Aretxabaleta)
Juan Carlos Kortazar Uribesalgo (Eskoriatza)
Juantxo Etxaniz Elgarresta (Bergara)

"NOGEN ETA EME" KONTZERTURAKO SARRERAK
Ekain Sotil Muniategi-Andikoetxea (Bergara)

"THE ELECTRIC ALLEY" KONTZERTURAKO SARRERAK
Jesus Mª Elkoro Iturriaga (Arrasate)
Aitor Okina Llodio (Arrasate)
Saioa Belategi Unzueta (Arrasate)

"MICE ETA BIRKIT" KONTZERTURAKO SARRERAK
Angel Elkoro Aranberri (Bergara)

"EH SUKARRA" KONTZERTURAKO SARRERAK
Zorione Jausoro Izurrategi (Aretxabaleta)
Garbiñe Beitia Baños-Antigua (Arrasate)

"ANTHONY BLAKE" IKUSKIZUNAREN SARRERAK
Emilio Bernal Alfayate (Bergara)
Jesus Mª Olabarria Eguren (Bergara)

"HUMANITY AT MUSIC" IKUSKIZUNAREN SARRERAK
Itziar Ruiz de Azua Beitia (Arrasate)
Amparo Perez (Arrasate)

"MARTIN ZALAKAIN" IKUSKIZUANREN SARRERAK
Jabier Uribetxebarria Bolinaga (Arrasate)
Eider Lete Elorza (Arrasate)
Aintzane Azkarraga Ugalde (Bergara)

DUKIENA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Joanes Urrate Sanchez (Oñati)

TARTUFO JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Espe Lizarralde Gallastegi (Arrasate)

LASA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Esteban Barandiaran (Arrasate)

ITURRIETA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Julian Alberdi Muruamendiaraz (Bergara)

SARIAK JASOTZEKO:
Arrikrutzeko sarrerak. Goiena klubeko bartala erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko bartaldegian. Sarrerak 3 hilabetelo epe mugaz izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Aretz Auzoa. OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Astearteetik igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) Hareman dendako otarrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean bazkide bartaleekin. Hareman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Lehen saria jasotzeko,** joan GOIENAren egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitea eman behako da. GOIENA Otalora Lizentziadunea 31. Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubeloitzetan: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako otordua

LASA JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntuo* aldizkariko *Otorduon* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Puntuo aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

Bazkidetu orain 2019rako
56€ ordainduta
Deitu: **943 25 05 05**
kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ZERBITZUAK

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Aukera ezin hobea! 75 m²ko etxebizitza salgai Musakola auzoan. Etxe argitsua eta kokapena ezin hobea: kiroldegia, supermerkatuak, okindegia eta abar ondoan ditu. Etxebizitza guztiz berriztuta. Sukaldea eta logela guztiak jantzita. Aurrealdean terraza eguzkitsua. Hiru logela, komuna eta egongela-jangela handia. Etxe guztian berogailuak ditu. Lehenengo solairuan dago eta igogailua du. Deitu 699 20 13 21 telefono zenbakira.

103. ERRENTAN EMAN

Calpe. Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta terraza. Hondartzatik 100 metrora. Deitu 655 74 57 97 telefono zenbakira.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Lanean ari garen bi neska gara eta etxebizitza behar dugu errentan hartzeko Arrasaten. 628 89 95 39 (Garazi), 655 72 74 87 (Kristina)

Baserria. Arrasateko lau gazte langile eta arduratsu gara eta Debagoienean (Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara edo Aramaio) baserri bat errentan hartu nahian gabiltza. Interesatuok deitu: 638 85 53 26 (Leire), 646 296023 (Antton)

Debagoiena. Bi eta lau logela arteko etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Deitu 663 40 92 67 telefonora.

3. LOKALAK

301. SALDU

ARRASATE
Guztiz hornitutako ile-apaindegia salgai.
650 54 69 12

4. LANA

401. ESKAINTZAK

BATU BANATU
Aldizkari banatzaileak behar dira aldi baterako.
688 69 00 07
943 08 10 50

Antzuola. Pertsona nagusi bat zaintzeko langilea behar da. Guztiz autonomoa da, etxeko lanetan laguntzeko eta konpainia emateko. Bertan bizi izateko aukera. Telefonoa: 620 31 64 93

Bergara. Umeak eskolara eraman eta etxera ekartzeko pertsona euskalduna behar dugu. Telefonoak: 686 80 29 62 edo 659 77 80 14

402. ESKAERAK

Arrasate. Denetariko garbiketak egiten eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 632 71 47 75 edo 600 30 24 68

Arrasate. Umeak eta nagusiak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. 634 24 43 19

Bergara edo Arrasate. Arlo mekanizatuko ikasketan dauzkat eta fabrikan lan egingo nuke. Bost urtetik gorako umeak zaintzeko ere gertu nengoke. Euskaraz badakit. 622 35 48 02

Bergara edo inguruak. Arratsaldetan lan egingo nuke ume edo nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abar. Telefonoa: 610 34 97 88

Debagoiena. Arratsaldetan edo gauetan lan egingo nuke zaintza lanetan. 603 19 92 52 (Julia)

Debagoiena. Erizain laguntzaile gertu orduka nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 688 74 02 01

Debagoiena. Esperientzia duen neska orduka zein etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. Baita tabernako zerbitzari moduan lan egiteko ere. 654 11 15 14

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen gizona nagusiak zaintzeko gertu. Oso ondo moldatzen naiz sukaldean. Baserrietan ere lan egin izan dut. Orduka, egunka edota gauetan ere bai. 672 56 69 44

Debagoiena. Esperientzia handia duen mutila nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 638 85 43 36

Debagoiena. Garbiketak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Baita gauetan edota oporretako ordezkapenak egiten ere. Legezko agiriak eta soziosanitario ikasketak dauzkat. 682 31 97 37

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaindu, etxeko lanak egin eta abarrak egiteko gertu nago. Baita asteburuetan edo orduka ere. 632 25 27 26

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke, astelehenetik egubakoitzera. Egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. 687 20 55 98

Debagoiena. Orduka edo etxean bertan bizi izaten, zaintzan edota garbiketan lan egingo nuke. Baita baserrietan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara:602 00 25 21

Debagoiena. Pertsona nagusiak edota haurrak zaintzen, garbitzaile bezala edo zerbitzari eta sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 62 76 07

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta lagun egiteko gertu nago. 606 17 62 39 (Osoro)

Debagoiena. Pertsona nagusiekin gauez eta arratsaldez orduka lan egiteko gertu. Eskarmentuduna eta geriatria tituluduna. Autoa daukat. Telefonoa: 600 00 51 60

Debagoiena. Umeak eta nagusiak zaintzen, orduka garbiketak egiten edota sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. 651 67 96 79

Debagoiena. Zerbitzari edo sukalde laguntzaile moduan, pertsona nagusiak zaintzen, animaliak zaintzen edo enpresen administrazio alorrean prestatutako pertsona lanerako prest. Telefonoa: 631 76 69 33

Lan bila. 44 urteko emakumea, ahal bada goizetan, etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. Telefonoak: 669 12 70 98 edo 943 25 32 78

Uztailean umeak zaintzeko prest. Mondragon Unibertsitatean magisteritza ikasten duen 19 urteko neka bat naiz, Bergaran bizi naiz eta uda honetan umeak zaintzeko prest nago. Uztailean izango litzateke, goiz edota arratsaldean. Urtean zehar ere, hiru urteko ume bat zaindu dut, beraz esperientzia daukat eta umeak gustatzen zaizkit. 688 84 99 79 edo 610 49 43 48

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Ingelesa Bergaran. Uztailean zehar. Maila guztiak. Baita ikastaro trinkoak edo Cambridge eta HEOeko azterketak prestatzeko ere. Talde txikietan edo banaka. Telefonoa: 618 91 32 89

6. MOTORRA

601. SALDU

Opel Vectra eta auki elektrikoa. Bigarren eskuko Opel Vectra autoa, 19.000 kilometrorekin, eta gurpildun aulki elektrikoa salgai. Prezioa negoziagarria. Interesatuok deitu 648 68 16 77 telefonora.

8. DENETARIK

806. GALDU

Baserritar arropa. Pasa den larunbatean, ekainak 1, Eskoriatzako Ferixan, baserritar jantziaren goiko aldea galdu nuen. Granate kolorekoa da eta marra fin beige eta larrosak dauzka. Eskertuko nizueke Eskoriatzako udaletxera eramaten baduzue.

Belarritakoa. Maiatzaren 16an, eguena, 19:00etako autobusa hartu nuen Aretxabaletatik Arrasatera eta bertan edo inguruan, belarritakoa galdu nuen. Urrezkoa da, harri berde batekin. Balio sentimental handia du. Aurkitu baduzu, eskertuko nuke Arrasateko BAZera eramatea edo telefono zenbaki honetara deitzea: 943 79 02 29

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
  Garajea Saldu/Errentan.
  Lokala Saldu/Errentan.
  Irakaskuntza eman.
  Motorra Saldu/Alokatu.
  Animaliak/Saldu.
  Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro
  18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
  Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

GOIENA

PAZKOAK 2019: SAIO BEREZIA

'Jaiak' *Martitzena, 21:00 eta 23:00*

GOIENA

UNAI ITURRIAGARI ELKARRIZKETA

'Elkarrikettap' *Egubakoitza, 21:30 eta 23:30*

EGUBAKOITZA,7

10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Elkarrizkettap: Ana Goitia
11:30 Hemen Debagoiena
12:30 Elkarrizkettap: Mikel Orbañanos
13:00 Hiri-baratzea 2
13:30 Hemen Debagoiena
14:30 Albisteak
14:45 Harmailatik
15:15 Hemen Debagoiena
16:15 Albisteak
16:30 Kantari 3
17:00 Albisteak
17:15 Ajoarriero: Haizea Zamora
17:45 Albisteak
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Elkarrizkettap: Ana Goitia
19:30 Hiri-baratzea 2
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Hiri-baratzea 2
21:30 Elkarrizkettap: Unai Iturriaga
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Hiri-baratzea 2
23:30 Elkarrizkettap: Unai Iturriaga

ZAPATUA, 8

09:00 123 Hemen da Miru
09:30 Txantxariak 15
10:00 Kantari 4
10:30 123 Hemen da Miru
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Elkarrizkettap: Unai Iturriaga
12:30 Hiri-baratzea 2
13:00 Hemen Debagoiena
14:00 Hilabetekaria: maiatza
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Hiri-baratzea 2
16:30 Ajoarriero: Haizea Zamora
17:00 Jaiak: Pentekoste jaiak 2018
18:00 Elkarrizkettap: Mikel Orbañanos
18:30 Harmailatik
19:00 Hemen Debagoiena
20:00 Jaiak: Pentekoste jaiak 2018
21:00 Hiri-baratzea 2
21:30 Elkarrizkettap: Mikel Orbañanos
22:00 Harmailatik
22:30 Hemen Debagoiena
23:30 Jaiak: Pentekoste jaiak 2018

DOMEKA, 9

09:00 Txantxariak 15
09:30 Kantari 4
10:00 123 Hemen da Miru
10:30 Txantxariak 15
11:00 Kantari 4
11:30 123 Hemen da Miru
12:00 Jaiak: Pentekoste jaiak 2018
13:00 Hilabetekaria: maiatza
14:00 Asteko errepasoa
14:30 Hemen Debagoiena
15:30 Kantari 4
16:00 123 Hemen da Miru
16:30 Hiri-baratzea 2
17:00 Elkarrizkettap: Unai Iturriaga
17:30 Asteko errepasoa
18:00 Jaiak: Pentekoste jaiak 2018
19:00 Ajoarriero: Haizea Zamora
19:30 Elkarrizkettap: Mikel Orbañanos
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Hilabetekaria: maiatza
22:00 Jaiak: Pentekoste jaiak 2018
23:00 Elkarrizkettap: Unai Iturriaga

ASTE BUKAERAN

MAIATZEKO ALBISTEEN ERREPASOA

'Hilabetekaria'

Zapatua, 14:00; eta domeka, 13:00 eta 21:00

ASTELEHENA, 10

KIROL HITZORDUAK

'Harmailatik'

21:30/23:30

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: ***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 12

GOIENA

IBON GAZTAÑAZPIRI ELKARRIZKETA

'Elkarrizkettap'

21:30/23:30

EGUENA, 13

'HIRI-BARATZEA'

'Bereziak'

21:30/23:30

OROIGARRIA

Olatz Iglesias Guridi

Eskolako gurasoa

2019ko ekainaren 3an hil zen.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Kurtzebarri Eskolako ikasle, irakasle eta familiak.
Aretxabaletan, 2019ko ekainaren 7an.

OROIGARRIA

Bibiana Biain Cortabarria

Jesus Larrañagaren alarguna

2018ko ekainaren 8an hil zen, 95 urte zituela.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.

Bergaran, 2019ko ekainaren 7an.

OROIGARRIA

Arantza Gantxegi Alberdi

2019ko ekainaren 5ean hil zen, Benidormen.

Zure maitasunak ez du etenik izango.
Beti zurekin...

Etxekoak.
Bergaran, 2019ko ekainaren 7an.

HILDAKOAK

Juan Jose Garitaonandia Lizarralde.
Arrasaten, maiatzaren 16an. 85 urte.
Josefa Barquero Caceres. Arrasaten, 16an. 84 urte.
Ana Alonso Garate. Oñatin, maiatzaren 16an. 56 urte.
Jesus Frago Montañes. Bergaran, 17an. 81 urte.
Julio Otadui Ezpeleta. Arrasaten, 18an. 97 urte.
Juan Maria Cerdeira Fernandez. Bergaran, 18an. 82 urte.
Jesus Mari Sebal Mendizabal. Bergaran, 18an. 84 urte.
Francisco Diez Padilla. Arrasaten, 19an. 87 urte.
Javier Urzuriaga Iztueta. Bergaran, 19an. 47 urte.
Angustias Rosario Gomez Guardado. Arrasaten, maiatzaren 20an. 82 urte.
Magdalena Crespo Martinez. Bergaran, 20an. 71 urte.
Francisco Tramon Martin. Arrasaten, 21ean. 90 urte.
Domingo Prieto Mateos. Arrasaten, 21ean. 84 urte.
Arantza Egaña Aguirre. Oñatin, maiatzaren 21ean. 59 urte.
Alejandra Santamaria Lopez. Arrasaten, 21ean.
Fernando Perez Gomez. Aramaion, 22an. 73 urte.
Petro Olmedo Paunero. Aretxabaletan, 22an. 97 urte.
Juana Bikuña Markuleta. Oñatin, 23an. 90 urte.
Ciriaca Diaz Alonso. Arrasaten, maiatzaren 24an. 91 urte.
Esperanza Astaburuaga Herrera. Arrasaten, maiatzaren 24an. 86 urte.
Ana Lombide Guisasola. Bergaran, 24an. 58 urte.
Jose Areitio Baskaran. Bergaran, 25ean. 74 urte.
Pilar Ruiz de Azua Gastañondo. Bergaran, 25ean. 88 urte.
Dorleta Mauleon Miranda. Bergaran, 26an. 64 urte.
Ignacio Garitano Manurga. Bergaran, 26an. 80 urte.
Jesus Bengoa Cortabarria. Oñatin, 27an. 84 urte.
Julian Unzueta Etxebarria. Aramaion, maiatzaren 28an. 89 urte.
Ramon Blanco Perez. Arrasaten, maiatzaren 29an. 61 urte.
Martin Alberdi Iribekanpos. Bergaran, maiatzaren 29an. 87 urte.
Angel Mari Aginagalde Ormaetxea. Arrasaten, maiatzaren 31n. 63 urte.
Olatz Iglesias Guridi. Aretxabaletan, ekainaren 3an. 47 urte.
Eusebio Bengoa Segura. Aretxabaletan, ekainaren 4an. 88 urte.
Arantza Gantxegi Alberdi. Bergaran, ekainaren 5ean.
Patxi Gastañaga Heriz. Aretxabaletan, ekainaren 5ean. 95 urte.

ESKER ONA

Pilar Ruiz de Azua Gastañondo

2019ko maiatzaren 25ean hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2019ko ekainaren 7an.

OROIGARRIA

Jesus Arregi Irastorza

2013ko ekainaren 7an hil zen.

Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo.
Bainan, honela
ez zen gehiago txoria izango.

Antzuolan-Urretxun, 2019ko ekainaren 7an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo *eskelak@goiena.eus*

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE *EGUNEZ*	
Egubakoitza, 7	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Zapatua, 8	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Domeka, 9	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Astelehena, 10	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Martitzena, 11	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguaztena, 12	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguena, 13	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
BERGARA *EGUNEZ*	
Egubakoitza, 7	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapatua, 8	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 9	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 10	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Martitzena, 11	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztena, 12	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 13	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK*	
Egubakoitza, 7	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 8	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 9	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 10	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 11	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 12	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 13	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE *GAUEZ EGUNERO*
(22:00etatik 09:00etara)
2019ko abuztuaren 30era arte:
ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

BERGARA *GAUEZ EGUNERO*
(22:00etatik 09:00etara)
2019 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

1

2

3

4

5

1. Euskal dantzen erakustaldia
Bergarako euskal dantza taldeen emanaldia egin zuten hilaren 2an. Garai bateko erromeriak suspertzeko lehen pausoa eman dute dantzari mahoneroek.

2. Leitza aldean ospatzen
Oñatiko 1981eko kintoek egun-pasa ederra egin zuten Leitza aldea. Peru-Harri bisitatu zuten, Iñaki Perurenaren laguntzarekin, eta Leitzan bertan bazkaldu zuten.

3. Mintzalagunak, Arabako Errioxan
Euskal Herriko berbalagunen jaia ospatu zuten ekainaren 1ean Lapuebla de Labarcan. 150 bat lagun elkartu ziren, eta han egon ziren bailarako ordezkariak ere.

4. Tronboi-joleen topaketa
Euskal Herriko hamalau musika eskolatako 115 tronboi-jole elkartu ziren Bergaran aurreko zapatuan. Kalejira eta kontzertua egin zituzten, besteak beste.

5. Denis Soriano, onena arrantzan
Arrantzale aramaioarrak hamalau amuarrain harrapatu zituen Leitzaranen jokatutako Solo Boya txapelketan. Beste hemeretzi arrantzaleren kontra lehiatu zen.

6. Bihar ezkonduko dira
Arrasateko Maider eta Haroko Oscar, Nafarrurin (Errioxa). "Ondo pasatu eta gozatu! Arrasateko kuadrillaren eta *Los Angeles de Charlie*-ren partetik, zorionak!".

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

Posta elektronikoa
Mezua bidali *berriak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak
Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

6

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Ainhoa Caballero Agra
Ekainaren 13an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako, familia osoaren partetik! Muxu asko!

BERGARA
Naroa Garcia Urbieta
Ekainaren 12an, 5 urte. Zorionak, Naroa! Iritsi da zure eguna. Ondo-ondo ospatuko dugu zure urtebetetzia. Muxu handi bat, etxeko danon eta, bereziki, Maialenen partetik.

ANTZUOLA
Aitor eta Irati Mugica Barandiaran
Ekainaren 12an, 4 urte. Urte askotarako, bikote. Ondo-ondo pasatu eguna. Muxu potolo bat, lehengusina Ainara, Aitziber eta Eleneren eta etxeko guztien partetik.

ARETXABALETA
Maialen Arrese Serrato
Ekainaren 12an, urtebete. Zorionak, Maialen, etxeko danen partetik.

OÑATI
Alaia Olabe Casais
Ekainaren 10ean, 4 urte. Zorionak, maitia! Edarto ospatuko dugu zure laugarren urtebetetzea. Muxu potolo bat, familiako guztion partetik.

ARRASATE
Haizea Martinez Nanclares
Ekainaren 8an, 4 urte. Zorionak, printzesa, Maialenen, amatxoren, aitatxoren eta Errioxako eta Bilboko aiton-amonen partetik! Egun bikaina izan dezazula! Muxu erraldoia!



ARRASATE
Aiora eta Alaia Murgoitio Abril
Ekainaren 8an, 5 urte. Zorionak, poxpolintxuok! Jada bost urte egin dituzue gure artean... Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna eta mila muxu, familia osoaren partetik!

OÑATI
Izaro Zelaia Altube
Ekainaren 8an, 9 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo pila bat, asko gura dun danon partetik!

OÑATI
Aner eta Xabi Guridi
Ekainaren 8an, urtebetetzeak. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunean! Patxo handi bat! Amatxoren eta Eleneren partetik.

ARRASATE
Julen Alonso Tena
Ekainaren 7an, 4 urte. Zorionak, maittia! Egun ederra pasatu. Patxo handi bat, familiako danon partetik!

ARAMAIO
Juanita Garro
Ekainaren 6an, 90 urte. Zorionak, amama! Ondo pasatu eguna, seme-alaba, biloba eta birbilobekin. Muxu potolo bat, danon partetik.

ANTZUOLA
June Romero Blazquez
Ekainaren 6an, 11 urte. Zorionak, maitia! Muxu erraldoi bana familia osoaren, eta bereziki, zure aitaren eta amaren partetik. Zelako azkar hazten ari zaren.



OÑATI
Lur Ruiz Martin
Ekainaren 6an, 11 urte. Zorionak, *guapa*! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, etxeko guztien partetik. Bereziki Hodei, aita eta ama.

ARRASATE
Alaitz Bergaretxe Aldazabal
Ekainaren 6an, 13 urte. Zorionak, Alaitz, familiako danon partetik!

OÑATI
Natale Orueta Santos
Ekainaren 6an, 4 urte. Zorionak, printzesa, zure 4. urtebetetzian! Oso ondo pasatu eguna eta lau patxo handiak, familixako danon eta, batez ere, Perutxoren partetik.



ARRASATE
Unai Rodriguez Fuentes
Ekainaren 5ean, 15 urte. Zorionak, *txikitin*! Iritsi da zure eguna! Ederto ospatu! Patxo handia familiaren eta, bereziki, Yuneren eta Landerren partetik!

ARRASATE
Iraitz Etxagibel Ruidiaz
Ekainaren 3an, 15 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik!

BERGARA
Jone Rivera Iñarra
Ekainaren 3an, 6 urte. Zorionak, Jone! Ondo-ondo pasatu zure eguna, familixa osoaren partetik!

ARETXABALETA
Malen Makazaga Revalo
Ekainaren 1ean, urtebete. Zorionak, *prexiox*! Egun politta euki deizula! Patxo handi bat, familia osoaren partetik.

BERGARA
Ruben Hidalgo
Maiatzaren 31n, 34 urte. Zorionak, Ruben eta ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *https://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 7

ELGETA Ipuinen Ordua
Boluntario taldearen eskutik, hiru txanda, adinaren arabera.
Liburutegian, 17:00etan.

OÑATI 'Gure artelanen erakusketa'
Goyeneche Fundazioko kideen lanak ikusgai, hilaren 16ra arte.
Kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Baga, Biga, Higa' hitzaldi musikatua
Eñaut Elorrietarekin eta Mikel Markezekin. Berbalagunak taldearen ikasturte amaierako ekitaldia.
Zaldibarren, 19:00etan.

ARETXABALETA Screamers And Sinners taldea
Hypnosia! diskoa aurkeztuko dute, *7x7 kultura kalean* ekimenaren baitan.
Mitarte kalean, 19:00etan.

OÑATI Olakua auzoko jaiak
19:00etan, trikitilariak eta buruhandiak; 19:30ean, presoen aldeko elkarretaratzea; eta, 22:00etan, kontzertua.
Olakuan.

ARETXABALETA Bertsotan Julio Sotorekin
Lekaixoka bertso elkartekoen ikasturte bukaerako ekitaldia.
Udaletxe zaharrean, 19:30ean.

BERGARA Bitorianatxoren jaitsiera
Pazko jaien hasiera.
San Martin plazan, 19:30ean.

ARAMAIO Bohemian Soul taldea
Sastiñako Musika Festibalaren baitan.
Sastiñan, 20:00etan.

BERGARA En Tol Sarmiento taldea
Pazkoak 2019.
San Martin plazan, 22:30ean.

BERGARA Barne Guda, Crim eta Brigade Loco
Pazkoak 2019.
Txosnagunean, 23:00etan.

ZAPATUA 8

ARETXABALETA Bizir Eguna
09:15ean, mendi buelta Kurtzebarritik, Mendiolan hasita; eta 19:00etan, kontzertuak Arlutzeko kantxan: Ekiñe Casado; Krisis; Gari; eta Leire Etxezarreta eta Eider Garro.
Aretxabaletan.

ARRASATE Gorputz Artean tailerra
Sexuazio prozesuak, zentzumenen esnatzea, sentsazioak eta hazkunde erotikoa landuko dituzte, besteak beste.
Loramendi gelan, 10:00etan.

ELGETA 'Arantzetako baselizak' bisita gidatua
Sei kilometroko ibilbidea, Santa Maria, Andramari, Uriarteko Andra Mari, San Adrian, San Martin eta San Blas ermitak ezagutzeko.
Mendizaleen plazan, 10:00etan.

ARETXABALETA Elkartrukea: Urbaltz-Montferri
10:00etan, ibilaldia; 14:30ean, bazkaria; 17:30ean, Bixentak taldearen kontzertua.
Aretxabaletan.

ARRASATE 'Kirola kalera'
Askotariko kirolak egiteko aukera, herriko hainbat gunetan.
Alde zaharrean, 10:30ean.

OÑATI Olakua auzoko jaiak
10:45ean, jolasak; 12:00etan, Oñatz taldekoen erakustaldia; 14:30ean, bazkaria; 19:00etan, erraldoien eta buruhandien kalejira; 19:00etan, talogileak; eta, 20:30ean,Obenuke taldearekin erromeria. Ostean, Iruñerria DJa.
Olakuan.

ARAMAIO Eskolako jaia
Buruhandiak, tailerrak, bazkaria, herri kirolak, bingo jokoa...
Bañera parkean, 11:00etan.

ARRASATE Elkartasun Eguna
11:00etan, puzgarriak; 11:30ean, trikitilariak; 13:00etan, Arrasate Musikaleko talde gazteak; 16:30ean, puzgarriak; 17:30ean, Mugi Boogie taldea; 19:00etan, txokolate-jana; 19:30ean, What A Band taldea; eta 20:30ean, zozketa.
Seber Altuben.

ARETXABALETA Kurtzebarri eskolako jaia
11:30etan, jolasak; 12:30ean, Kurtzebarriko batukada: 13;30ean, *Eguzkiari agurra* ikuskizuna; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan, munduko jolasak eta dantzak, eta AZ Gaubela taldearekin erromeria.
Aretxabaletan.

ARRASATE Danborradako kantineren entsegua
Zerrajerako erlojuaren eraikinean dagoen Txikitxu-Arrostaitz taldearen lokalean.
Lokalean, 11:00etan.

ESKORIATZA Luis Ezeiza Herri Eskolaren Jaia
11:00etan, ikasleen ekitaldiak; 12:15ean, umeendako emanaldia; 14:00etan, bazkaria; eta 15:30ean, umeendako jolasak.
Luis Ezeizan.

ARRASATE Bedoñako Santa Eulalia parrokian bisita
Besteak beste, leihoetan dituen elementu erromantikoak dituen eliza ezagutzeko aukera.
Bedoñan, 12:00etan.

ARAMAIO '24 millas' dokumentala
Maydayterraneo taldeak 2017an egindako errefuxiatuen lehen erreskate misioa ardatz duen lana. Izaskun Arriaran egongo da saioan azalpenak ematen.
Kultura etxean, 21:00etan.

ARRASATE SOMOS GUERRERAS TALDEA
Hip-hop kontzertua, Guatemalako, Mexikoko eta Costa Ricako musikarien eskutik.
Gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Esne Beltza taldea
Pazkoak 2019.
San Martin plazan, 23:00etan.

BERGARA Urgatz, Egurra Eta Kitto, Ttun Ttun Brigade, Gorpuzkingz eta MRT
Pazkoak 2019.
Txosnagunean, 23:59ean.

IMANOL SORIANO

OÑATI Governors, Txerrikumeak, Txapelpunk eta Lee-Kore taldeak
Olakua auzoko jaietako kontzertu nagusia izango da. Lau talde, eta askotariko doinuak izango dira protagonista. Ordubete inguruko emanaldia egingo du talde bakoitzak. Debalde.
Gaur, egubakoitza, Olakua auzoan, 22:00etan.

DOMEKA 9

ARRASATE 'Aiba!' mendi martxa
Proba hasi aurretik eman daiteke izena irteera lekuan: hamabost euro federatuak eta 20 federatuta ez daudenak. Bi ibilbide egiteko aukera: luzea 41 kilometrokoa eta laburra 34koa.
Biteri plazan, 07:00etan.

ESKORIATZA Txikirri-Txikirri
Hamabigarrenez egingo dute, hildako mendizale eskoriatzarren omenez.
Fernando Eskoriatza plazan, 07:30ean.

OÑATI Ibilaldia Artasoko basora
Pago motzak ikusi eta haien ezaugarriak ezagutzeko aukera, Valentin Mugarzarekin.
Arantzazuko parketxean, 09:00etan.

ELGETA Erretiratuak: irteera eta urteko kuota
Urteko kuota ordaintzeko eta hilaren 19rako Gallartara antolatuta dagoen irteeran izena emateko aukera edukiko dute erretiratuek.
Ozkarbi elkartean, 11:00etan.

OÑATI Trauti Eguna
10:30ean, elbarriendako aparkalekuetan kartelak ipiniko dituzte; 11:30ean, itsuek ibiltzeko dituzten zailtasunak ezagutzeko ibilaldia eta egokitutako autoen erakusketa; eta 13:00etan, luntxa.
Foruen plazan, 10:30ean.

ARETXABALETA Auzoko egitasmoaren jaia
Haurrendako txokoa, jatorri ezberdinetako jakiak, dantza saioa...
Herriko Plazan, 11:00etan.

OÑATI Hotz Oñati: informazio mahaia
Taldearen materiala salgai.
Foruen plazan, 11:00etan.

OÑATI Elkar Hezi eguna
11:00etan, eta tailerrak; 13:30ean, kalejira; eta, 14:30ean, bazkaria.
Elkar Heziren eraikinetan.

ARRASATE Auto klasikoen topaketa
Hirugarrengoz egingo dute Red Dragons taldekoek.
Arruena parkean, 11:00etan.

OÑATI Erretiratuen Eguna
12:00etan, meza parrokian; 14:00etan, omenaldia eta bazkaria; eta ostean, dantzaldia.
Zubikoan, 13:00etan.

OÑATI Olakua auzoko jaiak
12:00etan, haurrendako mendi bizikleta ibilaldia; 12:30ean, meza Bidaurretan; 13:00etan, parrillada eta herri kirolen erakustaldia; 16:30ean, herriko bertsolarien saioa; eta 22:00etan, jaien bukaera.
Olakuan.

OÑATI Bainu denboraldiaren hasiera Usakon
Sorosle zerbitzua egongo da, irailaren 8ra arte.
Usakon, 15:00etan.

ARETXABALETA Erromeria erretiratuendako
Basotxo erretiratuen eskutik.
Mojen komentuko lorategian, 18:00etan.

BERGARA Izaki Gardenak
Pazkoak 2019.
Txosnagunean, 19:30ean.

OÑATI 'Humanity at music' sinfonia kooperatiboa
Kontzertuaren aurretik, 19:00etan, Andoni Egañak eta Josu Igartuak bertso saio laburra egingo dute Foruen plazan.
Parrokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 10

BERGARA Kuadrillen Eguna
11:30ean, herri kirolen txapelketa egingo dute. Pazkoak 2019.
Zezen plazan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

OÑATI Eutanasiari buruzko hitzaldia
Juan Jose Sagarzazu medikuak egingo du berba.
Santa Ana antzokian, 17:30ean.

ARETXABALETA Txistuen eta metal instrumentuen emanaldia
Leizarra musika eskolakoen kontzertua.
Arkupen, 18:00etan.

ARRASATE Biolin eta biola kontzertua
Arrasate Musikaleko ikasleak.
Kulturaten, 19:30ean.

MARTITZENA 11

BERGARA Umeen eta helduen eguna
Pazkoak 2019.
Bergaran, 09:00etan.

ELGETA 'Azaleko ipuinak'
Saroa Bikandiren eskutik, 0-2 urte bitarteko neska-mutikoendako.
Liburutegian, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Kirola eta elikadura' hitzaldia
Andere Etxabe dietista-nutrizionistaren eskutik.
Ibarra kiroldegian, 18:00etan.

OÑATI 'Zergatik aukeratu eskola kirola?' hitzaldia
Proiektua, helburuak, xedeak... ezagutzeko, gurasoendako batzarra. Iñaki Iturriotzek eta Jon Lazkanok egingo dute berba.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA Piano emanaldia
Leizarra musika eskolakoen eskutik.
Arkupen, 18:00etan.

OÑATI Aloña Abesbatza eta musika eskolako taldea
Debalde eta irekia.
Santa Anan, 18:00etan.

ARRASATE Tronboi, tuba eta bonbardino kontzertua
Arrasate musikaleko ikasleak.
Kulturaten, 18:00etan.

ESKORIATZA Argentinako Euskal Astearen inguruko bilera
Hango astea nolakoa den azaltzeko.
Kultura etxean, 18:30ean.

EGUAZTENA 12

OÑATI Erretiratuen ibilaldia
Hamarretakoa egingo dute, eta ostean, dantzaldia.
Pake Lekun, 10:00etan.

BERGARA Kafe Konpon
Etxeko tresna txikiak konpontzeko.
San Joxepen, 16:30ean.

ARRASATE Piano kontzertua
Arrasate musikaleko ikasleak.
Kulturaten, 18:00etan.

ARETXABALETA Rosa del Aguilaren bilduma
Hilaren 28ra arte ikusgai.
Arkupen, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Amar con los ojos abiertos' hitzaldia
Genero ikuspegitik aztertuko dute maitasunak zer esan gura duen emakumeendako. Maitasuna, askatasuna eta errespetua izango dituzte hizpide. Gazteleraz izango da.
Kultura etxean, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren eta sasoiko produktuen salmenta.
Oxirondon, 18:00etan.

ARRASATE 'No entiendo a mamá' liburuaren aurkezpena
Sara Vitoria egileak berak aurkeztuko du liburua.
Kulturaten, 18:30ean.

OÑATI Erreferendumaren aldeko herri ekimenaren aurkezpena
Gure Eskuren bozeramaile Amalur Alvarezek eta Josu Etxeburuk egingo dute berba.
Kultura etxean, 19:00etan.

EGUENA 13

OÑATI Bingo jokoa
Saio berezia, opariekin. Erretiratuendako.
Pake Lekun, 17:00etan.

ARRASATE 'Quattrocentotik' erakusketa
Hilaren 14ra arte.
Kulturaten, 17:30ean.

ARRASATE Argentinako Euskal Astearen inguruko bilera
Hango astea nolakoa den azaltzeko.
Kulturaten, 18:30ean.

ANTZUOLA Gara egunkaria hizpide
Mikel Zubimendi kazetari bergararrak egingo du berba.
Olaran etxean, 18:30ean.

ARAMAIO Literatura solasaldia
Txirritola Euskara Elkartearen eskutik.
Sastiñan, 18:30ean.

ARRASATE Klarinete kontzertua
Arrasate musikaleko ikasleak.
Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA 'Korten-Saroien antzinatasunaz' berbaldia
Luis Mari Zalduak egingo du berba, euskaraz.
Irizar jauregian, 19:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Rocketman
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Pokemon (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Rocketman
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

Mr. Link
Egunero, martitzena izan ezik: 13:30, 15:45, 17:40, 19:35.
Martitzena: 15:45, 17:40.
Egunero: 16:30.

Mejor que nunca
Egunero, martitzena izan ezik: 13:10, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.
Martitzena: 16:10, 20:10, 22:10.

El sotano de Ma
Egunero, martitzena izan ezik: 12:40, 15:55, 18:05, 20:15, 22:25, 00:30.
Martitzena: 15:55, 18:05, 20:15.

X- men
Zapatua eta domeka: 12:00.
Egunero: 14:30, 17:00, 16:00, 18:30, 19:30, 20:15, 21:00, 22:00, 22:25.
Egubakoitza eta zapatua: 23:30, 00:30.

Romeo y Julieta
Martitzena: 20:00.

John Wick
Egunero, martitzena izan ezik: 13:00, 16:00, 18.45, 21:25, 00:15.
Martitzena: 16:00, 18:45.

Aladdin
Egunero, martitzena izan ezik: 12:10, 15:45, 18:20, 21:00, 23:40.
Martitzena: 18:20.

Vitoria, 3 de marzo
Egunero: 18:00, 20:00, 22:00.

Lo dejo cuando quiera
Egunero: 15:50.

El parque magico
Zapatua eta domeka: 12:40.

GORBEIA

Aladdin
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.
Martitzena: 17:30.

Antes de la quema
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua. 18:45, 20:35, 22:30.
Domeka: 18:45, 20:35.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Dilili en Paris
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua: 16:30, 18:20.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:20.

El sotano de Ma
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Infiltrado en Miami
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Zapatua: 20:15, 22:20.
Domeka: 12:15, 20:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

La pequeña Suiza
Egubakoitza: 20:15, 22:15.
Zapatua: 20:30, 22:20.
Domeka: 11:45, 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

KRITIKA

La ceniza es el blanco más puro ★★★☆☆
Zuz.: Jia Zhang Ke. **Herr.:** China (2018). **Aktoreak:** Zhao Tao, Liao Fan, Xu Zheng. **Iraupena:** 135 minutu.

Bizitzari norabidea topatzen

ANTONIO ZABALA

La ceniza es el blanco más puro-ren iraupena bi ordu eta laurdenekoa da. Zuzendariak denbora erabiltzen du istorioak duen sakontasun dramatikoa azaltzeko. Hau dela eta, ikuslea, pazientzia pixka bat izanez gero, ohartuko da istorioaren intentsitatea eta aberastasuna etengabe garatzen joango dela, apurka-apurka. Istorioaren lehenengo zatian, mafian sartuta dagoen bikote baten harremanak ikusten ditugu. Gizona buruzagi garrantzitsua da, eta emakumea berarekin bizi da, bigarren plano batean. Zati horretan, taldearen funtzionamendua ezagutuko dugu. Gero, gertaera bortitz bat izango da, eta, horren ondorioz, bikotearen egoera guztiz aldatuko da. Hortik aurrera, emakumea izango da pertsonaia nagusia. Emakumea bakarrik geratuko da, eta bizitzan bere tokia aurkitzen ahaleginduko da. Lehenengo, iraganarekin kontuak konpondu eta utzitako harremanak berreskuratu nahi izango du. Emakumeak amodioarengatik egindako sakrifizioak ez du erantzun egokirik. Gauzak nola dauden argitu nahiko du aurrera jarraitzeko, eta bere bizitzari norabidea topatzeko. Istorioa hiru zatitan banatzen da, tartean urte dezenteko elipsiekin. Bigarren eta hirugarren zatietan, bikotearen arteko eszenak ederrak dira. Pelikulan mafiaren jokaera azaltzen bada ere, sentimenduei buruzko drama bat dela esan daiteke.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Gobernantza berria

Hauteskundeak pasata, arazoak lehengo tokian daude. Bozketa egunak ez du aldaketa handirik ekarri –salbuespenak salbuespen– eta arazoei aurre egiteko modu eraginkorrena lehengo bera da: lana lankidetzan.

Alderdien logika nagusitzen da hauteskundeetan: mitina, debatea, zalaparta, setakeria... Baina biharamunean berriro herrigintza dago zain, herritarron interes komuna eta horri erantzuteko aukera ezberdinak. Mundu aurreratuan lurralde gobernantza demokratikoa ari da bihurtzen gizarte garapenerako giltza, eta honek eskatzen du oraingo moldeetatik askoz harago joatea, lankidetza esparruak eraikitzea eta horietan eragile publiko, sozial eta pribatuak parez pare jartzea egoerak aztertzen eta estrategiak lantzen. Alkate batek pentsa lezake bere udalbatza dela udalerriko organo gorena; baina han soilik prozedura administratiboa burutzen da, herrigintzaren logika hori baino aberatsagoa da, zailagoa, anitzagoa, emankorragoa...

Debagoiena mundu aurreratuaren puntan dago, eta gizarte autoeraketan eredu da. Horregatik dagokio gobernantza demokratiko parekidean murgiltzea eta aitzindari izatea. Herritarrok eskertuko dugu.

BUKATZEKO

Lorea Ibarra, argazki handian, ezkerretik hasita laugarrena, *Akelarre* filmaren errodajean. DAVID HERRANZ

Lorea Ibarra arrasatearra, 'Akelarre' filmean lanean

1906ko Euskal Herrian girotuta, begirada feminista duen drama historikoa ari dira filmatzen egunotan: 'Akelarre'. Filmean aritzeko 800 hautagairen artean hautatu duten antzezleetako bat da Lorea Ibarra, eta 'Oneka' pertsonaia hezurmamituko du

Aitor Agiriano ARRASATE

Pablo Aguero zinemagile Argentinarraren bosgarren film luzea da honako hau, eta sorginkeriaren gaineko prozesu judizialean oinarrituta dago, hain zuzen.

Euskal Herrian, Nafarroan eta Iparraldean ari dira grabazioak egiten eta 2020an estreinatzea aurreikusten dute.

Aktore gazteak ikusiko ditugu pantaila handian; tartean, protagonistaren lagunaren papera antzeztuko duen Lorea Ibarra. Ez du aurrez antzezpen munduarekin hartu-emanik eduki, lehen aldia du oraingoa: *"Casting* bat egin behar zutela esan zigun amaren lagun batek. Hasieran, ezezkoa eman nuen, bidaia bat egiteko asmotan nintzen eta. Baina ama tematí izan nuen, eta, azkenean, bidali egin nuen argazkia".

Hautatze-proba luzea pasa behar izan du Ibarrak, filmeko sorginetako baten papera antzeztea lortu bitartean: "Egia esan, gauzatu nituen probak nahiko errazak egin zitzaizkidan. Separata bat bidaltzen ziguten, eta ez genuen guztiz ikasita eraman behar. Proba egiteko unean sekuentzia antzezten genuen, eta listo. Batzuetan, sentsazio onarekin ateratzen nintzen. Beste batzuetan, aldiz, gaizki egin nuen irudipenarekin". Azkenean, baina, hainbat hilabete pasa eta gero, filmean parte hartuko zuela jakin zuen: "Klasean nengoela deitu zidaten, eta oso pozik jarri nintzen. Egia esan, banuen deituko zidaten sentsazioa".

Zaila eta gogorra, baina polita

Filmaketa oso gogorra den esperientzia ari da izaten arrasatearrarendako. Grabazio ordu asko dituzte, eta ez da erraza. Dena den, oso esperientzia polita bizi izaten ari dela dio: "Hasi aurretik, banuen beldur bat, errodajera iritsitakoan ez ote nuen gainerako lau neskekin bat egingo, baina guztiz kontrakoa pasa da, oso harreman ona dugu eta primeran konpontzen gara".

Esperientziadun aktoreekin lan egiteko aukera ere ari da izaten, eta, asko ikasteaz gain, sekuentziak grabatzeko aholkuak ematen dizkiote haiek. Gainera, egoerak, giroak, jantziek... pertsonaian sartzeko erraztasuna ematen diotela dio.

Oraingoz, behintzat, ez du Arte Dramatiko ikasketak egitea buruan: "Mundu hau ziurgabetasun handikoa da, eta beste ikasketa batzuk eduki nahiko nituzke. Hori bai, beste pelikula bat egiteko deituz gero, egingo nuke".